

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-05-09
ASTELEHENA
320. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET

TOKIKOM



"Kartzela niretzako oso gogorra izan da momentu askotan: nahia eta ezina"

Jon Agirre | Preso politiko ohia | 7

Euriak ez zuen lortu trikitiak eta panderoak isilaraztea Aramaion | 29



Herriko plan estrategikoa aurkeztu dute Bergaran | 16



Berdinketa futbol derbian: UDA 2 - Mondra 2 | 25

Eskerrik asko, zaleei!

Oñatiko Sustrai-Aloña saskibaloia taldeak EBA mailako taldea dela ospatu zuen zapatuan, kiroldegian aurrea eta plazan gero | 24



Xabi Igartua eta Ander Mallabiabarrena zaleei bosteko ematean udaletxeko arkupetan. Atzetik, Mikel Biain, Eneko Blanco, Markel Exposito... | JOSETXO ARANTZABAL

Bildu, garraio publikoa, zaborra eta zergak eztabaida-iturri | 2

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 |
KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 |
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 |
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/gep

>> Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/empresagintza



GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012
Informazio jardunaldiak

MGEP		OÑATI Gestio Heziketa	
maiatzak 14 (larunbata) 11:00 5001 Gela	• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizazioak	maiatzak 17 (asteartea) 18:00	• Administrazioa eta Finantza
	• Eregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak		• Idazkaritza
	• Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa		• Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a
	• Efabrikazio Mekanikako Diseinua		
	• Efabrikazio Mekanikako Produktibitatearen Programazioa		
	• Industri Ekipamenduaren Mantentzeak		
Kontsulta pertsonalak:			
943 71 21 91 E-posta: sarriaran@gep.mondragon.edu		943 71 80 69 E-posta: empresagintza@empresagintza.mondragon.edu	



Bilduk, garraioak, zaborrek eta zergek eman zituzten momentu onenak

Zazpi alderdi nagusietako ordezkariak mahai-inguru interesgarria egin zuten Goiena telebistan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hilaren 22an, udaletako eta Batzar Nagusietako ordezkariak aukuratzeko hauteskundeak izango dira. Goiena telebistan mahai-ingurua egin zuten zazpi alderdi nagusietako ordezkari banak egubakoitzean, kanpaina hasten zen egunean. Hona hemen berriketaldi haren laburpena.

Bilduren aldeko epaia eman zuen bart [eguna] Auzitegi Konstituzionalak. Ze iritzi duzue?

Rebeka Ubera: Urrats bat da, baina gehiago egin behar dira: magistratuek Alderdien Legea bertan behera utzi beharko lukete -Sortu ilegalizatua dago- eta karteletan, politikan jarduteagatik preso daudenak askatu beharko lituzkete. Bestetik, momentua da ETari tinkotasun osoz esateko bukatuta dagoela bere zikloa eta etsizat eman behar dela.

Iñaki Agirrezabalaga: Gure funtsezko eskubide bat bertan behera geratzen zen eta Konstituzionalak horrela aitortu digu. Bestetik, esan izan da ETaren alderdia ginel, bakarrik izan garenean idatziz aitortu dugunak, banan-banan, gure hautua bide politiko eta demokratikoetatik izango zela eta, ekintza armatua egongo balitz, hori arbuatu egin genuela.

Mikel Izaguirre: Normalkuntza bidean hainbat oztopo jarri dituzte. Atzo horiek gaintitzen hasi ziren eta hori inportantea da, baina beste oztopo batzuk ere pasatu beharra dago. Bat ETaren jardura da; hori etetea da aurreneko eskakizuna gure herrian. Bi, aukera guztiak legeztatuak izatea.

Rafael Olaizola: Ilegalizatuak gu gara, alderdi popularreko zenbait herritar. Nik Zarautzen ez dut lortu herriko jendearekin zerrendarik egitea; ia denak kanpotarrak dira. ETA hor dago, mehatxua hor dago. ETA desgertzen ez den bitartean, Batasuneko munduak binkulazioa izango du ETarekin. ETA dagoen bitartean, guk bere aurka egingo dugu, eta ez da bakarrik pistolak dituztenen aurka baizik eta konglomeratu guztiaren aurka.

IÑAKI AGIRREZABALAGA

BILDU

Zumaiarra da eta 34 urte ditu. Zumaiako alkatea EAtik, eta Gipuzkoako Eako koordinatzailea. Alkategaia da Bildurekin, eta Deba-Urola barrutiko zerrendaburua.

MARKEL OLANO

EAJ

Beasainarra da eta 45 urte ditu. Gipuzkoako jarduneko diputatu nagusia da, eta kargu bererako EAJren hautagaia.

REBEKA UBERA

ARALAR

Elgetarra, 39 urte. Haur Hezkuntzan eta Heziketa Fisikoan diplomatua. 2003tik zinegotzia eta 2005etik batzarkidea da, eta oraingoan hautagaia.

ENEKO ANDUEZA

PSE-EE

Eibartarra, 31 urte. Zientzia Politikoak ikasi zituen. Eibarko sozialisten idazkari orokorra da. Deba-Urola barrutiko zerrendaburua.

RAFAEL OLAIZOLA

PP

Zarauztarra, 45 urte. Maisu Industrial lanbidez. Gaztetatik Zarauzko kirol munduan oso inplikaturik egon da. Alkategaia da.

MIKEL IZAGIRRE

EZKER BATUA-BERDEAK

1949an jaioa. Urnietako alkatea eta batzarkidea da. Bigarren zerrendagaia da Donostialdeko barrutirako.

MAITE ETXANIZ

HAMAİKABAT

Arroa, 1965. Zarauzko alkate izandakoa. Gizarte Politikako foru diputatua da 2007tik. Deba-Urola barrutiko zerrendaburua.

Markel Olano: Jendeak badaki prozesu bat martxan dagoela, eta horren oinarrian dago ezker abertzaleak erabaki duela armak utzi eta bide demokratikoa hartzea. Bildu legez kanpo geratzeko arriskua oztopo ikaragarria zen. Hauteskundeei begira, orain Euskal Herriko tradizio politiko guztiek daukate aurkezteko aukera. Alderdien Legea egin zenetik ez dugu aukera hori izan.

Maite Etxaniz: Ezker abertzaleak pauso handiak eman ditu, eta erabaki hau beste aurrerapauso bat izan beharko da gure gizartea normalizatzeko. Ea ETak noiz uzten dituen armak behin betiko; hor, ezker abertzaleak ere zeregin handia dauka.

Eneko Andueza: Pauso handia eman da Euskadiko egoera normaltasun bidera eramateko. Orain, bide luzea daukagu egiteko: Euskadin kargu politiko askok babesa daramagu.

Has gaitzen azpiegituretatik eta garraio publikotik. Ze irtenbide proposatzen duzue Debagoienarako?

Markel Olano: Gure proposamena bus azkarraren aldekoa da. Esan zen ez zela posible errail bat dedikatzea Arrasate eta Bergara artean bakarrik bus azkarrari. Bada, gure proposamenak ez du errail hori tramua guztietan sartzen, eta semaforo eta biribilguneetan bideragarria den alternatiba bat egin daiteke herri artean. Baina ez dugu martxan jarriko ez badugu lortzen herri guztien adostasuna.

Rebeka Ubera: Erronka handi bat zegoen hor, zelan sartu hainbat garraibide txartel bakarrean, eta hor dago zeregina. Azken hila-beteotan atzerapausoak eman dira. Bestalde, Donostiatik eskualde desberdinetarako zerbitzua hobetu da, baina herri txikiak zintzilik geratzen dira. Txartel bakarra lantzeraz bueltatu behar gara.

Maite Etxaniz: Garraio publikoak arrakasta izateko, toki guztietara iritsi behar da eta ordutegi zabal eta malguarekin. Konponbide egokiena erakundeen arteko elkarlana da. Adibidez, Foru Aldundiak Oñatiko Udalarekin hitzarmen



Bi emakumezko eta bost gizonezko parte hartu zuten egubakoitzeko mahai-inguruan.

bat du industrialdera garraio publikoa eramateko. Beste herri batzuetan posible izan daiteke, batez ere, herri txikietan.

Mikel Izaguirre: Garraio publikoa, gaur egun, ez da lehiakorra: hemen-dik Donostiara autoz azkarrago joaten gara. Bailara barruan ere, gauza bera gertatzen da. Bigarrenik, tren sarea ezinbestekoa da, bailarako kanpokoarekin lotzeko, eta trenera oso diru gutxi bideratu da. Eta hobariak behar ditugu, jendea erabiltzen entrentatzeko.

Bidesariak ere hor daude...

Rebeka Ubera: Debagoiendarrok

diskriminatuak gaude. Donostiara joateko gidariak ordaindu behar duena ikaragarria da. Ze irizpideren arabera ordaindu behar dugu bidesari hori? Guk bineta soziala proposatzen dugu, mantenuagatik ordaintzeko, eta ez egin den azpiegitura ordaintzeko.

Markel Olano: Egin diren errepideak ezin dira aurrekontuekin ordaindu. Erabiltzaileak ordaindu behar du. Bidesarien tresna ezinbestekoa da egin dena ordaintzeko eta lurraldea orekatzeko.

Zaborren kudeaketa da beste gai garrantzitsu bat. Atez ateko bilke-

ESANAK



"Sozietateen zergaren gaineko eztabaida sozializatu egin behar da; gehien duenak gehien eman behar du"

IÑAKI AGIRREZABALAGA | BILDU



"Bus azkarra martxan jartzeko gertu gaude, baina bakarrik herri guztiak ados baldin badaude"

MARKEL OLANO | EAJ



Eztabaidan hasi aurretik, talde argazkia ateratzeko tartea hartu zuten. | JOSETXO ARANTZABAL

ta ala bosgarren edukiontzia?
Mikel Izagirre: Guk atez atekoa-ren alde egiten dugu. Ez dago beste sistemarik antzeko emaitzak ematen dituenik. Atez atekoa duten herriei askotan galdetzen zaie soberako %20rekin zer egin behar duten, baina kutsadura handiena zabor organikoak ematen du.
Maite Etxaniz: Datuak ez dira ondo ematen. Esaten da %85 birziklatzen dela, baina Usurbil eta Hernaniko datuak dauzkat. Usurbilen 1.000 tona *galdu* dira. Non daude? Eskatu zaie udal horiei estolderia begiratzea eta ez dute

hala egin. Egia da %85 birziklatzen dela, baina ez da %100 jasotzen. Gipuzkoan gehiengo zabal batek onartutako ereduak %60 birziklatzen du. Atez atekoaren %85 azkenean %48 da.
Rebeka Ubera: Guk proposatzen duguna da ahalik eta zabor gutxien sortu, ahalik eta gehien berrerabili eta sistema bilketa selektiboa egitea. Gero, badaude errausketa baino teknologia aurreratuagoak, gasifikazioa, adibidez.
Markel Olano: Alemanian ari dira birziklatzen eta konpostatzen zaborraren %60. Beste %40a erraus-

tu egiten dute. Gaur egungo erraus- tegiek duen emisio kutsagarria ikaragarri txikia da.
İñaki Agirrezabalaga: Herritarrei esan behar zaie zabor bilke- ta guztion ardura dela, eta auke- raketa egitea ardura herritarrari berari uztea da.
Eneko Andueza: Gakoa da pre- bentzioa. Oinarritzko zaborren bilketa handitu egin behar da, gehiena birziklatzeko. Geratzen dena erre egin beharko dugu, garan- tia tekniko guztiak ipinita.
Mikel Izagirre: Hondakinak kudeatzeko badago hirugarren



Garaian grabatu zuten saioa eta Goiatz Aranek gidatu zuen. | J.A.

alternatiba bat: aurre-tratamendua egitea, inertizatu eta bio-lehortu. Hori egin eta gero, materiala iner- tea da, eta horiekin egin daiteke zabortegi bat, depositu bat; horiek ez daude Europak debekatuta.
Gipuzkoako politika fiskala egokia iruditzen zaizue?
Maite Etxaniz: Gure eredu fiska- la beste leku batzuetakoa baino hobe da. Baina aurren, aportazioen legea eztabaidatu behar da eta berria onartu. Gaur egun dagoen banaketa sistemarekin Gipuzkoak diru asko galtzen du.
İñaki Agirrezabalaga: Sozietateen zergan eredu berria behar dugu, azken finean gehien duenari gehien eskatu behar zaiolako. Eztabaida hori sozializatu egin behar dugu.
Rebeka Ubera: Txabarriren garaian, progresibitatearen kontra hasi ziren. Soldatapekoek gehien tributatzen dute: 33.000 euro. Kapi- talak 21.000 tributatzen du eta jar- duera ekonomikoak 18.000. Berres- kuratu behar ditugu 2006 baino lehenago zeuden neurriak.
Markel Olano: Enpresa batek Gipuzkoan edo kanpoan ezartzea erabakitzeko momentuan, zergek eragin handia dute. Hartu behar diren erabaki guztiak inteligentziaz hartu behar dira.
Euskaran, ze jarraibide dituzue?
Rafael Olaizola: Lan handia egin behar da. Erakundeetan indartu egin behar da euskara, baina dis- kriminaziorik gabe. Oposaketa baten, adibidez, euskara baloratu egin behar da, eta ez dakienari, lagundu.

Mikel Izagirre: Zerbitzu publi- koetan, herritarrarena da euska- raz atenditu dezaten eskubidea, eta ez langilearen eskubidea.
Markel Olano: Edukien sorkuntzan dago koska. Guk 7.000 euro ipini ditugu euskalgintzarekin akordioa egiteko edukiak sortzeko.
Rebeka Ubera: Legealdi honetan artaziak pasa zaizkio euskarari: %20, izugarria. Artaziak pasa ostean, ezin zaio milioi bat gehia- go Realari eman kamisetan *Eus- kararekin bat* eramatearren.
Markel Olano: Realaren gaineko erabakia modu kontzientean har- tu genuen, euskalgintzak oztupoak dituelako mezua zabaltzeko.
Hauteskundeak eta gero, zeinekin egingo zenukete hitzarmena?
Rafael Olaizola: Hitzarmena zei- nekin egin ezin dugu kanpainen erabili. PP eta EAJ batera egon izan dira Madril... Denetarik egon da.
Mikel Izagirre: Garapen soziale- rako bidean, EB egongo da.
İñaki Agirrezabalaga: Itxaropen bidean laguntza eskaintzen duen edonorekin hitz egiteko prest gaude.
Eneko Andueza: Gipuzkoan, alder- di gehienekin egin ditugu hitzar- menak. Bide horretatik goaz.
Markel Olano: Ni ez naiz batere frontista, baina PSE-PP frontea martxan dago. Horri aurre egite- ko elkarlan bat egin behar dugu. Jendeak tentuz begira dezala zei- ni ematen dion botoa eta ze alter- natibak izan dezakeen pisua eta indarra horri aurre egiteko.

ESANAK



"Soldatapekoek gehien tributatzen dute. Berreskuratu behar ditugu 2006tik aurreko politika fiskalak"

REBEKA UBERA | ARALAR



"Gipuzkoan, alderdi gehienekin egin ditugu hitzarmenak, eta bide horretatik jarraituko dugu"

ENEKO ANDUEZA | PSE-EE



"Benetan ilegalak gu gara, PPko kideak. Zarautzen ez dut lortu bertakoekin zerrenda osatzea"

RAFAEL OLAIZOLA | PP



"Atez atekoa duten herriei galdetzen zaie soberakoarekin zer, baina gehien zabor organikoak kutsatzen du"

MIKEL IZAGIRRE | EB-BERDEAK



"Atez atekoan datuak gaizki ematen dira: batzen den %85 birziklatzen da, baina ez da zabor guztia batzen"

MAITE ETXANIZ | HAMAIKABAT

Istiluak eta hiru atxilotu, presoan eskubideen aldeko deialdian

Auzitegi Naziolak debekatu egin zuen zapaturako deitutako manifestazioa

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Auzitegi Nazionalak zapatu goizean debekatu egin zuen arratsalderako Arrasaten deituta zegoen manifestazioa. Biziarteko kartzela zigorraren aurka eta gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko aldarrikatzeko deitu zuten, baina Auzitegi Nazionalak uste zuen pasa den astean askatu zuten Jon Agirre preso ohia omentzeko zela eta, beraz, "terrorismoa" goratuko zutela.

Herriko plazatik Garibaira

Auzitegi Nazionalak deialdia debekatu arren, 18:00etan jendetza batu zen Herriko Plazan. Ordurako Ertzaintzaren bost furgoneta zeuden udaletxe parean. Hamabost minutu inguru pasata, jendea Herriko Plaza utzi eta Biteri plazara joan zen poliki-poliki. Ertzaintzaren furgonetek jarraitu egin zituzten. Jon Agirre euskal preso ohi aramaiorria Garibai kaleko etxebizitza bateko balkoira atera ostean istiluak hasi ziren. Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu zituen eta Bergarako polizia-etxera eraman zituen. Ertzaintzaren arabera, 22:00ak aldera utzi zituzten aske.



Jon Agirre Garibai kaleko etxebizitza bateko balkoira atera zen. | ARANTZAZU EZKIBEL

Tentsioa eta istiluak, ordubetz

Ertzaintza atzean zuten arren, manifestariak Biteri Plazan-Garibai kaleko oso gertu-Bizi arteko kartzela zigorrak ez! zioteen papearak atera zituzten eta asko eta asko lurrean eseri ziren. Jon

Agirre Garibai kaleko balkoi batera atera zenean, txalo zaparrada itzelarekin erantzun zuten eta preso ohiaren aldeko oihuak entzun ziren. Orduantxe hasi ziren tentsio momentuak, eta berehala istiluak.



Ertzaintzak atxilotutako hiru lagunak furgoneten kontra. | ARANTZAZU EZKIBEL



Istiluak egon ziren manifestarien eta Ertzaintzaren artean. | ARANTZAZU EZKIBEL

Ertzaintza manifestariak lekutik botatzen saiatu zen eta, azkenean, gomazko pilotak erabili zituen manifestariak sakabanatzeko. Tentsio momentu handiak bizi izan ziren eta istiluek luze jo zuten, 45 minutu inguru.

Ertzaintzak manifestariak sakabanatu arren, 19:00ak inguruan guztiak Herriko Plazan batu ziren berriro ere eta *Eusko Guda-riak* abestia kantatuz amaitutzat eman zuten arratsalderako deitutako ekitaldia.

M-22 Aralarrek Aretxabaletan hasi du kanpaina

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA

Aralarrek Aretxabaleta aukuratu du Debagoieneko hauteskunde kanpainari hasiera emateko. Egubakoitz iluntzean Durana kalean batu ziren taldeko ordezkariak, alderdiak ireki duen informazio bulegoaren atarian.

Debagoieneko bi alkatetzei-Aretxabaletakoa eta Elgetakoa- eta zinegotzi denei eustea izango da alderdiaren erronka nagusia hauteskunde hauetan, "ezkerretik, beste kultura politiko bat" sortu eta zabaltzeko.



Jesus Elortza zerrendaburua herri-programa azaltzen. | JOSETXO ARANTZABAL

M-22 Bergarako Bilduk ibilalditxoa egin zuen herriko kaleetan barrena programa azaltzeko

A.B. | BERGARA

Bergarako Bilduk ekitaldi berezia egin zuen zapatu goizean, hauteskundeetarako landu duten programaren berri herritarrei emateko. Ibilalditxoa egin zuten eta, herriko zenbait puntutan geldituz, programaren ardatz nagusiak azaldu zituzten.

Udaletxeko arkupetan hasi zuten bueltatxoa eta bertan Jesus Elortza zerrendaburuak azaldu zuen herritarren parte-hartzea izango dela Bilduren lehentasuna, bergararrekin egindako herria landu eta garatu nahi dutela.

Zentzu horretan, oraingo Udal Gobernuak egindako lana azpimarratu zuen. Gaineratu zuen onartu berri den Plan Estrategikoa izango dela beraien iparrorratza.

Errege Seminarioaren arkupetan ere gelditu ziren eta bertan adierazi zuten Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga Jauregiaren arteko permuta lortzeko gogor lan egingo dutela.

Mizpirualden ere egin zuten geldialdia, zaharren egoitza leku egokiago batera eraman nahi dutela azaltzeko.

M-22 EAJk abertzaleen erantzun "irmoa" aldarrikatu du, "PSE-PP fronteari" aurre egiteko

ENENKO AZKARATE | OÑATI

Markel Olano EAJren diputatu nagusigaita Oñatin izan zen egubakoitz arratsaldean. Lourdes Idoiaga Oñatiko alkategaia izan zuen bidelagun, baita beste hainbat alderdikide, zinegotzigai eta Batzar Nagusietarako hautagai ere. "Ez da zatiketa garaia; krisia gaitzetzeko eta Gipuzkoa eraikitzeke ideien eta proiektuen inguruan eztabaidatzeko unea da", esan zuen.

Gipuzkoako jarduneko diputatu nagusi eta EAJko hautagaiak gaineratu zuen PSE-PP

frontearen aurrean abertzaleok esnatu eta irmo agertu behar dugula: "Bertan geratzeko asmoarekin iritsi zen PSE-PP frontea eta abertzaletasuna erakundeetatik ateratzeko helburu bakarra du. Gure erantzun irmo eta eraikitzailea merezi dute".

Bestalde, Oñatiko alkate eta alkatetzarako hautagai Lourdes Idoiagak adierazi zuen urte hauetan EAJren kudeaketaren ezaugarri nagusiak gertutasuna eta herritarren parte-hartzea izan direla.



Lourdes Idoiaga Oñatiko EAJko zerrendaburua barikuko ekitaldian. | J.A.

Zumelaga

Maiatzaren 9tik aurrera, gauetan ere zabalik!

San Antonio kalea 5
BERGARA
Tel.: 943 76 20 21
www.zumelaga.com

Karabana solidariorako elikagaiak jasotzen dabiltza

Maiatzaren 18ra arte eroan ahal izango dira ohiko tokietara Saharako kanpalekuetarako elikagaiak

MIRIAN BITERI | ARRASATE
Dagoeneko martxan da urte hasieran egitekoa zen Saharako errefuxiatuen kanpalekuetarako karabana solidarioa. Gaurtik maiatzaren 18ra bitartean, leka-leak, arroza, botila olioak, pasta, azukrea, oilotan kontserbatutako atuna edo sardinak eta konpresak eroan ahal izango dira bailarako ohiko denda eta ikastetxeetara.

Horren harira, Nubi elkartetik gogorarazi dute egunotan jasotako janaria kanpalekuetara eraman ahal izateko kamioia behar dutela, eta hori finantzatzeko dirua batzen dabiltzala. Hiru kontu korrante hauek zabaldu dituzte horretarako: 3035 0001 51 0010097799 (Euskadiko Kutxa), 2100 1972 05 0100226062 (La Caixa) eta 2054 2043 00 9155081846 (Nafarroako Kutxa).

Udan, Debagoiengan
Karabana solidarioaz gain, urteroko *Oporrak bakean* izeneko kanpaina ere abian jarri dute

eskualdean Sahararen alde lan egiten duten erakundeek. Errefuxiatuen kanpalekuetan bizi dituzten baldintza gogorak kontuan izanda, 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei bestelako oporrak eskaintzea eta, bide batez, sahararren eta euskaldunen arteko batzar solidarioa indartzea da kanpainaren helburua.



Orain arte Gabonetan jaso dituzte elikagaiak. | GOIENA

Horretarako, baina, ume horiek etxean hartzeko gertu dauden familiak behar dituzte. Interesatuak Nubi elkartearekin jarri behar dira harremanetan, 685 72 48 17 telefono zenbakian edo nubielkarte@gmail.com helbide elektronikoan. Joan den urtean, 27 neska-mutiko izan ziren gurean Nubi, Iesbaa eta Bubisher elkarten bidez.



JOSETXO ARANTZABAL

Haize bolada bortitzak, asteburuan

Haizea zakar ibili zen egubakoitz gauean eta baita zapatu goizean ere. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologia Zuzendaritzak alerta horia ezarri zuen. Euskal Herriko hainbat puntutan haizeak 120 kilometro orduko abiadura hartu zuen. Gurean ez zuen kalte larririk eragin, baina zuhaitz bat baino gehiago bota zituen; esaterako, Eskoriatzan, Mendigoia Hotelaren parean.

CO2 bako eraikinez hitz egingo dute eguenean, XXI. Mendeko Etxebizitzaren Jardunaldietan

Arizmendi ikastolak XXI. Mendeko Etxebizitzaren Jardunaldiak egingo ditu eguenean, hilak 12, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean. Bosgarrenez antolatu ditu jardunaldiok, eta aurren, gaurkotasun handia duen CO2 bako eraikinen inguruan jardun-go dute hainbat hizlarik. Besteak beste, Industria Ingeniaritzan doktore eta Europako arautegiaren egile Gonzalo Molina eta LKSkok arkitekto eta ziurtagirietan aditu Eduardo Solana eta Andrew Ferdinando izango dira.

HELBURUA: BIRMOLDATZEA - GUTXITZEA

Hori lortzeko gure aukerak

Kabitazioa
(kolpea gubitzeko)

Lokatza hidrotapiarekin
(drainatzailea eta zirkulatorioa)

Bakunterapia ultrasoinuekin
(moldatu eta drainatu)

PALPE - ROULE
(irrotasuna)

Elektroporazioa
(zirkulazioa, tonifikazioa)

Mesoterapia medikoa
Arruabarrena doktorea,
elkargokide-zk.: 6073



Endiko kalea 54 behean
20500 ARRASATE
TEL: 943 79 09 09



Iturgina, sukaldeko ur-hodiak konpontzen. | REPARALIA

Apurtutako hodiedetatik gastatzen da ur gehien

Tanta-jarioa duen txorrota batek egunero 30 litro ur gal ditzake, eta urteko faktura %5,29 garestitu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gasa, gasolina edo elektrizitatea baino gutxiago hitz egiten da uraren tarifaz, baina hori ere urtetik urtera handituz doa. Oraindik herrialde industrializatuotan ura neurritz kanpo gastatzen da, orokorrean. Kontsumitzaileen OCU elkartearen arabera, Hego Euskal Herrian eta Espainian urtean 227 euro ordaintzen ditu familia bakoitzak, 175 m3 kontsumituta.

Ura aurrezteko eta norbere poltsikoari eta ingurumenari mesede egiteko, komeni da jakitea etxean zerk eragiten duen ur kontsumo handiena, horrela aurrezteko neurriak hartu ahal izateko.

Instalazioa begiratzea komeni

Harrigarria badirudi ere, etxe-ko ur gastu handiena apurtutako hodiedetatik edo tanta-jarioetatik dator. Hala, tanta-jarioa duen txorrota batek egunero 30 litro ur gal ditzake, Reparalia enpresaren eta Ekologistak Martxan elkartearen arabera. Horrek urteko faktura %5,29 garestia goa izatea eragiten du. Bestalde, tanta-jarioa duten txorrotez gain, berogailuek ere ura gal dezakete. Horietako bakoitzak gastu osoaren %4 dakar, gutxi gorabehera.

Hortaz, gomendagarria da gutxienez urtean behin etxe-ko hodiak zelan dauden begiratzea, eta baita uraren presioa zelakoa

den. Izan ere, ura larregiko presioan izateak ere hodiak hondatu ditzake.

Instalazioa behar bezala baldin badago, etxe-ko kontsumoaren %65 eta %70 artean bainugelan egiten da, eta etxe-ko kontsumo guztiaren %40 tangak (komune-ko zisternak) eragiten du. Arautegiak dio zisternak 9 litrokoak izan daitezkeela gehienez, baina zisterna zahar askok behar baino ur gehiago erabiltzen dute (10-15 litro artean).

Garbigailuarena da hirugarren ur gastu handiena: %4,92. Batez beste, 100 ur litro erabiltzen ditu aldi bakoitzeko, eta 1-2 kilowatt energia. Gastu hori kotoizko, 60°C-ko programa bate-

Uraren kontsumoa

ALPERRIK Herrialde industrializatuotan oraindik ur asko galtzen da alperrik. Kontsumo handiena AEBek egiten dute: eguneko eta biztanleko, 500 litro. Norbanakoak egunean 50 litro behar ditu.

NEKAZARITZA Ur gehien nekazaritzak kontsumitzen du: %75-80; gero, hiri-kontsumoa dator (%15); eta hirugarren, industriaren kontsumoa.

AKATSAK Etxeko gastu handiena akatsak edo ihesak dituen instalazioek egiten dute. Horregatik, komeni da urtero errebisatzea.

ETXEAN Bainugelan etxe-ko kontsumoaren %65-70 egiten da; zisternak %40 hartzen du.

rako kalkulatuta dagoela jakinda, beste programa batzuk erabil daitezke: hala, 40°C-ko oihal sintetikorako programa batek 20 eta 50 litro ur gutxiago artean erabil ditzake.

Ontzi-garbigailua erabiltzen dugun bakoitzean 20 eta 40 litro ur kontsumitzen dugu. Dena dela, kontsumoa txikia da: etxe-ko kontsumoaren %2,60 besterik ez.

Garbiketa-tunela

Familiaren beste ur-gastu handienetako bat automobilaren mantenua da. Autoa garbitzeko tuneletan, aldi bakoitzeko 20 eta 35 litro ur erabiltzen dira, eta, normalean, depuratu eta berriz erabiltzen da ura. Horregatik, norberak tutuarekin (mangararekin) garbitzeak baino ur gutxiago erabiltzen du horrek; tutuarekin, 10 minutuan gutxienez 200 litro ur gastatzen dira.

Fagor Etxetresnek iazko erdia galdu dute

L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibak 9,8 milioi euroko galerekin itxi zuen iazko jardunaldia, 2009an baino %50,7 gutxiago (orduan, 19,9 milioi galdu zituen). 1.396 milioi euro fakturatu zituzten 2010ean, 2009an baino %1 gutxiago, eta Ebitda (esplotazioko emaitza brutua) %25 hazi zen, 75 milioi hartu arte.

Enpresak esan du urte "konplikatu" izan zela, eta, hala ere, 2009an errebisatutako Plan Estrategikoak jasotzen zituen aurreikuspenak gainditu egin zituela.

%7,6 gehiago saltzea

19,3 milioiko emaitza operatiboarekin itxi zuen jardunaldia, 2009an baino 8,9 milioi gehiago. Kooperatibaren ekin-tza nagusian, lerro zurian, 20 milioitik gorako emaitzak izan zituen, eta Ebitda 15 milioi euro hazi zen. 2011ko aurreikuspenek jasotzen dute salmenta bolumena %7,6 handitzea eta produktu berriak garatzeko 46 milioi gehiago inbertitzea.

Kukuxumusuren sortzaileak hitzaldia egingo du Oñatin

Ulmaren 50.urteurrena dela eta, Koldo Aiestaran Kukuxumusuren sortzaileetako batek eta Pedro Balboa Komunikazio zuzendariak hitzaldia egingo dute etzi, eguaztena, Ulmaren auditoriumean (Garagaltza 51), 18:00etan. Abian jarri zuten enpresa-proiektu berezi baten esperientzia kontatuko dute.

ELAren 100 urteak erakusketan ikusteko modua izango da Bergaran

L.K. | BERGARA

ELA sindikatuak 100 urte betetzen ditu aurten, eta erakusketa ibiltaria etorriko da.

Hain zuzen, etzi, eguaztena, arratsaldean, eta eguen osoan, ELAren Bergarako egoitza izango da, eta sindikatuaren hainbat dokumentu erakutsiko dituzte (argazkiak, dominak, txostenak, kartelak, pegatinak...). Eguenean, 18:00etan, ELAko lehengo eta oraingo afiliatuak batuko dira Bergarako egoitzan.

Festa handia Bilbon

Mendeurren eguna ekainaren 11 da, eta egun horretarako deialdia egingo dute Bergaran batutakoek.

Hain zuzen, Bilbon egingo du ELAk urteurren ekitaldia, eta ekitaldi handia izango dela espero dute.

1978an afiliatu ziren eta gaur egun afiliatuta jarraitzen duten 285 lagun gonbidatu ditu sindikatuak. Haiez gain, beste 350 ordezkari, afiliatu eta lagun joango dira Deba eskualdetik. "Festa handia" aurreikusten dute ELAko ordezkariak, eta esan dute milaka lagun batuko direla Mirivillan.

Deba eskualdeak (Debagoienak eta Debabarrenak) "beti izan du garrantzia", dio sindikatuak. Eskualdean 6.000 afiliatutik gora daude.

Hego Euskal Herrian langabezia handiagoa dago, bi neurgailu nagusien arabera: EPA eta Inemen zerrendak

L.K. | ARRASATE

Hego Euskal Herrian langabeziak okerrera egiten jarraitzen du. Hala agerrarazi du Estatistikako Institutu Nazionalak, 2011ko lehenengo hiruhilekoari dagokion txostenean batutako datuen bitartez.

Horren arabera, urtariletik martxora bitartean 2010eko azken hiruhilekoan baino 14.600 langabe gehiago egon da, eta martxoa bukatzerakoan 165.200 langabe zeuden. 12 hilabeteko epea kontuan hartuta, berriz, iaz baino 13.800 langabe gehiago zenbatu ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia-tasa %11,6 zen eta Nafarroan, %13,4.

DATUA

%0,04

LANGABE GEHIAGO

Inemen langabe gehiago erregistratu dira apirilean Hego Euskal Herrian: 89.

Gipuzkoan 31.000 langabe

Gipuzkoari dagokionez, 31.000 langabe zeuden martxo bukaeran, betiere Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera. Iazko azken hiruhilekoan baino 4.700 gehiago ziren; baina iazko martxotik hona, 300 gutxiago.

Inemen arabera, berdin

Estatistikako Institutu Nazionalak egiten du populazio aktiboaren inkesta; eskualdeka ez du daturik zehazten. Bai, ordea, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak (Inem), lan-eskatzailleen kopurua jakinarazita. Bada, horren arabera, martxoko langabezia-tasa berbera du Debagoienak: %10,24. Hego Euskal Herrian, berriz, 89 langabe gehiago zenbatu ditu; langabezia-tasa %0,04 hazi da hilabeteen. Gipuzkoan 43.829 langabe daude.

Jon Agirre | Preso politiko ohia

"Dispertsioaren eta zigorren bitartez gu apurtzen saiatzen dira"

Osasunez makal xamar badago ere, 'Elurtxuri'-k adorea eta indarra badituela erakutsi digu. 30 urte kartzelan eman ostean, etxean da lagun eta senideekin batera.

MAIDER ARREGI | ARAMAIO

69 urterekin, irribarrea aurpegian daukala eta bizitzari eusteko ilusioz ikusi dugu Jon Agirre *Elurtxuri* preso politiko ohia.

Dagoeneko lasaigo?

Kartzelatik irten aurretik telefonoz galdetzen zidaten ea urduri nengoen, baina ez naiz urduri jarri, ezta azken egunetan ere. Orain ere oso lasai nago, pozik.

Nola topatu dituzu Aramaio eta inguruko herriak?

Gauzak oso aldatuta ikusi ditut, jendea eta paisaia, batez ere; bizitzaren eboluzioa da. Autotik pasadan ikusi dut paisaia eta oso aldatuta dago. Entzunda neukan sekulako posteak daudela jarrita eta argazkiak ere ikusita neuzkan; GOIENA paperaren bitartez ere jarraitu ditut AHTko lanak. Baina nire begiekin ikustean, harritu egin naiz eta inpresioa eragin dit. Espetxe barruan Euskal Herriko kontuak jakiteak asko laguntzen digu eta hemengo berri ere izan dut, jakina.

Harrera hunkigarria egin dizu herriak.

Basaurin sekulako harrera egin zidaten goizaldean; orain 30 urte, horrelako harrera berorik ez zegoen. Espetxean ezagutu nituen lagunak, aramaioarrak, lagun asko eta ezezagunak ere pilotalekuan izan ziren. Hamarretik zortzi gazte jendea ziren eta hori ikustea, espetxetik irteten zaren unean, ikaragarria da. Aurrera egiteko indarra eta animuak ematen dizkizu.


Parot doktrina, bizitza osorako kartzela zigorra.

Parot doktrina legez kanpoko da. Konstituzioak dakar kondenak ez direla atzeraeraginezkoak, hau da, ezin zaio aurrez emandako epai bati aplikatu. Preso politiko guztiei hori aplikatu nahi diete. Hortxe duzu Troitiñoren kasua, esaterako.

Ion, zu zara Euskal Preso Politikoen Kolektiboari ezartzen zaion espetxe politikaren irudia. Guretzat, duintasunaren eredu. Maite zaitugu! Gisa horretakoak entzutean zer sentitzen duzu?

Entzutea polita da... sinistea beste kontu bat [kar kar]. 30 urte eman ditut barruan, eta zein baldintzatan? Askatasuna eta beste gauza asko kentzen dizkigute, edo horretan saiatzen dira behintzat.

700 preso politikotik gora kartzelatan. Zein da presoaren egoera, gaur egun?



Jon Agirre Ferrerías kaleko plaza berrian. | MAIDER ARREGI

Pertsona bakoitza eta kartzela bakoitza ezberdina da. Andaluziakoak dira gogorrenak; janaria izateko orduan edo medikuarengana joaterakoan aldatzen da, nagusiki. Funtzionarioen eta kartzelako zuzendarien esku gaud; egoera ezberdina da, bareagoa edo gogorragoa bizi dezakete presoek. Gaixorik daudenak ere asko dira, jendea zahartuz doa. Nik, esaterako, lehen ez nituen pastillak hartzen eta orain egunean 12. Espetxeko medikuaren esku dago zure osasuna eta hori kartzelaren arabera da.

Presoek barruan bizi duten egoera zein da?

Funtzionarioen eta zuzendarien aldetik presio handia dago eta kanpoan gertatzen den guztiak eragiten dizu. Ekintza bat egin denean, esaterako, preso bakoitzak bere erara erreakzionatu du. Sekulako inpotentzia, ezintasuna duzu barruan. Nik gogoan daukat Txomin Iturbe hil zenean negar egin nuela. Nahia eta ezina.

Bobby Sands hil zela 30 urte bete berri dira. Orduko aldarrikapenetatik zerbait lortu da? Gurean badu isla?

Ahaleginak egin ditugu, baina askorik ez dugu lortu politika mailan: barruan, espetxeko egoera pixka bat hobetzeko, agian, zerbait lortu dugu, baina politika mailan ezer gutxi. Zigor eta dispertsioaren bitartez, lortzen dugun guztia apurtzen dute.

Gose grebak, txapeoak... presoan borrorak, barruan, zuen duintasunari eusteko balio izan al du?

Bai eta ez. Horrek askotan zatiketa eragiten du gure artean ere; jendeak jota bukatzen du. 10 hila-beteko *txapeoa*, esaterako, -Herre-rako martxa, adibidez- oso gogorra da guretzako eta baita familiarendako ere. Egunero hori bizitzea ikaragarria da.

30 urte kartzelan. Zer izan da gogorrena?

Iratin trago bat ez hartzea, adibidez [kar kar]. Ez, gauza asko

daude: inpotentzia, amorrua... Gauzen ondorioak ikusten dituzu eta sekulako inpotentzia da. Lehen 10 urtetan jai guztiekin akordatzeko zara, baina gero pixkanaka ahazten dituzu herriko gauza batzuk... garai bateko erromeriak eta jaiak ere desagertu edo aldatu egiten dira-eta.

Noiz ikusi zenuen azkeneko ilargi betea?

Nik 1989an Sevillan ikusi nuen eklipsea dut gogoan eta oraindik akordatzeko naiz. Ilargi betea ikusi izan dut patioan ilunkararen batean, baina txabola barrutik ez da ezer ikusten.

Urte guzti hauetan lagun eta senitartekoen babesa garrantzitsua izan da, ezta?

Nik kristoren suertea izan dut eta 30 urtetan, aste bukaeretan, beti izan dut bisita. Jende gaztea, nagusia... denetarik; atera kontuak, espetxeratu nindutenean oraindik ere jaio gabe zeuden gazteak etorri zaizkit bisitan! Barruan dagoenarendako beharrezkoa da.

Bildu koalizioa hauteskundetan egongo da. Horrek egoera eta mapa politikoa guztiz aldatuko du.

Pozik hartu dut albistea. Bilbotik bueltan, Twitter sare sozialaren bidez zurrumurrua zegoela entzun nuen irratian eta ondoren ofizial egin zuten. Bilduk ate bat ireki du, baina bidea dago egiteko eta asko! Boto asko jasoko dituela uste dut, herrian hori sumatzen da. Lehen, herria ETak baldintzatzen zuen; orain, ez dago ETA, desagertu da. Politikarien jokoa hasten da orain. Atea zabaldu barik ezin da aurrera pasatu, ulertzen? Espainiako estatuaren ibilbidea, historia ikusita, oraindik buelta etorri daiteke. Frankistek boto asko dute eta jende asko dago Felipe II.aren zaldira igota oraindik. Dena egiteko dago eta gehiago orain, azken urteetan ez digutelako utzi ezer egiten. Herri mailan lan asko egin behar da eta gure demokraziarako atea zabalik dugu. *Merece la pena tanto tiempo? Yo a mi hijo le mandaría de casa...* esan zidan erizain batek Basurton. Nik bere semeagatik berdina egingo zuela erantzun nion.

Noiz moztuko duzu bizarra?

Erregimena aldatzen denean moztuko dut [kar kar], benetan!

"Nahia eta ezina, kartzelan niretzako oso gogorra izan da une askotan"

ZABALIK

MAITE ARISTEGI
'http://goiena.net/iritzia/'



Bildu ilusioa!

Euskarak baditu hitz batzuk bereziki garrantzitsuak adieretan. Esaterako, P. Mujikaren hiztegian *bildu* hitzaren esanahia begiratu eta hara non 24rainoko zerrenda luzea topatzen dugun! Baina bi ataletan banatu daitezke: norbaitekin bildu, batu, elkartu, besteak erakarri, seduzitu eta konbentzitu, azken batean elkar-bideak bildu; eta bigarrena, zerbait bildu, uzta batu, lortu, gehitu.

Eta horrelako nahiak datozkit trumilka gogora espainiar demokrazia definitiboki hiltzear zegoela, Konstituzionalaren boto bakan horiekin hartutako arnas txikiaren ondoren. Sentidu komuna gailendu da gutxienagatik eta askatasuna eta justiziazko bakea nahi dugun guztiok ere arnasa hartu dugu. Justu-justu piztu dute, baina oraindik ustezko demokrazia hori zaintza intentsiboetan dagoe-la ezin ahaztu. Tortura, espetxe-politika, erabakitze-ahalmena ukatzea eta abarrez gain, *sortu* legeztatu gabe, 40.000 lagun hautagai izateko aukera barik, eskubide zibil eta politikoak moztuta, esperientzia, balioa, herriaren alde dena eman dutenak baztertuta (urrun joan barik, gure bailaran hainbeste egiten jarrai zezaketenak agintea eta ekarpen politikoa uztera behartuak...); *bildu*-ri atea zabaldu arren, bijilantzian, edozein unetan edozergatik berriz atea ixteko mehatxupean.

Baina Kant-ek zioen bezala, txoriek ere haizearen erresistentziari esker egiten dute hegan, eta mokoan konponbiderako adartxoak daraman txori honek ere herritarren konbizio, laguntza eta erresistentziari esker jarraitzen du hegan, independentzia eta sozialismo bidean; ia-ia tiroz bota dute, oraingoan bizirik irten da, gero eta indartsuago bere bidean, atzera-bueltarik gabe. Eta ahultzen edo jo-ta botatzen saiatzen direnei, baketsu baina indartsu erantzungo diegu, elkarrengana bilduz eta ahalik eta ahots eta indar gehienak batuz. Gonak eta mahukak bildu (erremangau) eta ametsa lortu: euskaldunok behingoz geure behia *bildu*. Oraingoan herrietatik hasi eta Diputazioraino.

USTEAK USTE

USOA AGIRRE | 'uagirre@goiena.com'

Lanera itzulera zaila

Aste Santuko jaiegunak hartu aurretik inguruko guztiak esandakoa izan zen hau: "Deskantsatu eta pilak kargatu, beharko ditugu-eta opor osterako!" Eta bai behar ere! Astelehenean esnatu ginen epaileek emandako albiste txarra entzunez. Gure ofizioan pilak kargatuta egoteko moduko egunak izaten dira hauteskunde bezperak, eta horrelako albisteek egunero-ko lana are gehiago korapilatzen dute.

Baina politika kontuek txikikeriak dirudite maite duzun baten heriotzaren alboan. Eta azkenaldian lagun bat baino gehiago ikusi dut maite duen baten heriotzarengatik sufritzen. Bakoitzak borroka dezala maite duen horren alde. Animo!

KALE INKESTA

Bildu egongo da hauteskundeetan. Zer iruditzen?



GREGORI
BITERI
ARRASATE

"Oso pozik hartu dut albistea. Bildu, hasieratik, hauteskundeetan egon behar zela uste izan dut, nahiz eta, ez neukan esperantza handirik".



JABIER
IRIA
ARRASATE

"Bazen ordua legeztatzeko; herriko gehienek nahia bete dela uste dut. Zer gertatuko, zain eduki gaituzte azken momentura arte, ordea".



CARMELO
RUBIALES
ARRASATE

"Uste dut guztiak izan behar dutela eskubidea demokratikoki hauteskundeetan egoteko. Ondo hartu dut albistea".



MIREN
IBABE
ARAMAIO

"Hasieratik normalizazio batera iritsi behar ziren, errekurtsorik gabe. Garai hauetan horrela ibiltzea ez da justua; denek izan behar dute aukera".

HANDIK ETA HEMENDIK

Berriz lurra zapaltzeko aukera

Xabier Letona
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Azken minutura arte bere parte hartzea debekatua izan ondoren, azkenean Bildurekin hasi da hauteskunde kanpaina. Euskal Herriarren gehiengoak poztu duen erabakia izan da Espainiako Konstituzio Auzitegiarena. Ozta-ozta izan bada ere, behin osoko bilkurara pasatu ondoren, 7 magistratu Bilduren alde eta 4 aurka izango zela pentsatzen zen, baina ez, estuagoa izan da: 6 alde eta 5 aurka. Progresisten taldean kokatzen ei den Manuel Aragonek –espainiar nazionalista sutua ei da– azkenean bat egin du PPK hautatutako bost epaileekin.

Poza nabaria zen Bilbo eta Iruñeko kaleetan zain ziren Bilduzaleen artean, kale eta etxe askotan, baita Euskal Herriko sare sozialetan ere... eta pentsatzeko da EAJ, Aralar eta EB moduko alderdietako hautagaiak ere pozik izango zirela: auzitegi konstituzionalak ezezkoa eman izan balu eta Bildu legez kanpo geratu izan balitz, ez zen mokadurik gozoena izango hauteskunde hauetan parte

hartzea. Ez zen mokadu gozorik izango, oro har, euskal gizartearentzat.

Baina ez da hala izan eta aurrera begira bereziki nabaritutako da, hiru arrazoi nagusirengatik. Lehenik, hauteskundeetan izateko oinarriko eskubidea medio, euskal gizartearen benetako nahia aspaldikoz islatuko delako hautatu beharreko erakundeetan. Bigarrenik, hain beharrezkoa den bake prozesua bultzatuko duelako. Hirugarrenik, gatazkaz gain, herri honek dituen bestelako gai eta arazoak ere beste indar batez azaleratuko direlako plazako eztabaidara.

[...] Bilduren garaipena, hala ere, estua izan da eta bai kanpainen, bai ondorengo ibilbidean tentu handiz ibili beharko du Alderdien Legeari eman zaizkion tresna berrien atzaparretan ez erortzeko.

[...] egunotako efemerideei helduz, akaso esan dezakegu amerikar haren tankeran, hau urrats txiki bat dela Bildu-rentzat, baina handia euskal gizartearentzat.

Eta, hitzen bat aldatuta, errusiarrarenak ere ia bere osotasunean balio dezake: "Hau bai edertasuna! Euskal herritarrok, zain dezagun gure Lurra, ez dezagun suntsi".

Kamuflajea

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Gorka Bereziartuari irakurri diogu *Argia.com* txokoan: Defentsarako Misilen Nazioarteko Konferentzia bat egiten ari dira Donostian. Sentitzen dut, irakurle, baina ondo irakurri duzu hiri anfritrioia izena: Donostia da. Bakearen altzo eta bihotz izateko bokazioa duen hiria. Urte gutxi barru Kulturaren hiriburu izan nahi duen horretantxe. Marko konpara ezinaren ardatzean eraiki zuten Kurtsaal eraikin apartan.

Beste kontu askoren artean, antolatzaileek darabilten "kamuflajezko prosa" seinalatzen du Gorkak bere artikuluan. Armamentuari sistemak eta teknologia deitu izana. Militarrei, bezeroak. Merkatuari, berriz, martxan dauden gerrak.

Eufemismoen bidetik, ez da zaila asmatzea nazioarteko konferentziak zer nolako aukerak aurreikusten dituen, aurreikuspen ekonomikoek zer talaia duten: jaioko diren gerrak, jaioko baitira berriak...

Kalkulu txar bakarra: danborradarekin batera ez antolatu izana.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adieraztako initzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eguneroko aurrezkia



Erosketak egitera, landa edo hondartzara, edo bidaian zoazela, baita etxean ere... berdin dio non zauden, egunero dago aukera zeure diruari etekina ateratzeko.

Aukeratu zeurekin doana ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 telefonora dei eginez, kutxa.net-en edo **kutxa**ren kutxazainetan.

Aukera ezazu nahi duzun aurrezkia.



 **kutxa**
Zugandik ZUGANA

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Joseba Ugalde | Ezker Batuko zinegotzia (1995-2011)

- Lau agintaldi egin ditu zinegotzi moduan; lauretan ere, alkate ezberdinarekin
- Gizarte Zerbitzuak, eta Ingurumena eta Enplegua batzordeetako buru izan zen
- Hilaren 22an Bildurekin aurkeztuko da 19. tokian, Alternatiba ordezkatzeko

"Blancoren eta Carrascoren hilketen ondorengo mozioak izan dira une zailenak eta tentsoenak"

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Joseba Ugaldek (Aretxabaleta, 1951) 16 urte daramatza zinegotzi. Orain jardunean dihardu Udalean, ekainaren 18an udalbatza berria osatu arte. Orain arte egindako lanarekin gustura dagoela esan digu, eta bere buruarekin "oso lasai".

Lau agintaldi. 16 urte egin dituzu zinegotzi moduan. Bokazioa da?

Bokazioa, bokazioa... Ez nuke hori esango. Oso gazte hasi nintzen politikan. Amaren eta aitaren familiak nazionalistak ziren. Urte askoan Espainiako Alderdi Komunistako (PCE) kide izan nintzen. Euskadiko Ezkerra sortu zenean, alderdia utzi nuen. Urtebetera Izquierda Unidako kideek eskatu zidaten taldea sortzeko Arrasaten eta IU-Ezker Batua sortu genuen. Ondoren, EB-Berdeak, eta udal hauteskundeetan Bilduren zerrendan noa 19. lekuan Alternatibako kide moduan.

Politikan bigarren lerroa pasako zara, orduan?

Bai. Politika gustuko dut eta segituko dut, baina bigarren edo hirugarren lerroan. 16 urtean ideia eta proiektu asko izan ditugu, baina txanda emateko ordua ere bada. Gazteek hartu beharko dute lekukoa: ideia aurrerakoiak, freskoak eta modernoagoak dituzte.

Eta badaude lekukoa hartzeko gazteak?

Oso gutxi. Argi geratu da alderdi politiko askok arazoak izan dituztela maiatzaren 22ko udal hauteskundeetarako zerrendak osatzeko.

Herritarrei ez zaie politika interesatzen. Gurekiko duten ikuspuntua eta iritzia aldatu egin



Joseba Ugalde, Ezker Batua-Berdeak alderdiaren jarduneko zinegotzia, Arrasateko plazan. | MIREIA BIKUÑA

beharko dugu. Alderdiok lan handi eta zaila dugu. Gazteengana eta herritarrengana heltzen ez bagara, abstentzioak gora egingo du eten-gabe.

16 urteko errepasoa egitea ez da erraza, baina zeintzuk izan dira bizi izandako unerik gogorrenak?

Bi aipatu nituzke, beste guztien gainetik: Miguel Angel Blanco

eta Isaias Carrascoren hilketen ondorengo zentsura-mozioak. Bietan Udal Gobernuak kide ginen. Tentsioa ikaragarria izan zen, batez ere Carrascoren hilketaren



Joseba Ugalde botoa ematen 2008ko hauteskundeetan. | ARTXIBOA

"Herritarrengana ez bagara heltzen, abstentzioak gora egingo du"

"Urbanoa martxan ipintzeko borroka handia egin genuen"

ondoren. Hedabide guztiek Arrasate jomugan ipini zuten. Etxean gutunak jaso genituen, mehatxuak ere bai... Gainera, Isaias eta biok zinegotziak izan ginen aldi berean.

Politika pikutara bidaltzeko gogoa izan zenuen orduan?

Une latz haiek gainditu egin genituen. Politika utziko nuela erabaki nuen, orain dela bi urte eta erdi, emaztea hil zenean. Konturatu nintzen ordu asko eskaini nizkiola zinegotzi lanari, eta emaztearekin disfrutatzeak aukera nuenean... Orduan pentsatu nuen politika uztea.

Lau agintalditan egindako proiektuetatik, zein aukeratu zenuke?

Duda barik, urbanoaren proiektua. Askok borrokatu ginen, eta begira orain... Herri barruko zerbitzua ematen duen autobusa edukitzea luxua da. Dena den, zerbitzua hobetu egin daitekeela uste dut.

Bestalde, aipatuko nituzke Arrasateko goiko auzoetara joateko jarritako igogailuak. Irisgarritasun bertikalaren aldeko apustua egin genuen.

Gainera, olio birziklatzeko proiektuaren garrantzia azpimarratu gurako nuke. MUREkin batera abian jarritako makina berdeak bilakaera itzela izan du, bai gurean eta baita inguruko herrietan. Asmatu egin genuen, eta harro nago horregatik.

Askok aldatu da Arrasate 16 urteotan?

Bai, asko aldatu da, eta hoberako, gainera. Herri atseginagoa da orain, baina oraindik badu zer hobetu. Adibidez, gunerik berde gehiago beharko genituzke.

ALOÑA EBA LIGAN

GOENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

ASTELEHENA, 20:45, 22:30 | XABI URTZELAIK AURKEZTUTA

BABESLEAK:

GALICIA
TABERNAOTAMENDI
TABERNATXAKETUA
TABERNA

HERRIAK



Bigarren eskuko azoka egingo dute maiatzaren 22an Eskoriatzako plazan; mota horretako azokak egin dira bailarako beste hainbat herritan ere; besteak beste, Osintxun. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA

Baztertuta duguna saltzeko aukera dugu hilaren 22an

- Bigarren eskuko azoka egingo dute lehen aldiz, Eskoriatzako plazan
- Herritarrek etxean dutena zuzenean saldu ahal izango dute, goizean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ekimen berria egingo dute maiatzaren 22an Eskoriatzan: hain justu, bigarren eskuko lehenengo azoka. Etxeko bazter baten ahaztuta dituzten gauza horiek saldu edo trukatu ahal izango dituzte eskoriatzarrek 10:00etatik 14:00etara plazan jarriko duten merkatu horretan.

Eskoriatzako Kultura teknikari Arantxa Untzuetak azaldu du Kultura azpibatzordeak jasotako herritar baten proposametik datorrela ekimen berri hori. Hain justu ere, Olazar erretiratuen elkarteko kide batek egindako eskaeratik. Untzuetaren esanetan: "Gaur egungo gizarte kontsumistak bultzatuta erosi eta erosi egiten dugu, eta gero erabiltzen ez ditugun baina egoera onean dauden gauzak izaten ditugu etxean gordeta. Agian, beste norbaitek guk ahaztuta ditugun gauza horiek behar ditu. Birziklatzea eta berrerabilpena bultzatu nahi dugu".

Untzuetak azaldu du ez dagoe la mugarik, eta, hortaz, herritarrek gura dutena eroan ahal izango dutela domeka horretan plazara: "Edozer izan daiteke: esaterako, liburuak, arropa, jostailuak, margolanak edo mahaitxo edo lanpara bat". Prezioari dagokionez ere ez da mugarik jarri. Bakoitzak gura duena eskatu ahal izango du, eta, nahi badu ere, trukea egiteko aukera izango du.

Ipar Euskal Herriko "filosofia"
Kultura teknikariak aipatu du Ipar Euskal Herrian erabiltzen duten "filosofia" ekarriko dutela Eskoriatzara: "Bakoitzak aukera izango du dituen gauzak salgai jartzeko; domekan plazan mahai bat jarri eta interesgarriak izan daitezkeen produktuak salduko ditu zuzenean".

Horren harira, eskoriatzarrek parte hartzera gonbidatu nahi izan ditu: "Badakigu hasiera zaila izan daitekeela, jendea lotsatu

egin daitekeelako. Baina uste dugu modu hori bultzatuz askoz errazagoa dela hiru edo sei hilabetean behin horrelako azoka txikiak antolatzea, aldeztatik ez du esfortzu handik eskatzen -eta". Dagoeneko hainbat lagunek parte-hartzea baieztatu dutela jakinarazi digu.

10:00etatik 13:30era, jaso

Dena dela, domeka goiz osoa plazan ezin direnak egon ere badaude; haiengan ere pentsatu dute Kultura azpibatzordean: "Jostailu bi edo bizikleta bat bakarrik saltzeko duten lagunek ez dute nahi izango goiz osoa han pasatu. Horretarako, 10:00etatik 11:30era egongo gara jendeak ekartzen duena jasotzen. Hori bai, bakoitzak prezioa jarrita izan beharko du". Ordu horretan materiala eraman ezin dutenek, dena dela, aurretik kultura etxera eroateko aukera ere eskainiko dute.

Domekan, azoka amaitzean, plazatik pasa beharko dute. Eskai-

nitakoa saldu bada, dirua jasoko dute; eta bestela, ekarritakoa eroan beharko dute. Dena dela, Untzuetak gaineratu du osteraren etxera eraman nahi ez badute, han uzteko aukera izango dutela: "Hurrengo egunean, kamioneta hartuko genuke eta Remarrera eramango genuke material guztia". Aukera paregabea behar ez duzuna eta traba egiten duena kentzeko.

ESANAK

"Birziklatzea eta berrerabilpena bultzatu nahi dugu bigarren eskuko azokaren bidez"

"Edozer eroan daiteke: arropa, liburuak, jostailuak, margolanak edo mahaitxo edo lanpara bat"

ARANTXA UNTZUETA | ANTOLATZAILEA

Hiru hilean behin egiteko asmoa

Untzuetak azaldu du bigarren eskuko azoka horrek harrera ona baldin badu, jarraipena eman eta "noizean behin" antolatzeko asmoa dutela. Kultura teknikariaren arabera: "Badakit Donostialdean hilero egiten dutela; ez dut uste Eskoriatzan hilero egiteko moduan egongo garenik, materialik ez delako egongo. Baina hiru hilean behin-edo egiteko asmoa daukagu. Ikusi beharko da nola irteten den".

Debagoieneko lehenengo herria izango litzateke Eskoriatza mota horretako azoka izaten. Arrasaten ere bigarren eskuko azoka egiten da, baina ez hiru hilabetean behin; Osintxun ere behin egiten, 2009an. Horretaz gainera, jostailu eta liburu truke azoka ere egiten dira gurean.

ESKORIATZA

Betagarriren musikarekin lip dub-a, Aitzorrotzekoen eskutik

Grabaketa ordurako atertu zuen euriak eta eguna ondo baino hobeto bukatu zuten

MIREIA BIKUÑA | ESKORIATZA

Eskoriatzako Aitzorrotz kultura elkartearen egunak bi zati nabarmen izan zituen, eguraldiaren menpean: goizean, euria izan zen protagonista eta antolatzaileek hainbat aldaketa egin behar izan zituzten; eta arratsaldean, eguzkiarekin, festa bukaera borobila egin zuten.

Gainera, azken ekitaldia izan zen jendetsuena: lip dub-a grabatu zuten Betagarriren *Euri tanta bakoitzean* kantuarekin. "Herritar ugari batu da plazan eta elkarte askotako kideak. Egia esan, grabaketa dotorea egin dugu eta eskerrak eman gura dizkiegu parte hartu duten guztiei", esan digu Aitzorrotz kultura elkarte-kide Iñaki Kortazarrek.

Dantzak pilotalekuan

Euri zaparradari aurre eginez, jende mordo batu zen zapatu eguerdirako herriko plazan. Sagardo dastatu eta taloa jateko gogo

izan zuten askok; taloa, txorizoa-rekin edo hirugiarrarekin. "250 bat talo saldu ditugu. Sagardoak ere arrakasta izan du", esan zigun Kortazarrek.

Dena den, eguerdirako iragarritako zegoen dantza emanaldia pilotalekuan egin behar izan zuten. Agurra, zinta dantza eta makil dantza egin zituzten, besteak beste.

Jone Uriak eta Miren Amuritzak jarri behar zuten Eskoriatza bertsotan, balkoitik balkoira, baina, eguraldiaren erruz, udalaxe aurrean jarritako karpetan egin zuten saioa. Haien bertsoetan, ez ziren falta izan eguraldiaren gaineko erreferentziak.

110 herritar bazkarian

Eguerdiko ekitaldien ondoren, 110 herritar batu ziren bazkarian. Babak jan zituzten. Bazkaria jaisteko, Arramazka taldeak dantzaldia egin zuen. Eta egunari bukaera emateko, kronikaren



Eskoriatzako dantza taldeko kideak zinta dantza egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

hasieran aipatu dugun lip dub-a grabatu zuten.

Aitzorrotz Egunaren antolatzailak pozik zeuden herritarren erantzunarekin. "Zapatu goiza izugarria izan da. Euri zaparra-

dak ikusi eta aurretik egindako lana pikutara joatekotan zegoela uste genuen. Eskatuta ere halako eguraldi eskasa ezinezkoa zen. Dena den, herritarren erantzuna oso ona izan da eta giro polita

eduki dugu eguneko ekitaldi gehienetan; batez ere, lip dub-ean", esan ziguten. Bukatzeko, Aitzorrotz Eguna antolatzen ibili diren kide eta elkarte guztiei eskerrak eman zizkieten.



ELENE, MADDI, AIORA ETA DANIEL
ESKORIATZARRAK

"Pena izan da euriagatik dantza emanaldia kiroldegian egin izana, baina jende asko etorri da. Guk agurra dantzatu dugu eta oso pozik gaude. Eskoriatzako dantza taldeko kideak gara. Saioa amaituta, plaza aldera joango gara taloa jatera eta bertsoak entzutera. Oso ondo pasatzeko asmoa daukagu".



JAIONE ETA EDURNE
ESKORIATZARRAK

"Egia da, bai, eguraldi eskasa egin du: euri zaparradak eta haizea —horrek ere ere ez du gehiegi laguntzen—, baina gogo duena kalera etorriko da, gu bezala. Zapatuero irtetzen gara eta eguraldiagatik ez gara etxean geratuko".



IZASKUN ETA ALAZNE
ESKORIATZARRAK

"Taloa erosi berri dugu. Bero-beroa dago, baina oso goxoa. Txamorra eta euritakoarekin, baina etorri gara festaz gozatzera. Balkoitik balkoira bertso saioa entzuteko asmoa ere badaukagu. Ea bada, ordurako atertzen duen".

ARAMAIO



JOSETXO ARANTZABAL

Idazle gazteek
euren sariak
dituzte
Aramaion

Txiritola euskara elkarteak egubakoitzean banatu zituen ipuin lehiaketako sariak Txan magoarekin batera. Guztira 60 lan aurkeztu zituzten, eta saridunak izan dira: lehenengo mailan *Ilargiaren urtebetetzea* eta 2.ean *Baso sorginduko adarbakarra* —biak ala biak taldekako lanak—; 3. mailan Eider Lasaga eta Maddi Avila; 4. mailan Sofia Larrañaga; 5. mailan Amaia Arregi eta Maia Etxebarria; 6. mailan Markel Ullibarriarana eta Juti Nuñez; eta DBHn, Alaitz Gabilondo.

ANTZUOLA



JOSETXO ARANTZABAL

Umetxoendako denda berria

Alaitz Jauregi antzuolarrak umeendako arropak eskuz margotzen ditu. Azken urtean azokaz azoka ibili ostean, Antzuolan denda irekitzea erabaki du. Egubakoitzean zabaltu zituen ateak Xinkona dendak eta jende dezente inguratu zen inauguraziora.



Mezaren ostean trikitilariak girotu zuten Santutegi ingurua. | J. ARANTZABAL



Javier Alvarez de Eulate atzo. | A. B.

ONATI

Alvarez de Eulate omendu zuten atzo Arantzazun

II. Arantzazu Egunean, basilikako beirateak egin zituen Alvarez de Eulate izan zen protagonista

ARRITXU BARRUSO | OÑATI
Javier Alvarez de Eulateren artea izan zen protagonista atzo Arantzazun. II. Arantzazu Eguna ospatu zuten eta artista frantziskotarra omentzea izan dute aurten helburu. Alvarez de Eulatek 92

urte ditu eta Basilikako beirateak egin zituen. Horrez gain, Oiza, Oteiza, Muñoz, Basterretxea, Chillida eta Egañarekin batera, Basilika berriaren eraikuntzan eta dekorazioan parte hartu zuen.

Bisita gidatuek, arrakasta

Alvarez de Eulateri eskainitako eguna Juan Mari Martinez de Ilarduiak eta Edorta Kortadik hasi zuten, bere artearen gaineko hitzaldia eskainiz. Ondoren, bisita gidatuak egin ziren, Santutegiko klaustroa eta Basilikako beirateak ezagutzeko, eta bisitok sekulako arrakasta izan zuten. Ondoren meza egin zuten artista frantziskotarra aldarean zela.

Bertsoek eta trikitiak ere izan zuten lekua Arantzazu Egunean. Arantzazuko Santutegia Hotelean herri-bazkaria egin zuten.

ONATI

Zaparradak bai, baina dantza eta parranda asko ere bai Oñatiko San Migel Txiki jaietan

A.B. | OÑATI

Kasu honetan oker hasitakoa oso ondo amaitu da. Zaparrada eta haize bolada bortitzekin hasi zituzten Kale Zaharreko auzo-lagunek San Migel txiki jaiak egubakoitzean, baina amaitu, eguzkipean eta tenperatura gozoezin amaitu zituzten atzo.

Atsedenerako tarterik ez

Kale Zaharrean ez da atsedenera izan asteburuan. Aurten, gainera, izan da nobedaderik. Zapatu goizean artisauen azoka egin zuten Txaketuaneko arkupeetan eta bost artisau izan ziren bertan.

Horrez gain, umeendako Ponpaz ponpa egin zuten azoka plazan eta ume dezente ibili ziren ponpak egiten. Gaueko kontzertuek ere jendetza batu zuten: San Anton plazatxoan goraino bete zen eta dantzan gelditu barik ibili zen jendea. 04:00etan triziklo lasterketa egin zuten eta 20 bat taldek hartu zuten parte.

Zapatu gaua luzea izan arren, domekan inork ez zuen huts egin auzo bazkaria. Ondoren, mus txapelketa egin zuten. Xakena Xak taldearen erromeriarekin, dantzan amaitu zituzten jaiak atzo gauean.



Atzo, domeka, auzo bazkaria eta mus txapelketa egin zituzten. | MIREN ARREGI

bildu**bergara**

1 Jesus Elortza

2 Jaione Isazelala

3 Lauri Askargorta

4 Leire Iruin

5 Maren Belastegi

6 Arianne Kareaga

7 Piti Madariaga

8 Maider Arregi

9 Jabi Bengoa

10 Alan Gutierrez

11 Amalia Albeniz

12 Jabier Garmendia

13 Nagore Iñurrategi

14 Iñaki Arizmendiarreta

15 Arantzazu Zabaleta

16 Ander Elortza

17 Nerea Agirrezabal

18 Nora Madariaga

19 Elsa Manso

20 Iraitz Arizabaleta

eman

botoa

bildu



Pleno aretoa ikasle, irakasle eta gurasoz bete zen eguen arratsaldean. | JOKIN BEREZIARTUA

Iraunkortasuna helburu, eskolatik udalbatzara

Agenda 21: zarata eta uhin elektromagnetikoak aztertu dituzte aurten ikasleek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Agenda 21 egitasmoaren barruan Arrasateko ikastetxe guztietako –Arizmendi, Arrasate Institutua eta Arrasate Herri Eskola– 6 eta 18 urte arteko ikasleek 2010-2011 ikasturtean egindako proiektua aurkeztu zioten egunean udalbatzari. Aurten zarata eta uhin elektromagnetikoak izan dira aztertu duten kutsadura mota.

Neska-mutikoez adierazi zuten, besteak beste, arrasatearrek uste dutela zarata inguratuta bizi direla: "Jende askorendako zaratsuenak erdialdea, lantegiak eta errepideak dira. Baina, orokorrean, ohituta gaude", esan zuen Gazte-luondoko Izar Ruiz de Austrik.

Bestalde, uhin elektromagnetikoen gainean, ikasleek aditzera eman zuten herritarrek "oso gutxi"

dakitela, adibidez, wi-fi sistemak osasunean sor ditzakeen kalteei buruz. Ikasleen proposamenen artean honakoak nabarmendu daitezke: garraio publikoa eta bidegorriak bultzatzea, errepide bazterretan panel akustikoak edota landaretza ipintzea eta udal ordenantza ondo aplikatzea eta betetzen ez denean isunak jartzea. Baita sentsibilizazio kanpainak antolatu, jaietan musika baxuago jarri eta ordutegia zaintzea ere.

Udalbatzaren zorionak ikasleei
Udalbatzak ikasle eta irakasleak zoriondu zituen eta proposamenak kontuan hartuko dituztela esan zuen Ino Galparsoro alkateak: "Oso ondo dago helduondako nahiko arrotza den gaiaren gainean, ikasleak gazte-gaztetatik kontzientziatzea", gaineratu zuen.

ESANAK

"Helduondako arrotza da gaia; ondo dago eurak kontzientziatzea"

INO GALPARSORO | ALKATEA

DATUA

2.779

IKASLEREN LANAREN ONDORIO

la 2.800 ikaslek hartu dute parte aurten eskolako Agenda 21ean Arrasaten.



PSE-EEk Laubideko egubakoitzeko merkatua aprobetxatu zuen hauteskunde kanpainarekin hasteko: arrosak, erosketarako poltsak eta gozokiak banatu zituen. Aritz Arrieta alkategaia "gogotsu" dago kanpainari begira: "Itxaropena dugu alkatetza lortzeko, herritarrek aldaketa gura dutela uste dugu-eta", esan zuen.



JOKIN BEREZIARTUA

Profesionalekin ikasten, eskola-antzerkiaren jardunaldien barruan

LHko eta DBHko ikasleendako bi obra geratzen dira: bihar, *Ogro txikia*; eta hilaren 16an, *Etzi*

J.B. | ARRASATE

Ikasleen artean antzerki zale-tasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzeko helburuz, Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek, Prebentzio sailarekin batera, 2010-2011 ikasturtean ere antolatu dituzte eskola-antzerkiaren jardunaldiak.

Ikasleen interpretaziorako abileziak ikusi ostean, joan den asteen hasi ziren aktore profesionalak ikasleendako antzeztzen. Hilaren 3an Paraiso antzerki taldeak *Txirulari magikoa* obra antzeztu zuen, Amaian.

Lehen eta bigarren hezkuntza

Bihar, hilak 10, Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendiko Lehen Hezkuntzako ikasleek Gorakada taldearen *Ogro txikia* ikusteko aukera izango dute, 10:30ean eta 14:45ean. Sei urteko ogro txiki baten beldurak, arazoak eta zalantzak islatzen dira obran.

Datorren astelehenean, hilak 16, Arizmendi eta Institutuko DBHko ikasleek Dar dar taldearen *Etzi* antzeztanaz gozatzeko aukera izango dute. Emanaldi bakarra izango da, Amaia antzokian, 10:30ean.



'Ogro txikia' antzeztanaren une bat. | GOIENA

AGAKOk kamisetendako diseinu lehiaketa deitu du

Diseinuak aurkezteko azken eguna, hilaren 31; webgunean bozka daitezke gustukoenak

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak –AGAKO– udarako kamisetak atera gura ditu eta, horretarako, kamisetok diseinatzeko txapelketa deitu du, lehenengoz. Diseinuak maiatzaren 31 baino lehen bidali beharko dira arrasatekogaztetxea@gmail.com helbidera. Diseinu gustukoenekin udarako tirantedun kamisetak aterako dituzte, gizon

zein emakumeendako. Diseinu irabazleak aukeratzeko, edonork gaztetxearen webgunean –www. arrasatekogaztetxea.com– bozkatzeko aukera izango du.

Diseinuak, gehienez, bi koloretan egin beharko dira eta "ahal den heinean" diseinu "oso konplikatuak" ez izatea ere baloratuko dute: "Gaztetxean egingo ditugu eta ez gara profesionalak" adierazi dute antolatzaileek.

Garagardo jai luzeagoa eta berritasunez josia aurten, maiatzaren 27an hasi eta ekainaren 4ra arte

Aurten 13 urte beteko ditu Arrasate Errugbi taldeak antolatzen duen Garagardo jaiak. Bada, aurtengoa inoiz baino luzeagoa izango da eta berritasunez josita dator, gainera. Izan ere, bi aste bukaera hartuko ditu: Herriko plazan jarriko duten karpa maiatzaren 27an zabalduko dute, eta ekainaren 4an itxi.

Nobedadei dagokienez, poker eta mus txapelketak eta klubean ibilitakoen herri-bazkaria dira ekitaldi aipagarrienak. Eta, noski, zazpinako errugbi txapelketa ez da faltako, Mojategin.

Janari exotikoak errotu dira gurean, eskaintza zabala da horren adierazle

Italiako, Txinako eta Pakistango jatetxeak daude Arrasaten, besteak beste

OIHAN VITORIA / J.B. | ARRASATE

Geroago eta etorkin gehiago dago Arrasaten. Integrazio planek jasotzen dituzten txostenez harago, immigrazioa Arrasateko errealitatearen parte dela erakusten du, adibidez, janari exotikoen eskaintzak izan duen gorakadak. Jatetxe asiarren, pakistandarren eta italiarren adibideak ekarri ditugu, izan ere, euren jakiak arrasatearren artean gizarteratzea lortu dute. Hala, gainontzeko jatetxeen kompetentzia bihurtu dira.

Italia eta Txinakoa, aspalditik

Duela 13 urte zabaldu zuen Francesco Tontodonatik Arimazubi plazako Cassolo pizzeria. Lehen aldiz sartu zen ostalaritzan; "erabateko abentura" moduan deskribatzen du: "Hasiera oso zaila izan zen. Osagai italiarrekin egiten dut lan eta hasieran Italiako gazta ezberdinak -mozzarella, gorgonzola, parmesano...- ekartzeko ez nuen logistika nahikoa. Hemen ezin zen halakorik erosi".

Hasieran hiru edo lau astean behin Italiatik kamioi bat gaztaz

beteta etortzen zela aitortu digu. Tomatea eta gazta Italiatik ekartzen ditu eta pizzaren masa egunkoa da, "freskoa": "Arrasatearrei pizza italiar klasikoa jateko aukera ematea gura nuen", dio Tontodonatik. Pizza da produktu salduena, baina entsalada eta pastek ere badute arrakasta.

Bestalde, lehen jatetxe txinatarra 1994an heldu zen Arrasatera: Gran Muralla. Hasieran, kosta egin zitzaion martxa hartzea, baina urteen poderioz arrakasta handia lortu dute: "Jende asko etortzen da janari txinatarra dastatzera eta behin probatzen duenak errepikatu egiten du. Dena den, krisiaren eragina igartzen ari da", dio Xiao Fen Yin arduradunak. Gainera, Fen Yin-en arabera, "azkar eta erraz" integratu dira herriko kulturaren eta ez dute inoiz inongo arazorik izan arrasatearrekin. Egun, Dragon Oriental izeneko beste jatetxe txinatar bat ere badago, San Andres auzoko BM supermerkatuaren ondoan.

Kebabaren gorakada

Ferrerias kaleko Txohan Kebab jatetxea izan zen lehenengoa eta duela hilabete batzuk irekitako



Xiao Fen Yin, jatetxe txinatarreko arduraduna. | OIHAN VITORIA



Mubashar Nawaz pakistandarra, kebaba prestatzen. | O.V.

Kebab Boliñete bigarrena. Kebabak ere egin du bere txokoa arrasatearren sabeletan. Boliñeteko Mubashar Nawaz eta haren aita Pakistandik Euskal Herrira etorri ziren negozio bat irekitzeko asmoz, eta Arrasaten amaitu zuten. Pozik daude aurreneko hilabete hauetan izandako erantzunarekin: "Arrasatearrek oso ondo hartu

gaituzte. Hasieran pixka bat itxiak izan arren, harreman onak egin ditugu", goraipatu du Nawazek.

Sukaldari pakistandarrek azaldu duenez, etxez etxe egiten dute lan, batez ere: "Bailara osotik deitzen digute janaria etxera eramateko. Bezero gehien aste-buruetan izaten dugu, afaltzeko orduan bereziki".



Alberto Iriarte eta Francesco Tontodonati, pizza labean sartzean. | JOKIN BEREZIARTUA



Estetika Zentroa

Ionterreanean

- Gizentasun lokalizatua eta biguntasuna
- Aurpegi edo gorputz biguntasuna
- Aurpegi gatzetzea
- Zelulitis garbia
- Zelulitis loditasun lokalizatuarekin
- Zelulitis biguna
- Giharretako gaitzak
- Giharretako gaitzak biguntasunarekin
- Hezurretako gaitzak
- Zain-gutxiagitasuna



ETORRI
informa zaitez
konpromiso barik

TRATAMENDUAK

- Mesoterapia: aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Azidoen tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzarekin
- Laser depilazioa
- Zelulitisaren aurkako tratamenduak
- Zelulitisaren aurkako tratamendu konbinatuak
- Presoterapia
- Solarium horizontala eta bertikala
- Masaje lasaigarriak
- Aurpegi tratamendua
- Aurpegi tratamenduak diamante muturrekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Manikura eta pedikura parafinarekin
- Neurria egindako dietak

Arrasate Pascualen 4. ARRASATE .Tel.: 943 79 00 35

Herritarrek adostutako plan estrategikoa aurkeztu dute

- Plan estrategikoa Udaletxean egongo da eskuragarri euskaraz edo gazteleraz
- Herritarren artean egindako batzarretatik jasotako helburu eta ekintzak dira

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergara nortasun propioa duen herria izatea, bizia, kohesionatua, atsegina eta autogestionatua nahi dute bergararrek. Horiek dira 2020ra begira herritarrek eurek jarritako helburuak eta *Bergara*, *bazara*, *bagara* plan estrategikoan jasotakoak. Plan estrategikoa egunean aurkeztu zuten osoko bilkuran. Udalak, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin egin du proiektua.

10 urte barruko Bergara

Herritarrek Bergara gaur egun nola ikusten duten aztertzea eta 10 urte barruko Bergara irudikatzea eta egoera hori lortzeko estrategiak proposatzea izan da planaren helburua.

Herritarren ustez, Bergara herri ederra da, bizitzeko atsegina, lasaia, aukera asko dituen. Naturatik gertu dago, landa-auzo ugari ditu eta horrek herria edertzen eta aberasten laguntzen du. Bizitzeko tamaina egokia du, eta ondorioz, herrian denek ezagutzen dute elkar. Dena den, herritarren artean bada diagnostiko nahiko adostua: herdoiltze-zantzuak suma daitezke herriko giroan, herri-dinamikan, lidergo gaitasunean, elkartegintzan eta ekonomian, besteak beste. Bergara erreferentzialtasuna galtzen ari da hainbat arlotan. Bergara gainbehera prozesuan dagoela aipatzen dute herritarrek.

Hala, aipatutako ahulgune horiek indartzeko ekintzak adostu eta proposatu dituzte plan estrategikoan.

Osoko bilkura bete egin zen

Mikel Laskurain aktoreak Eneko umearen paperean gidatu zuen aurkezpen saioa. Hainbat galdera egin zituen: herrigintza zer



Aurkezpenaren ondoren luncha izan zuten Munibe plazan; Jon Maia eta Amaia Agirre bertsolariek girotu zuten plaza. | ARANTZAZU EZKIBEL

den, Bergaran denetik erosi ahal izango duen, kultur aretorik egongo den...

Galdera horiek guztiak erantzuteko ardura proiektuan parte hartu duten herritarrek izan zuten. Osoko bilkura bete egin zen aurkezpenean. Laskurainen umoreaz gain, Jon Maia eta Amaia Agirrek bertsotan jardun zuten eta Orkestrako soka laukoteak musika jarri zuen.

Herritarren eskura Udaletxean

Amaieran, Agurne Barruso alkateak eskerrak eman zizkien proiektuan parte hartu duten herritarrei, eta udal gobernu berriari eskatu zion aintzat hartzeko herritarrek adostutako plana. Plana Udaletxean egongo da herritarren eskura -Udaltzaingoan eskatu-.

Erronka nagusiak ondokoak dira

HERRIGINTZA Erronka nagusia da herriko arlo guztiak bilduko dituen Elkargunea diseinatzea eta martxan jartzea. Herriaren ongizateari begira lan egingo du, interes indibidual edo sektorialetatik haratago.

SOZIOEKONOMIA

Ekintzailetasuna sektore guztietan (industria, nekazaritza, turismoa, nekazaritza...) bultzatzea, herriko beharrei erantzunez. Herriko aberastasun ekonomikoa sektore ezberdinetatik eratortzea da helburua.

INGURUMENA Natur baliabideak babestea, errespetatzea eta energia gutxiago kontsumitzea, esperientziak martxan jarritz eta arautuz.

HEZKUNTZA

Hezkuntza eragileen arteko elkarlana bultzatzea eta sendotzea. Euskal curriculum eta Bergarako curriculum landu eta irakatsi ikastetxeetan.

EUSKARA ETA EUSKALDUNTASUNA

Bergara euskararen arnas gune izatea. Euskararen presentzia

eta erabilera alor guztietan areagotzea.

LURRALDE

ANTOLAMENDUA Biztanleria mantentzera bideratutako etxebizitza-politika garatzea eta herri atsegina lortzeko mugikortasun-eredua lantzea. Oinezkoek eta bizikletek lehentasuna izango duten herri eredia sortzea.

KULTURA ETA KIROLA

Kultura adierazpenerako erreferentziazko gunea egitea. Kirolean, herri guztian oinezkoiei lehentasuna ematea. Auditoriumaren eredia definitu eta martxan jarri.



UXUE AZKARATE
HERRITARRA

"Hasieran zalantzak izan nituen etorri edo ez baina animatu eta inguruko auzoetako taldean parte hartu dut. Herri lasaia gura dut, eta komertzio aldetik denetik izatea. Hori da ahultasuna egun".



IÑIGO ARREGI
HERRITARRA

"Auzoetako taldean jardun dut lanean. Adostu ditugun helburuak betetzen badira ez da gutxi izango. Auzotarrak urrun sentitu izan gara askotan, bigarren edo hirugarren herritar bezala".



GLORIA LARRAÑAGA
HERRITARRA

"Ahulgune asko ikusten dizkiot herriari eta horregatik hartu dut parte prozesuan. Autobus asko daude, baina ez dute konexio onik eta gainera garestia dira. Hori hobetu egin behar da".



SOLE LARRAÑAGA
HERRITARRA

"Herri biziagoa gurako nuke 10 urte barru. Hilda dago herria, zinema aretorik ere ez dugu. Kultura mailan zeharo galduta dago; frontoia ondo dago, baina aukeran pilotan egiteko".



CARLOS ARRONDO
HERRITARRA

"Gaur egun herri mailan gauzak murrizten dabilta; giroa jaisten ari da, enpresak ixten dabilta... Jendea kanpora doa lan bila eta saiatu behar gara herrian lana sortzen".

UNED-Bergararekin lagapena sinatuta, Aranzadik uztailean hasiko ditu lanak

- UNED-Bergara fundazioak eta Aranzadik egubakoitzean sinatu zuten lagapenerako hitzarmena
- Aranzadi ikastolak aurreikusten du egokitzapen lanak 2012ko abendurako amaituta izatea

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Herriko hezkuntza maparen egokitzapena dela-eta, Aranzadi ikastolak, Martinez de Irala eraikina utzi, eta Errege Seminarioko eraikinean bilduko ditu bere ikasle guztiak. Horretarako ezinbestekoa du eraikinean egokitzapen lanak egitea. Bada, UNED Bergara fundazioarekin sinatutako lagapen-hitzarmenaren ostean, lanok hasteko moduan da Aranzadi.

Lagapen mugagabea

UNED Bergara fundazioak Aranzadi ikastolari Errege Seminarioko zati bat lagatzeko akordioa da barikuan izenpetutakoa. Bertan izan ziren Maria Jesus Aranburu diputatua-UNED Bergara patronatuko ordezkaria-, Bergarako alkate Agurne Barruso eta Aranzadi ikastolako lehendakari Karmele Agirregabiria.

Hirurak ere pozik azaldu ziren dokumentu hura sinatzeak suposatuko duenagatik. "Zalan-



Begarako alkatea, Maria Jesus Aranburu diputatua eta Karmele Agirregabiria, Aranzadi ikastolako lehendakaria . | A.T.

tza barik, agintaldiko gai kla-beetako bat izan da mapa eskolarrarena. Bukatu baino lehen arazoa konponduta uzteak poztasun handia ematen digu", adierazi zuen Barrusok. Aran-

zadiko lehendakariaren esanetan, berriz, "bidea oso luzea izan den arren", pozik daude dokumentua sinatu izanak "aro berri baten hasiera" suposatzen duelako Aranzadirendako. Aranbu-

ru diputatuaren esanetan ere "arazo garrantzitsu bati irteera egokia ematea" suposatzen du egubakoitzeko hitzarmenak: "Aranzadirendako irtenbide egokia topatu dugu, eta horrek

lagundu egiten du Bergarak mapa eskolarrarekin duen arazoari soluzioak topatzen. Beraz, oso pozik gaude".

Urte eta erdiko lanak

Lagapena sinatuta, Aranzadik uztailean bertan hasiko ditu egokitzapen lanak. Besteak beste, beheko eta goiko solairua egokitu beharko ditu, ikastolako sarbideak birmoldatu eta kirol-pilotaleku bat eraiki. Ikastolak, gainera, egubakoitzean hitzartutakoaren arabera, 1.540 metro koadro gehiago izango ditu erabilgarri Errege Seminarioan.

Aranzadi Ikastolako zuzendari Ane Barrusok azaldu du lanak uztailean bertan hasiko dituztela eta 2012ko abendurako amaituta egotea aurreikusten dutela: "Udalari datorren astean aurkeztuko diogu behin-behineko proiektua. Lan oso garrantzitsuak izango dira ikastolaren etorkizunarendako".

Jaietako zapirako marrazki lehiaketa abiarazi du Jardunek

- Adin mugarik gabe, lehiaketan edonork parte hartu ahalko du
- Marrazkiak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 18a da

ASIER ALKORTA | BERGARA

Jaietako zapirako marrazki lehiaketa abian jarri du Jardunek. Edonork parte har dezake lehiaketan eta pertsona bakoitzak nahi beste marrazki aurkeztu ahalko dituela iragarri dute Jardun elkarteko arduradunek. Lanak aurkezteko epea hilaren 18an amaitzen da.

Hasiera baten, edonork dauka aukera lehiaketan parte hartzeko eta adin mugarik ere ez dute jarri. Hori bai, marrazki guztiak A-4 formatuan aurkeztu beharko dira, eta zuri-beltzean.

Bakoitzak nahi beste marrazki aurkeztu ahalko ditu, baina marrazkiek jaiekin lotutakoak izan behar dute. Eta irudiarekin batera euskararen aldeko lalo bat jarri beharko da.

Lanak aurkezteko modua

Lanak aurkezterakoan, parte-hartzaileek ez dute egilearen daturik jarri beharko. "Egilearen datuak, hau da, izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea, kartazal itxi baten sartu behar-



2006ko jaietako zapia, marrazkiarekin. | GOIENA

ko dira eta kartazala eta marrazkia beste kartazal handiago baten sartu beharko dira", esan du Jardunek.

Lanak Internet bidez bidaliz gero, bi fitxategi bereizitu beharko dira: batean marrazkia eta bestean egilearen datuak.

Lanak Jardunen bulegora (Errotalde jauregia z/g / Kultu-

ra etxea) edo jardun@topagunea.com helbidera bidali beharko dira. Hori bai, lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 18a dela aurreratu dute.

Marrazki irabazlearen egileak 60 euroko saria jasoko du. Hala eta guztiz ere, saria eman gabe gera daiteke, epaimahaikoek horrela erabakitzen badute.

Nerabe, familia eta drogen inguruko hitzaldia egingo da etzi, Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta

Nerabeak, familia eta drogak hitzaldia antolatu du Udaleko Prebentzio Zerbitzuak etziko. Irizar jauregian izango da, 18:00etan, eta hara joan nahi duenak telefono zenbaki honetara deitu eta izena eman beharko du: 943 77 91 26. Hitzaldi hori aurtengo ikasturtean Prebentzio Zerbitzuak antolatzen duen hirugarrena eta azkena izango da.

Musika Eskolak datorren ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du, eskaintza "zabalarekin"

Musika Eskolak 2011-2012 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du. Adin guztietarako eskaintza "zabalarekin", musika sinfonikoaren, herrikoien eta gaur egungo musikaren esparruak jorratzen jarraituko du Musika Eskolak. Horretaz gain, ikasle guztiek orkestra sinfonikoan, Gazte Bandan eta akordeoi orkestran parte hartzeko aukera izango dute.

Zapatuan ospatuko den Erromeria Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude hiru tokitan

Zapatuan ospatuko da Erromeria Eguna eta bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko, Deporren, Ariznoan eta kultura etxean. Egunean bertan 12:30ean hasiko da jaiak, trikitilarien eta dantzarien kalejirarekin. Bazkaria 14:30ean egingo da eta ondoren jaiak aurrera jarraituko du, musikaz girotuta. Gose Eta Emon taldeekin amaituko da eguna, 22:00etan, San Martinen.

Txosna batzordekoak biltzen hasiko dira, aste honetatik aurrera

Pentekoste jaiak gerturatzen ari dira eta txosna batzordekoak lanean hasteko gertu daude. Bihar, martitzena, egingo dute lehen bilera; 18:30ean izango da, kultura etxean. Batzordeko kideek bertan parte hartzeko deia egin diete herriko elkarte ezberdinei, jai-egunetarako guztia prest izan dezaten.

Jesus Mari Ugarte | Enplegu teknikaria

"Krisi garaian autoenplegua irtenbidea da askorendako"

- Udalak 100 orduko ikastaroa egingo du hilaren 16an hasita
- Interesatuak Enplegu Zerbitzuan eman behar dute izena

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak autoenpleguari buruzko saioak egingo ditu hilaren 16tik aurrera. Enpresa ideia bat eduki eta arlo horretan trebatzeko interesa dutenendako saioak dira. Enplegu teknikariak eman dizkigu ikastaroaren gaineko azalpenak.

Izenemate epea zabalik duzue hilaren 12ra arte.

Pertsona batzuek eman dute izena dagoeneko, baina interesa dutenek Bidebarrieta 12ko bulegora joan edo 943 03 77 00 telefonora dei dezakete.

Nolako ikastaroa izango da?

Praktikoa izango da, eta lau atal nagusi landuko ditugu: alde batetik, pertsona ekintzaile baten ezaugarriak zeintzuk diren azalduko ditugu; beste alde batetik, proiektu berri baterako ideia nola eta nondik sor daitekeen erakutsiko dugu, eta horretarako dauden teknikak ere bai; hirugarren atalean, azalduko dugu negozio baterako dugun ideia proiektu nola bilaka daitekeen; eta laugarren eta azken atalean,



Jesus Mari Ugarte, Enplegu Zerbitzuan. | MIREIA BIKUÑA

"Olaburun bulegoendako eta tailerrendako lokalak ditugu"

enpresa-plana nola egiten den azalduko dugu. Hori guztiori lantzeko, 100 orduko ikastaroa egingo dugu hilaren 16tik uztailaren 18ra: astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan, 09:00etatik 13:00etara.

Zergatik erabaki duzue horrelako ikastaro bat egitea?

Orain dela bi urte ere egin genuen. Ordutik hona, hainbat proiektu martxan jarri dituzte; hala, autoenplegua bultzatzeko beste saiakera bat egitea erabaki dugu.

Nortzuek eman dezakete izena?

Enpresa ideia bat eduki edo arlo honetan trebatzeko interesa dutenek. Krisi garaian askok egiten dute autoenpleguaren aldeko apustua. Lan-merkatua oso geldidago, eta lana topatzea oso zaila da. Autoenplegua irtenbidea da askorendako, eta hori bultzatzeko ahalegina egingo dugu.

Ikastaroa bukatu ondoren, zer?

Autoenpleguaren gaineko ikastaroan parte hartu ondoren, batzuek izango dute aurrera egiteko gogoia, izango dute ideien bat esku artea. Haiei laguntza emango diegu. Bi hilabeteren ondoren, jarraipen zehatza izango dute: tutoretza emango diegu.

Eta tutoretzaren ondoren, zein da hurrengo pausoa?

Esku artean duen ideia azkenearaino eraman gura duenak, eta negozioa zabaldu gura badu, Zubillagako Olaburu zentroan bulegoak eta lokalak ipintzeko lekua badugu. Alokairu txiki baten truke hasteko lekua izango luke.

Gogoratu behar dut Olaburu eraberritu egin dugula, eta bulegoak egokitzeko lokal gehiago ditugula. Dena den, Olaburu negozioa jartzeko beharra duten guztien eskuradago, ez bakarrik autoenpleguaren gaineko ikastaroa egingo dutenen eskura.

Infantil mailako nesken futbol taldeko kideendako deialdia

Aloña Mendiko futbol sailak infantil mailako nesken taldea sendotu gura du irailean hasiko den denboraldirako. Hori horrela, deialdia luzatu die 1999an jaioetako neskei.

Entrenamendu saio bereziak egingo dituzte hilaren 11n, eguaztena, eta 12an, egue-na Azkoagainen, 17:00etan. Futbol saileko arduradunek baloiaren nola moldatzen diren baloratuko dute. Era berean, aholkatzen dute norberak eramatea entrenamendurako arropak.

Udako Unibertsitaterako bekak eska daitezke

Urtero moduan, Udalak Uda-ko Unibertsitatean parte hartu gura duten herritarrei bekak emango dizkie. Eskatzaileek ikasleak edo langabeak izan beharko dute, eta hiru agiri erakutsi beharko dituzte: ikasle edo langabe direla erakusten duen agiria, matrikulazioa ordaindu duten agiria eta Oñatin erroldatuta dauden agiria.

Eskatzaileek matrikularen erdia jasoko dute laguntza moduan, Udalak esku artean duen partida agortu arte.

H1! Oñati! hamaikabat

H1! Gipuzkoa! hamaikabat

AMAIA INZA
OÑATIKO ALKATETZARAKO
HAMAİKABATEKO HAUTAGAIA

**H1! POLITIKA EGITEKO
ERA BERRI BAT AHALBIDETUKO DU**

Hamaikabat Udaletxearean ateak eta lehioak irekitzeko borondatearekin dator, eta horrela politika egiteko era berri bat martxan jartzeko. Udala bizilagunen eta elkarten topaleku izan behar du, horrela adostasuna posible izan dadin eta oñatiarren arazoak konpontzeko benetan lan egin dezan.

Zuretzat lan egin nahi dugu

Gure jarrera ireki, gardena, parte hartzekoa, bakegile eta integratzailearekin.

Udaletxearean ateak herritarrei zabalitzeko eta udal arduradunekin harreman zuzena ahalbidetuz, Oñatiko bizilagunen eskaeren erantzun egokia lortzeko.

Kalean politika eginez, Oñatiarren eguneroko kezkei so eginez, udalak bere bizilagunen arazoak konpontzen ahalegindu behar duela.

Oñatiarren proiektua eraikitzeko, hiri kalitatean eta bertako ekonomian oinarrituta. Oñati kudeatzeko era berri bat. Desberdinen arteko elkarbizitza hobetzearekin ilusionatuta dauden pertsonen topaleku izan nahi dugu.

PELLO GONZALEZ
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIRAKO
HAMAİKABATEN HAUTAGAIA

AGINTEA ZUREA DA. nolako Gipuzkoa nahi duzun erabaki dezazun. Guk zuretzat lan egin nahi dugu. **ZURETZAT LAN EGIN NAHI DUT.**

Zuk nahi baduzu, hau da egingo dugun ekarpena:

- **Gobernu Onaren aldeko jarrera irmoa.** Gardentasunez jokatzeko duen gogoa eta aukeratzeko duen gogoa. Guk zuretzat lan egin nahi dugu.
- **Gure enpresen berrikuntza eta lehiakortasunaren aldeko konpromisoa, krisitik indartuta atera gaituzten.** Enpresetan langileen parte hartzea bultzatuz eta lanpostuen sorrera sustatuz.
- **Gipuzkoako kohesio sozialaren alde egingo dugu lan.** Zerga sistema bidezkoago bat finkatuz, gehien duenak gehiago eman dezan. Eta iruzurraren aurkako borroken jarraituko dugu. Iruzurraren aurkako borroken jarraituko dugu.
- **Guztionezko gizarte zerbitzuak sendotuko ditugu.** Duintasuna eta elkartasuna ardatz hartuta, guztiok elkarrekin aurrera egin dezagun.
- **Gipuzkoa akordio handien bidetik eraikit.** Lurralde bat nahi dugulako, frontismorik gabe, inor baztertzeko ez duena.
- **ETAren amaierarekiko exijentzia.** Ekintzazko gabea eta bere justifikaziorik gabeko herria eraiki behar dugulako.

**OÑATIK AUERRERA EGIN
DEZAN LAN EGINGO DUGU**

**ZURETZAT
LAN EGINGO DUGU**

«Beti zuk aukeratutako kargu publikoa izatearen kontzientzia osoaz. Arduraz jokatuko dut, babesa eman didatenei huts egin gabe».



Ikasleak osoko bilkuren aretoan, Inaxio Garro alkatearekin eta Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziarekin. | M.A.

ARETXABALETA

Zaratak, argia eta uhinak aztertu dituzte ikasleek

Herriko gunerik kutsatuenak identifikatu eta Udalean aurkeztu dute lana

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako 6 eta 16 urte arteko ikasleek zaratek, argiak eta uhin elektromagnetikoek sortutako kutsadura aztertzen jardun dute azken hilabeteotan Eskola Agenda 21 egitasmo

barruan, eta joan den eguenean, hilak 5, udaletxean aurkeztu zuten egindako lana. Inaxio Garro alkateari eta Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziari azaldu zieten aztertutakoa eta herriko egoera hobetzeko ekarpenak egin.

Zarata, arazo herritarrentzat

Lehen Hezkuntzako ikasleek, 6 eta 12 urte artekoek, zarata aztertu dute batetik, eta gunerik zaratsuenak identifikatu: errepidea eta obrak. Gainera, herritarren %60k arazotzat du, lo egiten uzten

ez dietelako eta horren gaineko araudia eskatu dute. Bestetik, argi kutsadura ikertzen jardun dute, eta ondorioztatu farola egoiak jartzeko ahalegin handia egin duela Udalak.

DBHko ikasleek, 12 eta 16 urte artekoek, zarata eta argiarekin batera uhin elektromagnetikoen eragina aztertu dute. Egutero erabiltzen dituzten tresna askok uhinak zabaltzen dituztela konturatu dira eta horien eragina murriztea guztion esku dagoela ondorioztatu. Hala bada, hainbat konpromiso hartu dituzte ikasleek kutsadura horiek guztiak murrizteko: zaratari dagokionez: garraio publikoa erabili; oihu gutxiago egin eskolan, etxean...; argiari dagokionez, behar denean isiotzea bakarrik; eta uhinei dagokionez, poltsikoko telefonoa eta wifia gutxiago erabiltzea...

Udalari aparteko eskaera

Herriko egoera hobetzeko, oster, hainbat ekarpen egin dizkiote Udalari. Zaratari dagokionez: autobidean panelak jartzea; eskola aurreko zirkulazioa desbideratzea; jaietan musika baxuago jarraraztea... Argi kutsadurari dagokionez: farolak eguzki energiaz horni daitezkeen aztertzea. Eta uhinei dagokionez: informazioa zabaltzea; prebentzioa bultzatzea; wifia ordezkalea bultzatzea...

Ekitaldia bukatu aurretik aparteko eskaera egin zioten Kurtzebarriko kideek Udalari: jolasleku duten pilotalekuan usoekin dagoen arazoa konpontzea.

ARETXABALETA

Enpresa eta kontratazio berriei laguntzen jarraituko du Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Iaz abian jarritako enpresa eta kontratazio berrien laguntzei jarraipena emango diela iragarri du Udalak eta oinarriak zehaztu ditu –maiatzaren 2an argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala–. Bi laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea azaroa bukatu artean izango da zabalik.

Enpresa berriei dagokionez, hona bete beharreko baldintza batzuk: Aretxabaletan izatea lantokia eta gehienez urtebeteko lan jarduna; eta bideragarritasun plana eginda izatea. Iragarritako diru-laguntzak izango dira inbertsioak egiteko, lokalaren egoki-

tzapen eta ekipamenduetarako, eratze gastuetarako... Eta gehienez 7.000 euro emango dituzte. Udalak 36.800 euro bideratu ditu laguntza horietara.

Kontratu berriak bultzatzea

Bestalde, enpresek –50 langile baino gutxiago duten lantegiak, autonomoak, komertzioak...– kontratazio berriak eginez gero diru-laguntza eskatzeko aukera dute. Kontratu mugagabea bada 2.000 euro jasoko ditu enpresak –lan jardun osokoa izanez gero– eta urtebetekoa baldin bada, 1.000 euro. Laguntza horietara 50.200 euro bideratu dituzte.



ESKORIATZA



PSE azoka txikian izan zen

Egubakoitzean azoka txikia dela aprobetxatuz, "bakearen eta askatasunaren" adierazle diren arrosak banatzen ibili zen PSEko alkategai Jose Luis Cantero. Besteak beste, Blanca Roncal eta Paco Gartzia legebiltzarkideak izan zituen ondoan. Herritarrengandik gertu egotearen garrantzia nabarmendu zuen.

ESKORIATZA

Umorea eta osasunaren gaineko berbaldia

M.A. | ESKORIATZA

Olazar erretiratuen elkarteak informazio-jardunaldiak antolatatu ditu Kutzarekin elkarlanean, eta hainbat berbaldi izango dira maiatzean, kultur etxean (17:30). Martitzenean, hilak 10, esaterako, umorearen eta osasunaren gainean jardungo dute, Jose Luis Martin gidari dutela. Umoreak osasunean duen garrantziaren berri emango die Martin adituak eta umore ona lantzeko teknikak irakatsiko dizkie elkartutako erretiratuei.

Euskal folklorea ezagutu

Bestalde, hilaren 23an, astelehena, *Euskal Herria bere abesti, dantza eta herri musikaren bidez* izeneko berbaldia izango dute Olazarko kideek. Jose Antonio Garate adituak gidatuko du saioa, eta haren asmoa da Euskal Herriko folkloreak ikuspegi zabala ematea batetik, eta gure herriaren kultur adierazpenak ezaugaraztea bestetik; hori horrela, musika tresna, dantza eta kantu herrikoiei gainbegiratu emateko aprobetxatuko du.

ESKORIATZA

Zabalik dago udaleku irekietan izena emateko epea

M.A. | ESKORIATZA

Datorren egubakoitzean, hilak 13, bukatuko da Gazteria Zerbizuak antolatutako udaleku irekietan izena emateko epea. Interesatuak Tortolis ludotekan (astelehenetik egubakoitzera, 16:00-20:00) edo kultur etxean (09:00-13:00) eman behar dute izena. Argibide gehiago edo izenemate txartela gura dutenek ere bertara jo dezatela ordutegi horren barruan. Antolatzaileek jakinarazi dute epea kanpo jasotako izenematerik ez dutela onartuko.

4 eta 12 urte artekoendako

Uztailaren 4tik 22ra egingo dituzte udalekuak Eskoriatzan eta honako ordutegia izango dute: 10:00-13:00 eta 15:00-17:00. Deialdia 1999 eta 2007 urte bitartean jaiotako neska-mutikoei egin diete. Hala, opor egunak aspertu barik pasatzeko aukera izango dute uztailako hiru astetan zehar umeek; izan ere, makina bat ekingintza egingo dituzte begiraleak lagun dituztela: eskulanak, jolasak, irteerak, ospakizunak...

ARETXABALETA

Flamenko kontzertua Aitor Escobarren eskutik bihar, Arkupen

Flamenko doinuak ekarriko ditu Aitor Escobar arrasatearrak martitzenean, hilak 11, Arkupera (19:00). Hainbat musikarirekin lan egindako gitarra joleak flamenkorik dotoreenaren berri emango du.

Eguenean, hilak 12, *Lurraren egunak* ikus-entzunezkoa eskainiko dute (19:00); ingurumenaren gaineko hausnarketa da.

ARETXABALETA

Aralarkoek kanpainako ekitaldia egingo dute etzi

Hauteskundeak direla eta Aralar alderdiko kideak elkartuko dira eguaztenean, hilak 11, Aretxabaletake plazan (19:00). Alkate den Inaxio Garrori lagun egiten Aintzane Ezenarro legebiltzarkidea eta beste hainbat kide izango dira. Datozen lau urteotarako dituzten asmoen berri eman go die herritarrei.

ARETXABALETA

Dieta osasungarriaren gaineko berbaldia eta irteera Basotxorekin

Hirugarren adinean dieta osasungarria berbaldia izango dute Basotxo erretiratuen elkarteak, Mertxe Uribeetxebarria adituaren eskutik hilaren 16an, astelehena (17:30).

Bestalde, hilaren 17an, martitzena, Arrikruz ezagutzera joango dira. Txartelak salgai dituzte gaur eta bihar Basotxon (11:00-12:00).

ESKORIATZA

Filma eguaztenean, zinema sozialaren erakustaldi barruan

Bigarren lehorreratzea. Espainiako multinazionalak Latinoamerikan dokumentala emango dute eguaztenean, hilak 11, Ibarraundi museoan (19:00). Zinema sozialaren erakustaldi barruan, Mugarik Gabe eta Mundukide gobernu kanpoko erakundeek antolatutako, multinazionalen eragina agerian uzteko.



Bilduko hautagaietako batzuk elkarretaratzea egin zuten egunean, koalizioa legezkota dela jakin aurretik. | NAIJA BAILEZ

ARAMAIO

"Konstituzionalak erabaki zuzena hartu du, albiste oso pozgarria da"

Bildu hauteskundeetan egongo dela jakin aurretik, Aramaioko hautagaiek ilegalizazioaren aurkako elkarretaratzea egin zuten egunean, Herriko plazan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

"Auzitegi Konstituzionalak erabaki zuzena hartu du, albiste oso pozgarria da. Atzo [egunean] urduritasuna eta kanpoan geratuko ginen beldurra ziren nagusi, eta gaur [egubakoitza], hauteskundeetan egongo garela jakin ostean, itxaropenak ordezkatu ditu urduritasuna eta beldurra". Ramon Ajuria Bilduren Aramaio-rako alkategaiaren adierazpenak dira, koalizioa maiatzaren 22ko Udal eta Foru hauteskundeetan egongo dela jakin ostean eginda-koak: "Oso pozik gaude eta itxaropena dugu Aramaio-ko lehen indarra izateko eta, beraz, alkatetza lortzeko", dio Ajuriak.

Eguen arratsaldean Bildu koalizioko Aramaio-ko hautagaiek ilegalizazioaren aurkako elkarretaratzea egin zuten, *Eskubide guztiak denontzat, ilegalizaziorik*

ez! lelopean. Hasiara baten Bilduren aurkezpen ekitaldia egin behar zuten, baina Auzitegi Konstituzionalaren azken epaiari itxarotea erabaki zuten azken orduan. Hala, zerrenden aurkezpen ekitaldia martitzenean egingo dute, 19:00-etan, kultura etxean.

Kudeaketa, "herritik Udalera"

Herritik Udalera eta Udaletik herrirako kudeaketa, hori da Bilduk aurkeztu duen programaren ardatza. Ajuriak halaxe azaldu du: "Udala eta herritarren arteko komunikazio eta harreman zuzena bermatu gura ditugu, horretarako tresna berriak eta eraginkorrenak zeintzuk diren aztertu eta herritarrekin batera adostuz".

Gainera, "lan egiteko gogoz eta ilusioz" datozela gaineratu du Ajuriak. Proiektu zehatzei

dagokienez, lehen sektorea indartzen saiatuko direla dio Ajuriak: "Aramaio Baserri Barri ikusten dugu herriko lehen sektorea bultzatu eta mantentzeko motor moduan eta egitasmo horren alde egingo dugu lan. Lehen sektoreak Aramaion merezi duen lekua izatea gura dugu".

Aurrekoen lana, "begi onez"

Bestalde, Ajuria alkate irtengo balitz egingo zukeen lehendabizikoaz galdetuta, honakoa erantzun du: "Zinegotzi taldearekin batu eta aurreko udalbatzak egindako lana ondo aztertuko nuke. Baina, printzipioz, lan horri jarraipen bat emango diogu. Izan ere, azken lau urteetan egindako lana begi onez ikusten dugu eta lan egiteko modu horretan oinarrituta, Aramaio hobetzen jarraitzea da gure asmoa".

Seguru asko, hauteskunde aurreko azken osoko bilkura izango da. Hala ere, beste bat egin behar dute aurreko bilkuretak aktak onartzeko.

Ondasun higiezin zerga

Bestalde, ondasun higiezin gainera zerga ordaintzeko epea zabalduko du Aldundiak egunotan; maiatzaren 16tik ekainaren 30era bitartean izango da. Helbideratutako ordainagiriak zuzenean kobratuko dituzte, ordaintzeko borondatezko epea bukatzen den egunean. Helbideratu gabe dituztenek zerga bulegoren batetik pasatu beharko dute; Debagoienean Bergaran dago.

ELGETA

Ludoteka zerbitzuak jarraipena izango du aurtan ekainera arte

Ekaineko kuota, umeko, 20 euro da; San Juan suaren inguruko ekintzak antolatu dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ludoteka zerbitzua, aurtan, maiatzaren amaierara arte luzatuko da. Gainera, maiatzean ekintza bereziak egingo dituzte. Sukaldaritza tailerra, mendi irteera, ur jolasak eta disko festa iragarri dituzte.

Ekainean ludoteka zabalik

Ludoteka zerbitzua maiatzera arte luzatzeaz gain, aurtengo beste berrikuntza da ekainean ere zerbitzua zabalik egongo dela. Astelehenetik barikura bitartean emango du Udalak zerbitzu hori, orain arte moduan 16:00etatik 19:00etara. Interesatuta dauden gurasoek umeko 20 euroko kuota ordaindu beharko dute. Izenematea zabalik

dago ludotekan eta udaletxean.

San Juan suaren inguruan antolatu dituzte ludotekan ekaineko ekintzak. San Juan kantua, dantza... prestatuko dituzte. Gainera, biodantza tailerra eta musika jolasak proposatzen dituzte. Ludotekan gau bat pasatzeko plana ere egin dute.

Hiru alkategai telebistan

Bihar, martitzena, Elgetako hiru alkategaik udal hauteskundeotarako gertatu duten programaren ardatz nagusiak azalduko dituzte Goiena telebistan 20:45ean eta 22:45ean. Oxel Erostarbe, Patxi Basauri eta Koldo Goenaga dira hiru alkategaiak.



San Juan sua, iaz, kiroldegiko kantxa ondoan. | L.Z.

ANTZUOLA

Basherri kontsumo taldearen aurkezpena

Hitzaldia egingo dute egunean, kontsumo aukeraren gaineko azalpenak emateko

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Datorren egunean, Udalak antolatuta, hitzaldia egingo dute EHNEko Pedro Alberdik eta Biolurko Adrian Sanchezek, Basherri kontsumo taldeak zer diren azaltzeko eta herrian horrelako talde bat sortzeko asmoz. Hitzaldia egunean, maiatzak 12, izango da, 18:30ean, Orlaranen.

Basherri egitasmoa Gipuzkoan sortu den ekimena da beste era batera kontsumitzeko. Barazki eta bestelako elikagaien auto-hornikuntzarako taldeak sortzen ari dira herriz herri; kontsumitzaileak herriko base-rritarrekin harremanetan jartzea da helburua. "Gaur egun go elikagaien jatorriaz kezkatuta eta Euskal Herriko nekazaritzaren egoera kontuan izanda, kontsumitzeko beste

aukera bat" proposatuko dute hizlariak.

Egitasmora biltzeko sortzen ari dira taldeak beste zenbait herritan ere, Bergaran, Aretxabaletan, Oñatin, Arrasaten eta Urretxun, adibidez. Orain Antzuolan kontsumo taldea sortzeko nahia azaldu dute.

Torresoroa eta patioko tasak

Torresoroa eta eskolako patioa erabiltzeko tasak ezarri dira, GAO-n argitaratu ostean. Torresoroako etxebizitza babestuak: banakako plaza gela bikoitzean, 24,86 euro egunean; plaza bikoitza, 19,03 euro. Pertsona nagusientzako jangelako zerbitzua: 6,16 euro jatorduko; prezio behe-ratua, 4,11 euro jatorduko. Eskolako patioa erabiltzeagatik: herritarrek, 10 euro orduko; kanpokoek, 20 euro orduko.

LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako etxeen ardura emateko osoko bilkura egunean

Ezohiko osoko bilkura da eta agintaldiko azken kontuak lotuta utzi gurako lituzke udalbatzak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ezohiko osoko bilkura egingo du egunean, hilak 12, udalbatzak (18:30). Oraindik gai zerrenda osoa zehaztu barik dute, baina Gaztainuzketako mendi etxeen kontua eztabaidatuko dute.

Gaztainuzketako etxeen lehia-keta deia egin zuen Udalak apirilean –bigarren deia–, eta, behin

epea bukatuta, interesdun bakarra aurkeztu da. Hark aurkeztutako agiriak aztertu dituzte azken astean, eta egunean hartuko du erabakia udalbatzak.

Horrekin batera beste gai batzuk ere izango dituzte aztertzeko zinegotziek; izan ere, bukatzeaz dagoen agintaldiko azken kontuak lotuta utzi gura dituzte.

SARI NAGUSIA



Asteburu bat Txopebenta landetxean

Hondartzatik lau kilometrotara!
Gosariak, mundialak!
Goza ezazu Txopebenta landetxean!!

TXOPEBENTA LANDETxea

Basetxetas
GAUTEGIZ-ARTEAGA (Bizkaia)
Tel.: 94 625 49 23 / 629 45 50 79
www.nekatur.net/txopebenta
www.toprural.com

MUNDUMIRA

3 sari sorta: kamisetak, liburuak eta Euskal Herria aldizkarian harpidetzak



2
zozketetan
parte
hartzeko

Parte-hartzaile
guztien artean
zozketatuko da.

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Bidali KLUBA LANDETxea [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzeko. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM

AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99
■ Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA

AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39
■ %2 gasolindegian erregeia erosita.
■ %2 dendako produktuetan

AZKOAGA

AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA

Eskoriatza, 943 71 45 66
■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendrak).
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.

BARCELÓ

BARCELÓ BIDAIAK

Arrasate, 943 79 70 11 / Bergara, 943 76 08 43
■ 1.000 eurotik gorako erosketekin
"B Plana" OPARI
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGINDO

BEGINDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ %15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT

ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96
■ %10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES

GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLÍNICA DENTAL BERGARA

CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77
■ %10 zerbitzu guztietan
■ %15 inplanteetan
■ Aho-garbigeta doan,
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER

SUKALDEAK

IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
■ Sukalde osoa erosita, mikrouhin-labea opari.

LILURA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71
■ %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
■ %20 elikagai-intolerantzia proban.
■ %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
■ %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ %15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72
■ %5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
■ %25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diegu.

TXIKI ZOO

TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaieguna, jaieguna bezpera, zubia edo oporraldia)
■ %20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
■ %10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78
■ %10 deskontua.

KIROLA

MENDIA

Ana Condek errekorra ezarri du emakumezkoen mailan; mutiletan, Becerra onena

Aurtengo berritasuna parapente lasterkariak ziren, baina ez zuten hegan egiterik izan, haize gogorragatik

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Aloñako lasterketak errekor berria du emakumezkoen mailan. Ana Conde gasteiztarrek ezarri zuen errekor berria Oñatiko plazan: helmugan, 1:27:37ko denbora egin zuen Condek, eta Aloña igotzen ere errekorra egin zuen: 1:00:12ko denbora ezarri zuen Aloñako gurutzearan.

Errekorra, emakumezkoen dagokienez, izan ere, gizonetzkoetan ez zuten errekorrik hautsi. Azkeneko urteetan bezala, Walter Becerra venezolarra gailendu zen lasterketan (1:14:51).

Tontorrean hotza eta haizea

250 korrikalari inguruk hasi zuten lasterketa Oñatiko plazan. Eguraldi ederra zegoen, eguzkitsua. Hala ere, abisatu zuten ordu horretan Aloñako tontorrean hotz asko egiten zuela (4 gradu), eta haize zakarra zebilela. Hala, parapente lasterkariak ez zutela hegan egingo iragarri zuten, goizean goizeitik.

Oñatitik (230 metro) Urtiagainera (490 metro) igo ziren lasterkariak, Garagaltza auzotik. Urtiagainen azkarrena Walter Becerra izan zen eta bigarrena Juanjo Igartzabal. Oñatiko Joseba Molinero izan zen lehenengo herritarra Urtiagainera iristen. Handik Belarrerako eta Aloñarako bidea hartu zuten lasterkariak.

DATUA

249

LASTERKARI HELMUGAN

249 lasterkari iritsi ziren Oñatiko plazako helmugara, iaz baino gutxiago. Iaz errekorra egin zuten, 302 lasterkarirekin.

Urtiagainen onenak

Ohiko lasterkariak Oñatiko plazatik irten ziren ordu berean parapente lasterkariak Urtiagainera irten ziren Aloñara bidean.

Aloñako gurutzearan Walter Becerra izan zen azkarrena, jarraian iritsi zen Igartzabal, eta Molinero oñatiarra izen zen debagoiendarren artean azkarrena. Hala ere, beherako bidean, Molinero atzera egin zuen eta Oñatiko plazako helmugara 13. iritsi zen.

Debagoiendarren artean antzuolarrak izan ziren onenak. Jon Iturbe izan zen onena: 8. tokian sailkatu zen eta 1:20:17ko denbora egin zuen. Bigarren, ostera, Julen Garitano izan zen: 1:22:18ko denbora egin zuen; hirugarrena, Molinero izan zen: 1:23:19.

Emakumezkoetan, Leire Altube izan zen Debagoieneko emakume azkarrena (1:46:55); bigarrena Ana Isabel Urmeneta oñatiarra izan zen (1:57:08); eta, hirugarrena, Rosa Lasagabaster eskoriatzarra (1:58:26).

Oñatiarre garaikurra

Oñatiko emakumezkoen Leire Altube eta gizonetzkoen Joseba Molinero onenek garaikurra jaso zuten. Ondoren, eguneko momentu hunkigarriena iritsi zen. Lasterketako antolatzaileek oroigarria eman zioten Iban Altube zenaren emazteari. Aloñako lasterketan parte hartutakoa eta laguntzen ibilitakoa zen Altube. Gainera, lasterketa hasi baino lehen, minutu bateko isilunea gorde zuten Altuberen oroimenez.

Arratsaldean ere ez

Haizeagatik ez zuten hegan egin parapente lasterkariak; hala ere, Oscar Fernandez eta Joseba Izagirre zarauztarrak ausartu ziren hegan egitera. Haizea zerbait moteldu zenean egin zuten salto, eta Oñatiko plazan batutakoek txalo zaparrada artean hartu zituzten kontuan hartu hamar kiloko motxila daramatela.

Arratsaldean eman gura zuten ikuskizuna parapente lasterkariak baina haize txarragatik arratsaldean ere ez zuten hegan egin.



Ana Condek errekorra hautsi zuen atzo Oñatiko plazan: 15,5 kilometro egiteko 1:27:37ko denbora.



Lasterkariak Aloñako gurutzerako bidean. | XABIER URTZELAI

ANA CONDE | EMAKUMEZKO IRABAZLEA

"Igoera gogorra da, baina beherakoan gehiago sufritu dut"

Lehenengo aldiz parte hartu du Oñatiko proban Condek eta errekorra hautsi du.

Zorionak Ana!

Eskerrik asko. Benetan pozik nago egin dudana lanarekin.

Nolako lasterketa izan da?

Kanpotik ikusita, badirudi lasterketa samurra dela baina, egia esan, oso gogorra iruditu zait. Gainera, ez nuen ezagutzen ibilbidea eta, horregatik, indarrak gordetzen joan naiz, izan ere, ez nekien noraino ahalko

nuen. Asko sufritu dut, baina egin beharrekoa egin dut.

Zer izan da gogorrera zuretzako?

Igoera oso gogorra da, baina esan behar da kontrolatuta dagoen bidea dela, ez dagoela arriskurik. Beherakoan, ordea, gehiago sufritu dut. Aldapa gogorrak dira eta lokatzara zegoen... beldurra izan dut!

Errekorra ezartzera irten zara?

Bai, banekien errekorra zegoen.



Ana Conde. | A.E.

la eta horren bila joan naiz. Jaitsierak arduratu nau.

Aizkorren ere ikusiko zaitugu?

Ez, ez da komeni zaidan lasterketa mota. Jaitsiera teknika ez dut ondo menderatzen.

WALTER BECERRA | GIZONEZKO IRABAZLEA

"Eguraldiak lagundu du eta zale asko batu dira animuak emateko"

Beste behin ere, Sestaon bizi den venezolarrak jantzi du irabazlearen txapela Oñatiko plazan.

Nolako lasterketa izan da aurtengoa?


Egia esan, oso polita izan da. Asko gustatzen zaidan lasterketa da, mitikoa da dagoeneko. Gainera, eguraldiak asko lagundu du eta ikusle asko batu dira animuak emateko.

Nola planteatu duzu lasterketa?

Hasieratik irten dut aurreko taldetxoan. Beste lasterkari batzuekin batera iritsi naiz Urtiagainera eta, gorako aldapa hasi direnean, aurre hartu dut.

Zuretzako, zer izan da gogorrera?

Niretako oso gogorra izaten da azkeneko aldapa, Aloñako gurutzera iristeko azkeneko zatia. Hala ere, aurrean zoazenean indar gehiagorekin egiten da korrika.



Walter Becerra. | A.E.

Hirugarren urtez jarraian irabazi duzu.

Bai, aurtun hirugarrenez irabazi dut Oñatiko helmugan. Asko gustatzen zaidan lasterketa da; gaur Azpeitian egon behar nuen, baina gurago izan dut hau.

ALOÑAKO IGOERA | Zazpigarren edizioa | 0



denbora behar izan zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



Mutilen podiuma: lehenengo bost onenak. | ARANTZAZU EZKIBEL



Jon Iturbe antzuolarra izan zen debagoiendar azkarrena. | ANDER MONEDERO

SAILKAPENA 2011

EMAKUMEZKOAK

SAILKAPEN OROKORRA

- 1. Ana Conde 1:27:37
- 2. Elena Calvillo 1:35:29
- 3. Amets Maiztegi 1:38:35

BETERANOAK

- 1. Elena Calvillo 1:35:29
- 2. Ana I. Urmeneta 1:57:08
- 3. Rosa Lasagabaster 1:58:26

GIZONEZKOAK

SAILKAPEN OROKORRA

- 1. Walter Becerra 1:14:51
- 2. Juanjo Igartzabal 1:16:35
- 3. Jesus Martin 1:17:42

BETERANOAK

- 1. Josean Estenaga 1:28:26
- 2. Luis Urruzola 1:29:00
- 3. Eduardo Calleja 1:29:39



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

RENOVE PLANA



2^{URTE}
1000 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF 1106

265
-105
160 €

aspes



2^{URTE}
1000 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE2001EE

345
-105
240 €

BOSCH



2^{URTE}
1200 b/min
7 Kg

A⁺⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAQ-24479EE

475
-145
330 €

BOSCH



2^{URTE}
1400 b/min
7 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2714

415
-105
310 €

FAGOR



2^{URTE}
1200 b/min
8 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

415
-105
310 €

FAGOR



2^{URTE}
1000 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA AL-014

265
-85
180 €

aspes



2^{URTE}

INDUKZIO LABEA IF 3-S

445
-105
340 €

FAGOR



2^{URTE}

A⁺ Sailkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA 6H-760 AX

455
-85
370 €

FAGOR



2^{URTE}

A⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-144

295
-105
180 €

aspes



2^{URTE}

A⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA KGN39A77

660
-105
555 €

BOSCH

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurrezteak.

A⁺ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

EBA LIGARA IGOERA

Zaleei eskerrak emanez ospatu zuen Aloñak EBA mailako taldea dela

Herriarrek kiroldegia eta plaza lepo bete zituzten igoera ospatzeko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jagoba Gamarra, Ales Anduaga, Mikel Biain, Iñigo Zabaleta, Beñat Madariaga, Eneko Blanco, Iban Lizarralde, Markel Exposito, Mikel Uribetxeberria, Iñigo Biain, Ibai Osa, Xabi Igartua, Gorka Judez eta Unai Aranburu. 15 izen, 15 protagonista. Euren igo dute Sustrai Aloña, hiru urtetan, probintzial mailatik EBA ligara; euren eta, astero-astero, Zubikoa kiroldegiko harmailak bete dituzten

zaleek. Bada, euren igo izan zen zapatuko lehen esker ona: Fundacion Baskoniaren kontrako partidua hasieran, pankarta batekin irten ziren kantxa erdira, zaleen laguntza eskertuz.

Ordurako kiroldegia lepo beteta zegoen. Partidua gutxienezkoa izan zen: hirugarren tartean 17 puntuko errenta izan arren (65-48), sei puntugatik bakarrik irabazi zuten oñatiarrek (80-74).

Norgehiagoka bukatu ondoren, harmailetan zeuden zaleak plaza aldera joan ziren jokalariei ongietorria egiteko. Igoerako protagonistak Udal musika bandaren doinuen laguntzarekin heldu ziren plazara, Aloñaren ereserkiarekin.

Plazan zeuden umetxoei bostekoa emanez, udaletxean sartu ziren. Lourdes Idoiaga alkateak eta hainbat zinegotzik zuzenean ikusi zuten partidua eta harrera

egin zieten osoko bilkuren aretoan. Alkateak "eskerrak" eman zizkien saskibaloia sustatzeko emandako laguntzagatik eta "zoriondu" egin zituen lortutako igoeragatik.

20:30ean udaletxeko balkoiko atek zabaldu eta jokariak, entrenatzaileak eta zuzendaritza batzordeko kideak balkoira irten, eta herriarren omenaldia jaso zuten. Banan-banan aurkeztu zituzten guztiak, eta txalo zaparrada jaso zuten.

Taldearen posterra

Handik aurrera, festa izan zen nagusi. Plazako kioskoan, Sustrai fruta-dendak emandako saski bana jaso zuten jokalariek eta, mikrofonoa eskutan, esker oneko hitzak esan zituzten. Dena den, galdera zailena Jose Luis Campo presidenteari erantzun beharra izan zuen: *Aloñak jokatu al du EBAn?* "Lehenengo eta behin jokalariekin egingo dugu berba eta eurekin hausnarketa egin beharko dugu. Ondoren hasiko gara aurrekontua estaltzeko diru bila. EBA maila ia profesionala da eta sakrifizio handia eskatzen du", esan zien zaleei eta jokalariei.

Festa bukatzeko, zaleen artean sariak banatu zituzten -fruta-saskiak, ardo botilak eta aterkiak-. Taldearen posterrak ere banatu zituzten, jokalarien sinadura eta guzti.



Aloñako jokalariek zaleek emandako laguntza eskertu zuten, Fundacion Baskoniaren kontrako partidua hasi aurretik. | MIREIA BIKUÑA



Ander Mallabi jaurtiketa egiten eta zaleak adi-adi begira. | JOSETXO ARANTZABAL



Aloñako kideak herriarrek agurtzen, udaletxeko balkoitik. | J.A.



Aloñako jokariak entrenatzailea airatzen. | J.A.

LEHEN MAILA, JAITSIERA

Mondragon Unibertsitateak galdu egin zuen Bide Bide Ibizen kontra Iturripen

M.B. | ARRASATE

Aurreko partiduan lesionatu zen Iker Barberori garaipena eskaintzeko asmoz irten zen Mondragon Unibertsitatea kantxara, baina ezin izan zuen lortu. Bide Bide Ibizen irabazi zuen 59-67.

Parekatua

Jaitsiera fasean ondoen ibilitako bi taldeak egon ziren aurretik.

-aurre Iturripen. Hori horrela, partidu parekatua jokatu zuten. Bien helburua zen partidua irabazi eta urtea ahalik eta ondoen amaitzea. Josu Larreategiren taldeak aukerak izan zituen lehia irabazteko, baina ez zuten lortu.

Jaitsiera fasea bukatzeko partidu bakarra geratzen zaie arrasatearrei; Viages Marfilen kontra jokatu dute.

EMAKUMEEN MAILA

Eskoriatzako neskek lauko finala jokatu dute Zarautzen

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako neskek lauko finala jokatu dute oraingo aste bukaeran Zarautzen, aurreko zapatuan BKL taldea menderatu ostean (45-32).

Finalerdia jokatu dute zapatuan, hilaren 14an, Zarauzko taldearen kontra. Beste finalerdia Erroibidek eta Tecunek jokatu dute. Irabazleek domekan, hilaren 15ean, jokatu dute finala, 12:00etan.

Lauko finala ikustera joateko Eskoriatza kirol elkarteak autobusa jarriko du. Interesatuak kiroldegian eman beharko dute izena. Autobusa finalerdia hasi baino ordu eta erdi lehenago irtengo da Eskoriatzatik.

Hasiera indartsua

Zapatuko partidua garrantziaz jabetuta, Fernando Rasoren taldea indartsu irten zen kantxara, eta 10-3ko partziala egin zuen. Erasoan

jaurtiketa onak topatuz, errenta mantendu eta 15 puntuko tartea zabaldu zuten atsedeneren aurretik.

Baina, hirugarren laurdenean erlaxatu egin ziren. BKL-k defentsa indartu zuen, eta errenta txikitzen hasi zen. Etxeko jokariak urduri ipini ziren baina, eraso onei esker, buelta eman zioten egoerari, eta, beste behin, lauko finalerako txartela eskuratu zuten.



UDAk jokalaria Andoni Amutxastegi baloia kontrolatu guran, Mondrako jokalarien aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Gol ederrak, emozioa eta beroa nagusi UDaren eta Mondraren arteko derbian

Murua, Haritz, 'Piru' eta Lander izan ziren golegileak Ibarra

EMAITZA

UDA

2-2

MONDRA

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Gaizka, Andoni, Igor, Beñat, Kerman (Raul, 71. min.), Mikel (Iñaki, 59. min.), Julen (Jokin, 87. min.), Gillen (Piru, 59. min.), Oinatz, Haritz eta Aitor Perez.

Mondra: Ander, Loiti, Illarte, Tena (Kepa, 80. min.), Lazpiur, Ekain, Oier (Jokin, 82. min.), Pavon (Lander, 73. min.), Murua, Lopez (Andoni, 70. min.) eta Zabaleta (Markel, 88. min.).

Beste: Guadix jaunak zuzendu zuen derbia. Errasati eta San Jose izan zituen marrazain lanak egiten. Zale asko bildu zen Ibarra derbia ikusteko.

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Aspaldiko partez, gol zaparrada izan zen nagusi bailarako derbian. UDAk eta Mondrak jokaturako klasikoan, lau gol ikusi zituzten zaleek, haietatik hiru, zoragarriak, eta guztiak bigarren zatian.

Hura izan zen derbiko zatirik emozionanteena. 53. minutuan lehen abisua eman zuen UDAko Gillenek, baina Mondrak egin zuen lehen gola 63. minutuan. Ordura arte bikain jokatzen ziharduen Xabi Pavonek kontraerasoa egin zuen eskuinetik eta baloia garbi eman zion Muruari gola egiteko. Lehen zatiko jokoa ikusita eta arrasatearren golarekin, Juanan Cruzek aldaketa bikoitza egitea erabaki zuen. Jokalariak marrazainarekin zeudela, bigarrena egiteko aukera garbi-garbia izan zuen Muruak, baina kanpora bidali zuen.

Orduan zoratu egin zen partidua, eta bi taldeak gol aukerak sortzen hasi ziren. UDAko Oinatzek bi izan zituen bata bestearen ondotik, eta Mondrako jokalaria

Illartek beste bat. Aukera guztiak ezerezean geratu ziren.

Haritz Igartuak egin zuen berdinketaren gola 66. minutuan. Korner baten erdiraketan baloia,

hartu, eta zelai osoa gurutzatu ondoren, Ander atezainaren aurrean ez zuen hutsik egin. Ikaragarritzko golarekin lortu zuen berdinketa.

Arizmendiko neskei omenaldia

Mondrako eta Aretxabaletako jokalariek pasilloa egin zieten Arizmendiko neskei derbia hasi aurretik. Txalo zaparrada jaso zuten zaleen aldetik, iguera lortu izanagatik. Aritz Elortzaren neskek sortu berri duten Euskal Ligan jokaturako dute irailetik aurrera.

Arizmendi taldeko jokalaria zelai erdira irten eta zaleek emandako laguntza eskertu zuten. Jarraian, talde argazkia egin zuten Mondrako eta Aretxabaletako jokalariekin.



Arizmendiko neskak Ibarra futbol zelaira sartzen. | MIREIA BIKUÑA

Txilenaz egindako gola

Berdindu eta gero, aurretik ere jarri ziren aretxabaletarrak. 75. minutuan *Piruk* baloia indartsu bota zuen area kanpotik, eta Ander atezainak huts egin zuen: baloia atean sartu zitzaion, esku artetik ihes egin eta gero.

Markagailuari buelta eman arren, ez zuten disfrutatzeko aukera gehiegi izan. Baloia zelai erditik atera eta hurrengo jokaldian berdindu egin zuen Mondrak. Landerrek, *txilenaz*, baloia atean sartu zuen 76. minutuan.

Binako berdinketarekin eta lehia bukatzeko ordu laurden baten faltan, partidua irekita zegoen. Biek ala biek zituzten irabazteko aukerak, jokoa bizitu egin zuten eta kontraerasoa aprobetxatzen ahalegindu ziren.

Mondrak izan zuen aukera garbiena hirugarren gola egiteko, baina Muruak ez zuen asmatu. Luzapenean Mondrako Landerrek ere aukera izan zuen.

Zenbaki sarituak

UDAk atzoko partiduan egindako zozketaren zenbaki sarituak dira: 19.546 (lehenengo saria; balioa du eguenera arte) eta 19.426 (bigarrena; balioa du domekara arte). Txartelen jabeak Ibarra futbol zelaitik pasa beharko dira.

Bergara eta Aloña

Bestalde, Ohorezko Erregional mailako gainerako taldeei dago kienean, Bergarak irabazi egin zuen Hondarribiaren kontra (2-1); eta Aloñak bana berdindu zuen Tolosaren etxean (1-1).

EMAKUMEAK, IGOERA



Mondrako jokalaria Mariñoren defentsa gainditu guran. | JOSETXO ARANTZABAL

Penalti jaurtiketetan lortu zuten finalerako txartela

Mondrak eta Mariñok, partidu parekatua jokatu arren, ez zuten golik egin arauzko 90 minutuetan

M.B. | ARRASATE

Penalti jaurtiketa saioan puntua hobe izanda -6-5 irabazi zuten-, Mondrako neskek jokaturako dute Gipuzkoako txapelketako finala. Mariñoren kontrako

arauzko 90 minutuetan ez zuten golik egin eta estu eta larri lortu zuten oraingo aste bukaeran jokaturako finalerako txartela. Finala irabaziko balute, Bizkaiko eta Arabako txapeldunekin, hiru-

koa jokaturako lukete, Superliga baino beherago dagoen mailan jokatu ahal izateko.

Erasoa defentsaren kontra

Ligako bi talde indartsuenak lehiatu ziren zapatuan: gol gehien egin duen taldea (Mondra) eta gol gutxien jaso duen bigarren taldea (Mariño).

Arrasateko neskek sortu zituzten gol aukerak, baina ez zuten asmatu. Mariñok ere izan zuen aukerarik; batzuk, gainera, etxekoena baino askoz garbiagoak. Baina, ez zuten golik egin.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik Katalunian jokaturako hiru partiduetan galdu ditu eta ez da mailaz igoko

Edu Orgaz mutilek denboraldia amaitutzat eman dute horrela

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Ford Mugarrik Euskadiko txapelketan jarraituko du datorren urtean. Aste bukaeran, Espainia-ko lehenengo mailarako igoera fasea jokatu dute Katalunian, eta jokaturako hiru partiduetan galdu egin dituzte. Egubakoitzean, Ibizako Montcada taldearen aurka jokatu zuten arrasatearrek; 31-41 galdu zuten

Orgaz mutilek. Zapatuan, Santa Feren aurka lehiatu ziren eta 12 goleko aldearekin galdu zuten: 25-37. Atzo jokatu zuten azkeneko lehia; Puig D'en Vallsen aurka 34-19 galdu zuten. **Gainerakoak, indartsuagoak** Orgaz entrenatzaileak azaldu du gainerako hiru taldeak, fisikoki, indartsuagoak zirela. Hala, lehe-

nengo zatietan ondo eutsi zuten arren, bigarren zatiko azkeneko 15 minutuetan "gainetik" pasa zitzaizkien. "Banakako lehia gutxietan gailendu zaizkigu", azaldu zuen. "Nik uste dut fase polita jokatu dugula, ondo ibili gara, baina gu baino askoz ere maila handiagoako taldeak izan dira hirurak", azaldu du Orgazek.



Ford Mugarriko mutilek iaz Iturripen partidua galdu ostean. | ARTXIBOA

MENDIA

Urriaren 1ean jokaturako den Anbotoko kilometro bertikalerako izenematea dagoeneko zabalik dago

Jada aukera dago Anbotoko Kilometro Bertikala mendi lasterketan izena emateko. Interesatuak Brinean mendi lasterketan elkartearen webgunean eman dezakete izena: www.brinean.com atarian. Federatuak 20 euro ordaindu beharko dute eta 25 euro federatuta ez daudenek. Lasterketa urriaren 1ean jokaturako da, 15:00etan, eta gehiengo partaide kopurua 350 lagunekoa izango da. Antolatzaileek 10.000 euro banaturako dituzte sarietan, eta irabazleak 2.700 euro bereganatzeko aukera izango du. Lasterketa Espainiako Koparen zirkuituan sartuta dago.

PILOTA

Magaliren aldeko pilota eta frontenis txapelketetan eguaztenera arte eman ahal izango da izena

18 urtetik gorakoendako esku-pilota eta frontenis txapelketak izango dira; azken hau presio moteleko pilotekin jokaturako da. Maiatza eta ekaineko aste bukaeratan jokaturako dira txapelketak kopa sistema bidez, 22 tantotara. Lehenengo faseak Angiozarreko frontoian jokaturako dira eta finalak Udal Pilotalekuan, Bergarako jaietan. Interesatuak maiatzaren 11ra arte eman dezakete izena Agorrosin ekintza gunean. Horretarako 3035-0005-31-0050047260 kontu korrontean 16 euroko diru-sarrerara egin beharko dute (bikoteka). Informazio gehiago: 685774303 edo 663906855.

PILOTA

Aitor Mendizabal antzuolarra "oso pozik" dago GRAVN txapelketa 22-15 irabazi ondoren

Gipuzkoako bikoteak irabazi zuen egubakoitz iluntzean Areta-Laudion jokaturako senior mailako GRAVN finala. Aitor Mendizabalek eta Josu Uzkudun azpeitiarrak final polita jokatu zuten Garralda eta Linzoain nafarren aurka. Mendizabalek esan digu partidua gogorra izan zela: "Hasieran berdindua izan zen (10-10), baina gero 17-14 aurreratu ginen". Partidu amaieran, "pare bat bi pareta" egin zituen antzuolarrak, eta gustura zegoen egindakoarekin. Gainera, antzuolarrendako lehenengo aldia da senior mailako GRAVN txapelketa irabazten duena.

FUTBOLA

EMAITZAK

Zumaia-roteta	0-1
Oiartzun-Trintxerpe	1-1
Bergara-Hondarribia	2-1
Tolosa-Aloña Mendi	1-1
Aretxabaleta-Mondragon	2-2
Idiazabal-Real Union	0-1
Pasajes-Anaitasuna	2-1
Hernani-Aurrera	1-0
Berio-Ordizia	4-2

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Real Union	73	31
2 Hernani	71	31
3 Pasaja	64	31
4 Anaitasuna	55	31
5 Aretxabaleta	51	31
6 Oiartzun	49	31
7 Bergara	46	31
8 Tolosa	44	31
9 Aurrera	42	31
10 Berio	38	31
11 Mondragon	37	31
12 Aloña Mendi	37	31
13 Trintxerpe	36	31
14 Hondarribia	34	31
15 Roteta	28	31
16 Zumaia	26	31
17 Idiazabal	24	31
18 Ordizia	19	31

HURRENGO JARDUNALDIA

Zumaia-Berio
Roteta-Oiartzun
Trintxerpe-Bergara
Hondarribia-Tolosa
Aloña Mendi-Aretxabaleta
Mondragon-Idiazabal
Real Union-Pasajes
Anaitasuna-Hernani
Aurrera-Ordizia

ERREGIONAL PREFERENTEA

Euskalduna-Aretxabaleta B	1-0
Mondragon B-Tolosa	1-0
Antzuola-Lagun Onak	4-0

ERREGIONALA-IGOERA

Ostadar B-Bergara B	3-4
---------------------	-----

GAZTEEN FEDERAZIO KOPA

Aretxabaleta-Aurrera Vitoria	0-3
------------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK,IGOERA

Aloña Mendi-Beasain	3-1
Mondra-Real Union	2-2

GAZTEAK,IGOERA

Arizmendi-Lazkao	2-3
------------------	-----

GAZTEAK, KOPA

Bergara B-Ilintxa	3-4
Aretxabaleta B-Zestoa	3-3
Soraluze-Arizmendi UDA B	0-2

OHOREZKO KADETEAK KOPA

Aretxabaleta Ariz.-Oiartzun	2-1
-----------------------------	-----

EMAKUMEZKOAK,IGOERA

Mondragon-Mariño	0-0
------------------	-----

ESKUBALOIA

GIPIZKOAKO KOPA, GIZONEZ.

Soraluze BKE-Atez ate Usurbil	45-24
-------------------------------	-------

GIPIZKOAKO KOPA, EMAKU.

Izarraitz Aloña-Donibane	39-23
--------------------------	-------

UDABERRIKO TXAPELKETA

Katilu-Bergara	22-21
----------------	-------

KADETE MUTILAK

La Bacaladera-Bergara	25-24
-----------------------	-------

Arrasate-Aloña Mendi	31-21
----------------------	-------

GAZTE NESKAK

Bergara-Ereintza Aquaplast	16-22
----------------------------	-------

KOPA KADETE NESKAK

Aloña Mendi- Bartolo	A tzeratuta
----------------------	-------------

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Sustrai Aloña Mendi-Baskonia	80-74
------------------------------	-------

SENIO GIZONEZKOAK

Soraluze BKE-Sustrai Aloña	76-44
----------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-BKL	45-32
----------------	-------

GAZTE PARTAIDETZA

Soraluze BKE-Aloña Mendi	52-57
--------------------------	-------

EMAKUME GAZTEAK PARTAID.

Zast Zarautz-Aloña Mendi	41-31
--------------------------	-------

Andraitz-Soraluze BKE	88-12
-----------------------	-------

ARETO FUTBOLA

GIPIZKOAKO 2. MAILA

Zarautz-Aretxabaleta	2-4
----------------------	-----

GIPIZKOAKO 3. MAILA

Euskalduna-Aloña Mendi	6-4
------------------------	-----

GU
R
E
KI
RO
LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena

Aitor Fernandez Abarisketa | Bilbao Athletic taldeko atezaina

"Hirugarren atezaina naiz eta normalena zen Raulek debutatzea; ea nik ere aukera dudan"

- Etorkizunean Athleticeko atea zaintzeko hautagaietako bat da arrasatearra
- Min hartuta egon ostean, munduko txapelketarako erreku-peratzea du helburu

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aitorrek aitaren pausoak jarraitu ditu txikitatik [Angel Fernandez, Mondrako atezain ohia], atepean egotea du gustuko: "Nahiz eta aitak beste posturen baten jokatzeko esaten zidan, atezainarendako leku bakarra egoten delako". Hala, Bilbao Athletic taldeko atea batendako lekua du, Arrasatekoarendako. Aurten go denboraldian Fernandez izan da Athleticeko bigarren taldeko atezaina –min hartu duen arte–, eta lehenengo taldekoekin entrenatzen dabil duela bi urtetik hona. Goragoko atean Gorka Iraizozek agintzen du, oraingo.

Zer moduz atzamar hori? [Otsailean ebakuntza egin zioten, entrenamendu saio baten lurraren kontra atzamarra hautsi ostean]

Ondo, dagoeneko hainbat hilabete igaro dira min hartu nuenetik, eta oraindik mugimendua guztiz erreku-peratu ez badut ere, ondo indartu zait atzamarra.

Txarrena da atzamarra erreku-peratzearekin batera, Athleticek eta Realak jokaturako derbiaren ostean [ordezko atezaina izan zen San Mamesen] domekan Leonen jokatu nuela, eta abduktorean min hartu nuela.

Lasaitasunez hartu behar, orduan. Bai; pena ematen dit, sekulako gogoarekin nebilelako. Lesio batek erreku-peratzean inoiz baino motibatuago egoten zara, dena geratzeko gauza zarela uste duzu. Baina berriro ere geratu egin behar...

Hilabete beharko dut erreku-peratzeko, neurri handian amaitu zait liga denboraldia. Abuztuan, baina, 20 urtez azpikoen munduko txapelketa izango da, Kolonbian, eta hitzordu horretarako ondo erreku-peratzen saiatu behar dut.

Realaren kontrako derbian komunikabideetan Fernandez abizena entzun genuenean askok pentsatu genuen debutatzeko ordua iritsi zitzazula.

[Barre] Bai, Raulek eta biok abizen antzerakoa dugu [bestea Raul Fernandez-Cavada da], fisikoki ere nahiko antzerakoak gara, ilehoriak biak, eta Lezaman bat baino gehiago etorri izan zait Raul naizelakoan sinadura eske.

Pena, ez zela Arrasateko Fernandez.

Bueno, normalena zen Raulek egitea debuta, ni baino nagusiagoa da eta hura da Athleticeko bigarren atezaina. Ni, berriz, hirugarren atezain moduan nago. Egia esan, debu-



Aitor Fernandez, aste barruan, Arrasaten. | XABIER URTZELAI

ta egiteko eszenatoki ederra zen, Realaren kontrako derbia, San Mamesen sekulako giroa... Aldi berean, baina, presio handiko partidua zen; amestutako debuta egin zuen Raulek, partidu borobila. Ea nik ere aukera dudana, oraindik gaztea naiz eta.

Sarri entzun izan dugu Aitor Fernandez dela Athleticeko etorkizunean izango duen atezaina.

Ea egia den... [Barre]. Dena dela, futboleko edozein gerta daiteke, faktore mordoa daude aurrera

"Iraizozen ondoan asko ikasten nabil; lasaitasuna transmititzen du"

"Orain momentuan Valdes da munduko atezainik onena; oso ondo dabil"

edo atzera egiteko, eta jokalaria kontziente izan behar dugu, esaterako, edozein momentutan hauts dezakegula belauna. Kasu askotan, gora egiteko faborito ziren horiek bidean geratu dira. Esaterako, entzun dudanez, Ansotegik Eibarren oso gutxi jokatzeko zuten, eta begira zelan dabilen Realean.

Beste adibide bat da Athletic Madrildelako David de Gea atezaina. Ni baino urtebete nagusiagoa da, eta harrituta nago duen mailarekin. Datorren urtean ez dut uste nik haren maila izango

dudarik [Barre]. Duela urte gutxi bere taldeko laugarren atezaina zen, aurretik zegoen Asenjo, esaterako, eta ikusi zelan aldatu diren gauzak. Asenjo Malagan dago, berriro ere belaunean min hartuta, eta De Gea Manchesterrera joateko eskaintzekin.

Lezamako harrobian ez dago, baina, zure curriculum duen beste atezainik: bigarren B mailan titular, 20 urtez azpikoetan Espainiako selekzioan...

Bai, baliteke. Baina berriro diot, futboleko edozein gauza gerta daiteke eta atzoz izan zinenak edo ordura arte egin duzunak ez du ezertarako balio.

Zeharremandu zue atezainon artean? Eta orokorrean taldekideen artean?

Oso ona, benetan, familian bageundeko moduan. Gorka Iraizozen ondoan mordoa ikasten dugu Raulek eta biok, aholkuak ematen dizkigu, gauza txikiak zuzendu... Batez ere lasai egoteko eskatzen digu, eta ikustekoa da hark zelako lasaitasuna transmititzen duen.

Eta taldean ere giro ona dago, ez daude taldetxoak eta horrelakoak. Noski, gauza batzuetarako hierarkia oso argi dago; esaterako, entrenatzailearekin berba egin nahi dugunean, edo zerbait eskatu. Orduan, Ocio, Orbaiz... nabarmentzen dira. Jokalarion artean, baina, ez dago halako alderik.

Egunotan Bartzelonaren eta Madrilaren arteko derbietan ikusi ditugu nortasun handiko bi atezain aurrez aurre. Nor aukeratuko zenuke?

Valdes, duda barik. Nik uste dut Casillas baino osoagoa dela, nahiz eta detaile batzuetan Casillas hobea den. Goitik askoz hobea da Valdes, eta baita hanka-jokoan ere. Titulu mordoa irabazten dabil, oso gol gutxi jasotzen ditu eta talde barruan ere rol garrantzitsua betetzen duela uste dut. Hori gutxi balitz, fisikoki sekulako gorputzaldi onean dagoela esango nuke.

Eta Aitor Fernandez zelakoa da berdegunean?

Uf, galdera ona da hori... Akaso, beste batzuek erantzun beharreko galdera da, baina, nire ustez, atezain lasaia naiz, jokalariei etengabe berba egiten ibiltzen dena, bakoitzaren posizioa zuzentzen. Askotan ez da antzematen, baina atezainak jokalaria ondo kokatzen laguntzen badu, erasoko jokaldi asko ebata ditzake, nahiz eta gero, akaso, ez duen geldiketa ikusgarri egingo.

HEZIKETA

Itziar Bartolome: "Itzul diezaiegun gure haurrei eskolarako bidea"

Francesco Tonucciren 'La Citta Dei Bambini' liburua gomendatzen du

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Guraso.com atariko kolaboratzailer Itziar Bartolomek haurrak eskolatik autoarekin jasotzeko egon daitezkeen arrazoiengintzuan egiten du gogoeta bere azken artikuluan. Autoarekiko daukagun dependentsia patologikoa dela adierazten du eta autoarengheiegizko presentziak jolasarako espazioak ikaragarri murriztu dituela. "Jolasteko lekuak gutxitu ahala, gure haurren osasuna (aurrerantzean gizartearena) kaskartzen ari gara", adierazi du.



Bi haur guraso batekin eskolara oinez. | JULIE 70

Eskolara oinez

Lan ordutegiak, egungo bizitza erritmo azkarra... egoeraren arrazoiak bilatzen saiatu da Bartolome, baina benetan uste du kontzientzia hartu behar dugula. Hala, Francesco Tonucciren *La Citta dei Bambini* (Haurren hiria) gomendatzen du.

Tonuccik hainbat proposamen egiten ditu: autorik gabeko egunak eta lekuak, haurrak eskolara bakarrik joan ahal izateko bide egokiak egitea eta planifikazio urbanistikoak egiterakoan erakundeek gurasoen zein haurren beharrak kontuan hartzea. Bes-

tela esanda, eskolarako bideak kontuan izateko eskatzen du Tonuccik hirietan bizimodu osasuntsuagoak lortzeko eta haurren autonomia berreskuratzeko. "Liburu txikia da, irakurterraza eta oso gomendagarria", dio Bartolomek.

Zer egin eta nola jokatu seme-alaba txikien jarrera agresiboen aurrean?

Agresibitatea naturala da, berezkoa; 1-5 urte bitarteko etapan funtsezko papera jokatzen du

L.Z. | ARRASATE

Haurren agresibitatearen inguruan argibide interesgarriak egin ditu Beatriz Ezeizak Euskadi irratiko *Mezularia* saioan. "Jaiotzen garenetik daramagu agresibitatea barruan", adierazi du. "Erabiltzen dugu objektuak manipulatzeko, ingurua esploratzeko eta baita bizi iraupenerako. Ez litzateke egokia agresibitatea erreprimitzea; agresibitatea bideratzen erakutsi behar diegu haurrei. Ez egiteak ondorioak ekarriko ditu".

Gurasoak eredu dira

Ezeizak argi dauka haurrak helduen isla direla eta imitazioz ikasten dutela. "Garrantzitsua da haurren aurrean gure jarre-

rak zaintzea", gogoratu du. "Analizatu behar dugu jarrera agresibo horiek zein unetan, nokekin eta zein maiztasunarekin ematen diren. Pistak emango dizkigu horrek. Eta umeei ulertarazi behar diegu gauzak ez direla jarrera agresiboekin lortzen". Ezeizak adierazi du gurasoak oso konstanteak izan behar direla zeregin horretan. "Txikitatik erakutsi behar diegu frustrazioa gainditzeko; ikasi behar dute ezetza jasotzen eta gauzak lortzeko batzuetan itxaron egin behar dutela". Gatazka baten aurrean umearekin eseri eta galdetu; zergatik gertatu da? Nola sentitu zara? Nola egin behar zenuen nahi zenuena lortzeko?

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ADITUAREN ESANETAN

XXI. mendeko eraikuntza aztergai



Aitor Axpe Oianguren
Arizmendiko irakaslea

Maiatzaren 12an Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak antolatuta XXI. mendeko Etxebizitzaren Jardunaldiak egingo dira Garaia Berrikuntza Gunean. Bosgarren edizio honetan dioxido karbonikorik gabeko eraikinak izango dituzte hizpide hainbat adituen esku-tik.

Materia energikoaren arloan Europako Batasuneko epe motzeko helburuetako bat da aurrerantzean egiten diren eraikinetan dioxido karbonikoaren isurketak murriztea. Hori horrela izateko, diseinua, erabilitako materiala eraginkorra izatea eta bertan egiten diren instalazioetan energia berri-tarriak kontuan hartzea. Hala, txikitu egingo da karbono dioxidoaren isurketa.

Eraikin horiek aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan

egiten duten mesedeagatik eta erregai fosilekiko duten dependentsiarik ezagatik, Europako Batasuneko agintari guztiak ados jarri dira eta 2019tik aurrera eremu horretan egingo diren eraikin guztiak dioxido karbonikorik gabekoak izango dira.

Nazioarteko herrialde guztiek ez dituzte irizpide berak erabiltzen balantze energetikoa neurtzeko. Horrenbestez, ez dago definizio bakarra edo estandarra energia zero edo dioxido karbonikoaren isurketa txikinen eraikinen ezaugarriak mugatzeko. Horren adibide dira Erresuma Batuko CSH kodea eta BREEAM ziurtagiria. Zeregin honetan buru-belarri dabilen Europako Batasuneko beste herrialde bat Alemania da, bere *Passivehaus* estandarrarekin.

Ameriketara jotzen badugu, AEBetara alegia, beste hainbat programa aurkituko ditugu *Zero Energy Home*, *Building America*..., eta ez hori bakarrik: LEED

ziurtagiria ere badute. Aldame-neko herrialde baten, Kanadan hain zuzen, *R-2000* estandar eza-guna dago eta Asiara abiatzen bagara bertan altxatutako eraikin eredu-garri bezain bikainak ditugu.

Energia zero edo dioxido karboniko isurketa txikiko eraikinek abantaila ugari dituzte, gehienbat erabiltzaileen poltsikoarentzat. Etxe horietan eraginkortasun energetikoari begira jartzen diren gailuek bizilagunen erosotasuna bermatzen dute eta, gainera, argiaren, ur beroaren eta aire giro-tuaren gastu energetikoa murriztu egiten da. Aldi berean, etxe horiek energia berri-tagarriekin hornitzen direnez, bertako jabeek ez dute zertan larritu energia sektorearen prezioen gorabeherengatik, ez eta erregai fosilen urritasunagatik ere. Gainera, kalitate handiko etxebizitzek hitz egiten ari gara, euren sistemak luzaroan irauteko bermearekin datoz-eta.



Dioxido karbonikoaren isurketa neurtuta egindako eraikina. | ARIZMENDI IKASTOLA

Eraikin horien prezioa garestiagoa da

Dioxido karbonikoaren isurketa txikiko eraikinak egiteko orduan badago hainbat traba. Esaterako, eraikin arruntekin alderatuz, hasierako kostua asko igotzen da. Arrazoiak dira teknologia berriak erabiltzen direla eta energia berri-tagarrien instalazioak egiten direla. Aditu batzuek diotenez, gizartean teknologia horien txertatze motelak eta eraikin horiek egiteko langile trebeak aurkitzeko zailtasunak eraikinaren azken prezioa garestitzen dute. Bestalde, eraikin horien eraikuntza prozesuan egiten diren dioxido karbono isurketak ez dira kontuan hartzen eta oso komenigarria litzateke horiek ere saihesteko ahaleginetan hasteko.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA

Euriak ez zuen lortu trikiti eta pandero doinuak isilaraztea Aramaion

► Kiroldegi eta kultura etxe arteko karpa txiki geratu zen; nekeza zen mugitzea bertan

GOIATZ ARANA | ARAMAIO

Zapore gazi-gozoa geratu zitzairen Debagoieneko trikiti eta pandero jotzaileei zapatuan, Aramaion; gozotik gehiago, edozein kasutan, gazitik baino, erdizka hasitakoa bikain bukatu zelako.

Gogotsu bota zuen euria eta horrek guztiz baldintzatu zituen goizerako asmoak, ez baitzen izan kalejirarik egiterik. Erdigunean nahiz auzuneetan, aterpean egin behar izan zituzten saioak, eta musika tresnak zorroetan gorde-ta eraman batetik bestera. Horregatik, hain zuzen, ez zuten lortu trikiti giroa kalera eramatea, ez behintzat eurek gurako luketen moduan.

Eguerdian, baina, kiroldegi eta kultura etxe artean jarritako karpan babestuta, hasi zen giroa berotzen. Orduantxe izan zen ekitaldi nagusia: Angel Mari Lopez de Bergarak, Rosa Kortabarriak eta Juan Luis Nafarratek lore sorta bana jaso zuten, duela 15 urte Aramaioiko trikiti eskola sortzeko egindako lanagatik. Eta hirukotearen atzetik, taula gainera igo eta pieza batzuk jo zituzten bederatzi herritako trikiti eta pandero jotzailek; musika jo bakarrik ez, baita kantuan eta dantzan egin ere.

Karpatik kiroldegirako bidea hartu zuten ostein, bazkaltzeko; 575 lagun batu ziren, orotara. Eta behin tripa beteta, karpara, atzera ere, Gozategi taldearekin dantzan egitera. Orioko taldeak sekulako arrakasta izan zuen, Gurutze Uribarren antolatzaile eta irakasleak kontatu zigunez: "Bi orduz, jo eta su aritu gara dantzan, giro oso ona izan dugu".



Debagoieneko trikiti eta pandero jotzaileak, nork bere musika tresna altxata, zapatu eguerdiko ekitaldi nagusiaren amaieran. | JOSETXO ARANTZABAL

Datorren urtean Eskoriatzan

Aramaion ospatutakoa Debagoieneko Trikiti Egunaren zazpigarren edizioa izan da; eta zortzigarrena, Eskoriatzan ospatuko da. Zapatuko ekitaldian jaso zuen lekukoa Adolfo Jaimaga Eskoriatzako trikiti eskolako maisuak. Oholtza gainetik, datorren urterako gonbidapena luzatu zuen eta, eguraldiarekin aurtun baino zorte hobea izan dezaten, deabruarekin tratua egingo dutela hitz eman.

Hori baino lehenagoko hitzordurik bada, baina, trikitilarienez: Euskal Herriko Trikiti Eguna. Ekainaren 4an izango da, Landako gunean, Durangon.

"15 urte 15 urte dira, asko da!"

Lopez de Bergara, Kortabarria eta Nafarraterentzat esanahi handikoa izan zen zapatuko omenaldia. Aramaioiko trikiti taldeari eskaini zizkieten jasotako lore sortak, "lan handia" egiten ari delako eta 15 urteko ibilbidea ez delako "nolanahiko marka". Herri txikietan gisa horretako ekimenak martxan jartzea ez da erraza, baina trikitia eta panderoa aramaioartu dira.



Omenduak, lore sortekin. | GOIATZ ARANA



EIDER LUENGO
ARETXABALETA

"Giro oso ona dago, nahiz eta euria egin. Eguerdiko ekitaldi nagusian, arin-arina jo du gure taldeak. Jotzen ikasi beharreko Euskal Herriko musika tresna da niretzako trikitia; nik sei urte daramatzat".



IMANOL ZABALETA
GASTEIZ

"Nik panderoa jotzen dut; anaiak, berriz, trikitia, eta Arrasateko eskolan ikasten du. Harekin batera, familia osoa eta lagunak etorri gara gaur, egun-pasa. Mutil trikitilarien falta sumatzen da!"



ESTITXU UNANUE (LEHENA EZKERRETIK) ETA BERE LAGUNAK
ARETXABALETA

"Zabala aldean ibili gara goizean eta primeran! Kalejira askorik ezin izan dugu egin, baina auzotarrek oso gustura hartu gaituzte; pentsa, sekulako hamarretakoa prestatu digute! Orain bazkaltzera goaz, gero Gozategirekin dantzan egitera... bukaerara arte, hemen egongo gara! 10 bat urte daramatzat trikitia jotzen; hasieran ez zitzaidan asko gustatzen, baina orain, gero eta gehiago".



PELLO OLANO
ALTZO

"Maixa Lizarribar irakaslea da Arrasateko trikiti eskolan eta berarekin etorri nintzen. Bi urte daramatzat ikasten eta... erraz-erraza ez da, baina polita bai. Egia da pieza dut gustukoen".



Kartak soka batekin lotuta ere Tamarizek erakutsi zuen lekuz aldatzeko gai dela. Bi orduko emanaldian hogeit hamar pertsona inguru igo zituen taula gainera. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Tamarizek magikoa egin du VII.a

ARRITXU BARRUSO | ELGETA

Txan! Txan! Txan! Txan! Eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko agertokian munduko mago ospetsuenetarikoa bat agertu zen: Juan Tamariz.

Elgetako Magia Mostrak zazpigarren edizioa ospatu du aste bukaeran eta zenbaki magiko hori Juan Tamarizekin ospatu ahal izan dute. Elgetan urte asko daramatzate mago andaluzia-

rraren atzetik eta azkenean ere lortu dute Magia Mostrara ekar-tzea. Tamarizek Espaloia topera bete zuen egubakoitzean eta baita zapatuan ere.

Umora ona eta esku hobea

Kartekin sekulako abilezia duela jakinekoea da, baina umorea da Tamarizen beste ezaugarri nagusia. Magia egiten duen bitartean ikuslea barrez lehertaraz-

FITXA

ELGETAKO
MAGIA MOSTRA

JUAN TAMARIZ MAGOA

Ikuskizun mota: Magia eta umorea.

Non: Elgetako Espaloia antzokian.

Eguna: Maiatzak 6 –egubakoitza– eta maiatzak 7 –zapatua–.

Iraupena: Bi ordu.

teko abilezia ere badu. Elgetako Espaloian ere halaxe gertatu zen zapatu gauean eta karten erregeak berehala bereganatu zituen ikusleak. Lehenengo ilaran zeudenek, gainera, ia guztiek, jaso zuten magoaren txantxa edota adar jotzeren bat; baten batzuen izenak ere gogoratzen zituen amaierarako.

Magia gertu gertutik

Tamarizek ez dauka beldurrik bere magia eta bere eskuen mugimendua gertutik erakusteko. Bi orduko emanaldian hogeit hamar pertsona inguru igo zituen taula gainera eta guzti guztiak aho zabalik utzi zituen Andaluzia-

koak. Tamarizena magia baino gehiago da, ulertu eta azaldu ezinezko zerbait da.

Nola da posible telefonoaren beste aldean dagoen ezezagun batekin pentsatu duen karta asmatzea? Nola da posible eskuetan zeuden sokaz lotutako bost karta bat-batean zazpi izatea? Eta gehitu diren bi karta horiek, sokaz lotutako beste esku batzuetan falta izatea? Txan! Txan! Txan! Txan! Horixe da Juan Tamariz. Zalantza barik, karten erregea.

Mago guztiek egiten duten moduan, Tamarizek ere kartarik onena utzi zuen amaierarako: hiru kointzidentzien jokoa. Gehiegizkoa izan zen; ikusleak zur eta lur utzi zituen eta, zutik, eta txalo zaparrada itzelarekin agurtu zuten, *Bravo* eta *Maestro* oihukatzen zuten bitartean. Etxerako bidea buruari bueltaka egingo zuten askok eta askok; eta erantzuna? Txan! Txan! Txan! Txan! Juan Tamariz.

Domekan magia gehiago

Argentinako Tangorditos taldeak amaitu zuen atzo, domeka, aurtengo Magia Mostraren egitaraua. Kasu honetan magia kalera ateratu zuten. Argentinako bikoteak umorea eta magia uztartzen ditu, baita musika eta zirkuko ikuskizunak ere. Ordu bete inguruko saioa egin zuten eta gazte zein heldu gustura egon ziren.



Telefonoaren beste aldetik pentsatutako karta ere asmatu zuen magoak. | J.A.



Tamarizek berak gozatu egiten du trukua ondo ateratzen zaionean. | J.A.

AE Betako hegoaldeko doinu klasikoak Amaia antzokian

Jon & Sugramas eta Hogjaw taldeek emanaldi bizia eskaini zuten zapatu arratsaldean

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Kontrastez beteriko kontzertua izan zen: Jon & Sugramasek emanaldi akustikoa egin zuen eta estatubatuarrek, berriz, southern-rock eta stoner estiloen nahas-keta.

Hirukote bezala azaldu zen Jon Gurrutxaga buru duen taldea Amaia antzokiko *hall*-ean. Taldeak bere diskoko blues doinu gozoak

jo zituen eta baita Bod Dylanen *All Along The Watchtower* bertsioa ere. Emanaldi bukaeran, antzokian bildutako 80 lagun txalo zaparrada jaso zuten.

Arizonako Hogjaw taldekoek, berriz, oholtza gainera igotakoan, euren gitarra-anplifikadoreak piztu eta doinu biziagoak jo zituzten. Amerikarrek gaur egungo southern-rock estiloko taldea

direla erakutsi zuten, hau da, Lynyrd Skynyrd edo Molly Hatchet taldeen soinua Black Sabbath edo Kyuss taldeen indarrarekin nahastu zuten. *Ironwood* izeneko disko berriaren aurkezpen biran, kantu berriak bai baina lehen diskoko abestiak ere jo zituzten. Kontzertu gogorra baina entzungarria izan zen eta teknika handiko musikariak direla erakutsi zuten.

Hurrengoak Pureza eta Ken 7

Maiatzean beste bi musika talde arituko dira Amaia antzokian: Pureza eta Ken Zazpi. Purezak, hilaren 13an, egubakoitzean, eskainiko du emanaldia; eta maiatzaren 20an izango da Gernikako taldearen txanda.



Hogjaw taldeko kideak zapatuko emanaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

Antzuola-Aiherra harremana: bi herriren arteko amodiozko istorioa

Egubakoitzean aurkeztu zuten bi herrien arteko 25 urteko erlazioa jasotzen duen liburua; goizean Baionan eta arratsaldean Antzuolan

GOIATZ ARANA | ANTZUOLA

Antzuola eta Aiherra, mugak zubi. Hori da herri bien arteko harremana batzen duen liburua- ren izenburua. Azalean, bi elementu nagusi: lekukoa -20. urteurrenean egindako Korrikan, Aiherratik Antzuolara ekarritakoa-; eta bi esku -gaztearena bat eta bizitza lanean eman duen nagusiarena bestea-, belaunaldi batek besteari jarraipena emateak duen garrantziaren erakusle. Eta barruan: hamaika argazki -zuri-beltzean zaharrenak eta koloretan berrienak-, protagonistei egindako elkarrizketak, pasarteak, anekdotak...

Emaiza eskuetan, gustura agertu ziren aurkezpen ekitaldian, nahiz eta aitortu zuten ez dela lan erraza izan: "Liburua egiteko asmoa bazegoen, baina aspaldian ez zuen inork ezer esaten eta ideia hori ahaztuta egongo zen esperantza nuen", esan zuen Beltzuntze elkarte Jean Mixel Barbierrek, erdi barrezka. Baina hori pentsatu eta gutxira, iazko abenduan, martxan jarri zuten egitasmoa, Aiherrako eta Antzuolako alkateek hala adostuta.



Aiherrako eta Antzuolako ordezkariak liburu aurkezpenean. | JOSETXO ARANTZABAL

Harreman "naturala"

Iparraldeko eta hegoaldeko ordezkariak herri bien arteko harremana modu naturalean sortu, mantendu eta aberastu izanaren garrantzia azpimarratu zuten, baina ofizialtasunaren garrantzia ahaztu gabe: "Laguntza ekonomikoa dakar horrek, sostengua eta egindako lanaren baieztatzea", esan zuen Barbierrek, eta eskerrak eman zizkien Antzuolako eta Aiherrako udalei, egindako lanagatik eta emandako babesagatik.

Beste batzuentzako eredu

Samur eta edonork irakurtzeko liburua dela esan zuten bultzatzaileek, eta gaineratu helburua dela beste herri batzuei antzerako esperientzia bizi izateko gogoia piztea. Orain arte herri bateko eta besteko gizon eta emakumeen artean ez dela ezkontzarik izan, baina aurrerantzean, beharbada, halakoak etorriko direla ere esan zuten, txantxetan. Ondarruko Ibai Muñiz -liburuaren egilea- hori bai, antzuolar bihurtu da.

'Igo Gora' ikuskizuna izango da eguenean Arrasateko gaztetxean

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, *Igo Gora* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da gaztetxean, 22:00etan hasita.

Igo Gora poema luze bat da, bidaia baten kontakizuna, eta irakurketa, musika eta beste-lako diziplinak batzen ditu.

Gasteizen kokatutako proiektu honen atzean eskarmentudun artistak daude. Manex Agirrek, Arabako Bertso txapeldunak, ahotsa jartzen dio; Marco Bianchik soinuak eta ehundurak; eta Jon Aranburuk gitarra elektrikoa, zaratak eta ahotsa. Gitarra, harria, hitzak, egurra, zaratak, ehundurak, airea, musika, arrainak... zuzenean eta

barru barrutik sentitzeko aukera eskaintzen digu *Igo Gora* ikuskizunak.

Maiatzean gehiago

Maiatza eta ekaina ekintzez beteta datoz. Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, agenda polita antolatu dute eta denerikoa ikuskizunak eta doinuak izango dira bi hiletan. Bertsioen Gaua, Big Member, Kodigo Norte, Born to Loose... Horiek maiatzerako aurrerapenak dira. Ekainaren 2an, berriz, Kerobia talde nafarraren popa izango dugu. Izan ere, Kerobiako abeslaria, berriro taula gainera bueltatu da izandako lesiotik sendatu ostean.



'Igo Gora' ikuskizunaren ilustrazio bat. | CELOSAMENTEGORDEA

Debagoiena

Mikel Uribeberria
Aretxabaletako Hautagaitza

Maria Eugenia Arrizabalaga
Antzuolako Hautagaitza

Patxi Basauri
Elgetako Hautagaitza

Aitor Urrutia
Eskoriatzako Hautagaitza

Aintzane Oiarbide
Bergarako Hautagaitza

Juan Karios Garitano
Arrasateko Hautagaitza

Lourdes Idoia
Onatikoko Hautagaitza

ONENA EMATEKO GARAIA

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

GARATE



Mikel Garate musikaria zuzenean harmonikarekin eta gitarrarekin. | MIKEL GARATE

"Barruko pisua husteko, barruko sentimenduei abesten diet"

- 'Kantuxumeak' lana lagun eta musikari handien laguntzarekin egin du
- Txapa Irratian hasi eta Elosuko abadetxean amaitu dute grabazio lana

MAIDER ARREGI | BERGARA

Mikel Garate bergararrak hamar urte pasatxo daramatza musika munduan. Harmonika eta gitarra lagun dituela, askori Bob Dylan gogora ekartzen digu Garatek.

Folk-rock eta country estiloetan sentitzen zara gusturen?

Bueno, naturalki irteten zaidan zerbait da. Ez noa estilo edo doinu baten atzetik. Azken emaitzarekin konturatzen zara zein estilotara gerturatu zaren. Baina nik ez dut estiloetan sinesten. Musikaren sailkapena sinplea da: gustukoa edo ez gustukoa.

Gerra, malkoak, ametsak... Zeri abesten diozu?

Guztiari abestu nahiko nioke, baina nik musika baltsamo moduan erabiltzen dut. Eta baltsamoak norbera gaizki dagoenean erabiltzen direnez, abesti gehienetan, samintzen nauten gauzei abesten diet. Barruko pisua husteko. Barruko sentimenduei abesten diet. Denontzat ezagunak diren gauzei: amodioa, bakardadea, gerra, ezina, lagunak, heriotza, maitasuna, min egin diguten horiei... Neure buruari egiten dizkiodan galderak ere kantuetan islatuta daude.

Bergarako Bob Dylan zarela dioenik ere bada.

[Barre] Bai... nahiko nuke musikaz bizi eta goizeko zortzietan lanera ez joan. Jendeak hori esango du taula gainean harmonika eta gitarrarekin ikusten nauela, baina Bob Dylan handien artean handiena da.

Amodioa eta mina ardatz duten abestiak ere badira.

Bai, baina amodioa baino gehiago, desamodiozko kantuak direla iruditzen zait. Haiei nola aurre egiten dieran eta zer sentitzen dudan.

Disko honetan arima biluztu duzu.

Baliteke baietz. Azkenean, esaten dudan guztia pentsatzen edo sentitzen dudana da. Baina zerbait gordeta ere laga dut [Barre]. Diskoak itxura hori ematen badu, ni pozik!

Elosuko abadetxean egin duzue grabazioa: esperientzia polita?

Ordu askoko lana izan da, eta, momentu batzuetan gogorra izatera heldu bada ere, primerako esperientzia izan da. Txapa Irratiaren egoitzan hasi genuen Fernando Laskurainek eta biok grabazioa. Elosuko abadetxean hasi eta bukatu dugu Laskurain eta Mikel Ilarduiarekin.

Musikari apartak izan dituzu lagun disko honetan.

Musikari bikainak eta lagun hobeak! Nik ez nuen sekula pentsatuko horrelako disko bat aterako nuenik. Haien laguntzarik gabe ezingo nukeen. Musikari moduan ezagutzen dituen orok daki fenomenoak direla: Aby-Kem, Mahaster River eta Cool Panic taldeetan ibiliak dira; produkzioaz eta teknikaz asko dakite.

Esku artean ze asmo?

Kontzertu batzuk emango ditugu diskoa aurkezteko: maiatzaren 13an, Orion, eta maiatzaren 21ean, Bergaran, izango naiz Mahaster Riverrekin batera. Bergarako jailetako domekan, berriz, Anarirekin izango gara, ekainaren 12an. Nire musika entzun nahi dutenek myspace kontuan dute entzuteko aukera: www.myspace.com/mikelgarate.

ZERTZELADA

**'KANTAXUMEAK'****Estiloa:** Folk-rocka**Egilea:** Mikel Garate (Bergara, 1980)**Argitaletxea:** Autoekoizpena**Iraupena:** 35:07 minutu

Sustraietatik edaten duen musika

Norberaren sentimenduak biluztea; barruari, ondokoari, lagunari... abestea, ez da horren ohikoa orain eta hemen. Arrunt eta ohikoa ez den moduan, Ipar Ameriketako rock, folk eta popetik edatea. Badira, ordea, ausartzen direnak eta horietakoa da Garate, Mikel. Ederra atera zaio lehen iraunpen luzekoa, produkzio xume bezain elegantea. Herriko musikari bikainez lagunduta. Distira ematen diote haiek diskoari: erritmo-oinarri sendo eta apaingarri jolastiz. Gustura entzuten da. Euskarazko kantuak dira nagusi, baina ingelesezkoak ere badira; eta horietan, armonika ahoan duela, datorkigu gogora Minesotako koplaria. Handienen artean handiena.

ENEO AZKARATE

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxe adosatua salgai. 96 metro koadroko lorategiarekin. Lau logela eta hiru komun. Bi autorendako garajearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 70 18 81

Aretxabaleta. 72 metro erai-kiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659-64 67 38

Arrasate. 57 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua, berritua eta jantzia. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 03 91 13

Arrasate. Etxebizitza salgai Zarugalden. Hiru logela, bi komun eta egongela handia. Oso eguzkitsua. Igogailu eta berokuntzarekin. 618-19 10 95, 646-97 36 79

Bergara. Martzial Agirre kalean (Espolioa) 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea, bi autorendako, eta 11 metroko ganbarearekin. 608 15 45 25

Bergara. Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, berrituta eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komuna, bi balkoi eta sukaldea. Igogailua eta sotoa. Prezia: 162.000 euro. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 625-70 84 55

Bergara. Zubiaurre aldean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. Egoera onean. Aukera paregabea. 608 23 13 47

Donostia. Igeldoko plazan 3 gelatako duplex berria salgai. Itsasora begira dago, oso argitsua eta bista ezin hobeekin. Bizitzera sartzeko moduan dago. Kontaktuan jartzeko *igeldopla-za@yahoo.es* edo 600-51 40 32 telefonotan. Negoziatzeko aukera.

Durango. Atiko zoragarri bat dugu salgai Durangoko alde zaharrean. Erabat berritzatutrik dago deula 2 urtetikhona. Erabat jantzita. Gas instalazioa egin berri dugu. Oso argitsua da. Deitu: 659-42 58 90. *aotxotorena@yahoo.es*

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpalderra begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berritzuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (Fagor elektrotresnak eta Junkers galdara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 179.000 euro. 607-71 53 53

Eskoriatza. Gaztainadi 27an logela bakarreko apartamentua salgai. Erdi jantzia. Garaje itxia aukeran. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 650-95 56 44 / 943-08 14 90

Oñati. 60 metroko etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Guztiz hornitua. Prezio negoziagarria. Mesedez, gauetan deitu zenbaki honetara: 699-78 47 49

Zornotza. Etxebizitza salgai euban. 3 logela, egongela bat,

sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lur-sailarekin. Aukera paregabea! telefonoa: 695 70 18 58

102. EROSI

Debagoiena. Bikotea jende bila baserria erdibana erosteko Debagoienean. 622-63 51 01

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 56 26 edo 605 43 29 31

Bergara. Herri erdian dagoen hiru logeladun etxebizitza ematen da errentan. Bi terraza ditu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 31 37 45

Torre vieja (Alacant). Torre viejan bungalowa alokatzen da. Urbanizazio pribatuan, gune berdeak eta igerilekuak. 3 logela, egongela, sukaldea, solariuma eta abar. 615-77 96 22 (Itxaso)

Vieux Boucau (Landak). Apartamentua alokatzen dut udan landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza. Apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista, indukziozko sua, frigorifiko handia... Leku bikaina. Harremanetan jartzeko telefonoak: 94 673 27 69 edo 656-75 95 37 eta helbide elektronikoa: *joseba@erroteta.com*

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Logela bakarreko apartamentu hartuko nuke errentan Arrasaten. Merke izan beharko luke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 40 64 65

Baserría. Baserri hartuko nuke errentan prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara 669 17 09 51

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi, hiru edo logela gehiagokoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 53 36 72 edo 677 73 79 59

Bergara. Bergara edo Arrasaten etxebizitza behar dut errentan. 617-12 61 44

Elorrio. Bikote euskalduna alokairuko etxe bila. Biok lanean. Deitu edo idatzi. Telefonoa: 653 -72 81 87

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan Bergarako Bolu auzoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 85 86 68

Durango. Pisukide atsegin baten bila nabil. Tabira auzoan kokatuta dagoen duplex-a da. Etxea berria eta erosoa da. Logela bikoitza eta handia da eta terraza dauka. Maiatza hasieratik erabilgarri. 310 euro hilabetea. Etorri ikustera! Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-50 12 90 edo 635-26 62 51

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garajea irekia salgai Loramendi kalean. 4,76X2,50 metro kuadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 93 77

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdut
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Bergara. Ibargarai kalean (Torrekua erretegiaren ondoan) garaje itxia salgai. Prezioa 7.000 euro. interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 77 57 33

203. ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje itxia alokagai elorrian, kotxe bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Nizeto Urkizu kalean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660-45 87 56.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARETXABALETA

Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 679 45 13 62.

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska euskalduna prest tabernetan edo umeak zaintzen lan egiteko. Harremanetarako, deitu zenbaki honetara: (Samira) 618 90 23 66

Arrasate. Bertako emakume euskalduna, 52 urtekoa, lanerako prest. Nagusiak zaintzen ari tua naiz. 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna gertu zapatuetan, 9:00etatik 11:00etara, plantxa edo beste-lako etxeko lanak egiteko. 699 54 17 27

Arrasate. Esperientziadun neska errumaniarrak etxe zein atariko garbiketaz egingo lituzke. Plantxa egiteko ere bai. Arduratsua naiz. 634 80 49 91

Azpeitia. Helduak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiteko prest. Umeak zaintzeko ere prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695-74 88 35

Bergara edo inguruetan, emakumea lan bila. Garbiketaz egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Maite. Deitu 650 17 74 87 edo 943 53 27 11 telefono zenbakietara.

Bergara. Magisteritza ikasten ari den neska euskalduna eskaintzen da uztaillean umeak zaintzeko. 615 76 29 25

Bergara. Bergarako neska prest etxeko lanak egiteko goizeko 8.00etatik 10.00etara. 943 76 28 12 edo 656 73 64 51

Bergara. Neska gertu 8:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. 656 73 45 11

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketaz egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara. Finkora arratsaldean edo gauaz deitu, mesedez. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Debagoiena. Itzulpengintzako ikaslea ingeleseko nahiz beste ikasgaietarako errefortzu klaseak emateko prest. Ekainean, uztaillean zein abuztuan. Deitu 626 96 06 38 telefonora.

Debagoiena. Psikologia ikasten ari den neska gaztea ekainean eta uztaillean haurrak zaintzeko prest. Deitu 666 36 56 62 telefono zenbakira

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu, edo denetarik garbiketaz egiteko. Eskarmentu eta informez ditut. Egun osoz prest. Autoa daukat. 671 35 22 60

Debagoiena. Esperientziadun neska lanerako prest. Umeak zaindu, etxeko lanak egin edota tabernari lanetan lan bila nabil. : 615 72 72 86

Debagoiena. Gizonezkoa gertu edozelako lanetarako. Deitu 680 75 14 88 zenbakira.

Debagoiena. Ikasle gaztea prest edozein lan egiteko aste-buruetan. Deitu 689 55 83 55. telefono zenbakira.

Debagoiena. Mutileuskalduna sasi-garbitzeko makinaz pinudi, zelai eta abarraz garbitzeko gertu. 658 73 79 02.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume zein nagusiak zaindu edo garbiketaz lanetarako. 681 27 99 54

Debagoiena. Neska arduratsua lan egingo luke nagusiak zaintzen edo egoitzatan geriatria laguntzaile gisa. Bost urteko eskarmentua. Garbiketaz lanetarako ere gertu nengoko. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiten edo bestela. 671 87 44 47

Debagoiena. Neska eskarmentuduna gertu etxean bertan bizitzatzen nagusiak zaintzeko. Deitu 673 78 08 99 telefonora eta Ana Luisa de los Santosengatik galdetu

Debagoiena. Neska gaztea eta euskalduna naiz, eta aste barruan arratsaldean umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasten nabil. Umeen esperientzia badauk, eta autoa ere badauk. Lanerako prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 19 68 85

Debagoiena. Neska gertu asteburuetan edo gauetan nagusiak zaintzeko. Baita elkarre eta abarretan garbiketaz egiteko ere. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketaz lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizitzatzen. 606 40 99 37

Debagoiena. Neska gertu ume, edadetu zein gaixok zaintzeko. Baita etxeak garbitzeko ere. 943 77 10 99 edo 617 66 70 05

Debagoiena. Ume edo nagusiak zaindu eta garbiketaz lanetan jardungo nuke. Orduka zein etxean bertan bizitzatzen. 663 65 78 43

Durango. Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko Tel.: 690-68 25 12 (Oihana).

Garraioak. Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. 628 51 22 78

Lan bila nabil. Esperientzia daukat ostalaritzan eta baita etxeko lanak egiten, umeak zaintzen eta eskola partikularak ematen. Interesatuok deitu zenbaki honetara, mesedez: 615 72 72 86,

Ordenagailuak konpontzen ditut. Hard eta Soft. Ordenagailuak

Sonyk, segurtasun akatsen aurrean, lasaitasuna eskatu die erabiltzaileei

25 milioi erabiltzaileren datuak agerian utzi ditu eraso batek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Azken hiru asteetan segurtasun huts larriak izan dituzte multinazional japoniarrean. Guztira, agerian geratu dira 25 miloi erabiltzaileren datuak mundu osoan. Apirileko azken astean hasi zen amesgaiztoa Sonykонтatzat. Orduan konturatu ziren PlayStation kontsolaren milioika erabiltzaileren datuak ostu zizkietela, PlayStation 3 kontsola "pirateatzea" lortuta. Interneten nabigatu eta eduki multimedia deskarga ditzakete erabiltzaileek sare baten bidez, eta horri egin diote eraso. Datuak zenbait forotan salgai ipini dituztela ere zabaldu da; 68.500 euroren truke saiatu ei dira saltzen; 2,2 milioi erabiltzaileren izen, helbide eta kontu korronteetan berri jasotzen da datu horietan, guztiak PlayStation Network izeneko sareko erabiltzaileenak,



Sonyren Play Station kontsolaren kontrola. | SONY.COM

hain zuzen. Hala ere, Sonyko zuzendarietako batek gezurtatu egin du, azalduz Sony bera saiatu zela eskaintako hori erosten. Halere, bezeroei ere bidali diete oharra, eskatzeko erne ibil

daitezela sareetako kontuetan gerta daitekeen "edozein mugimendu arrarorekin", eta, badaezpada ere, gogorarazi diete Sonyk sekula ere ez dituela datuak posta elektronikoz eskatzen.

Spotifyk iTunesko musika ere gehitzeko aukera emango du aurrerantzean

Aplikazioa bera eta zerbitzu hori doakoak izango dira, gainera

J. B. | ARRASATE

Zerbitzu osagarria abiatu berri du Spotifyk, iTunesko abestiak inportatzen uzteko aukera emanda eta mahaigaineko zein gailu eramangarrietako aplikazio doan jaisten lagata. Musika erreproduzitzeko aplikazio bakarra izatea da helburua, eta, horregatik, iTunesko abestiak eta Spotifykoak software bakarrean batzeko modua erraztu dute. Erabiltzaileak, adibidez, ordenagailuan edota telefonoan daukan musika eta Spotifytik streaming bidez entzun

dezakeena sistema bakar baten batzeko aukera izango du aurrerantzean.

Diskoetxei atsegin ematea

Aukera hori, gainera, doakoa izango da. Izan ere, doako zerbitzuari mugak ipini zizkietenetik bezero galeraren beldur dira Spotifyn. Baina hori bakarrik ez, diskoetxeen oniritzia ere jasoko lukete aukera berri horrekin, zuzenean lotzen baitu arrakastatsua den salmenta kanal batekin, hau da, Apple-en iTunes Storea-

rekin. Spotifyk arazoak dauzka zerbitzua Estatu Batuetan zabalteko, diskoetxeek ez baitute begi onez ikusten doako streaminga. Salmenta sustatuz, diskoetxei atsegin ematea bilatuko lukete Spotifykoek, eta etxeen katalogoa eskuratzea lortu. Estatu Batuetan txertatzeko aldaketa asko egiten dabil musika zerbitzua eta doako kontua mugatzea izan da nagusia. Ezer ondorioztatzeko goiz bada ere, analistek diote erabiltzaile asko galduko dituztela murrizketekin.

Skype erosi guran dabilta Google eta Facebook

J.B. | ARRASATE

VoIP zerbitzuaren atzetik dabilta sareko bi handikiak. Google Skype-en bitartez Google Voice zerbitzua hobetzeko asmotan legoke, esamesek diotenez, baina, aldi berean, Facebook ere atzetik dabilen zurrumurrua zabaldu da. Une honetan Skype ez dabil, gainera, bere unerik gorenenean. Hiruzpalau mila milioi dolarreko balioa estimatzen diote adituek enpresari, baina kontuak egokitzeko mila milioi dolar beharko lituzkete, eta finantzazio bila dabilela gauza jakina da. Facebookeko asmoak ez dira berriak, baina sekula ere ez dira akordiora iritsi bi aldeak. Oraingoan, baina, esaten da dagoeneko Facebookek eginga diola eskaintza Skype-i. Hala ere, iaiztik aukera dago Skype eta Facebook lotu eta Skype bidez kontaktuei mezu eta deiak egiteko. Facebooken asmoa, baina, zerbitzu osoa bereganatzea izango litzateke, edo, gutxienez, Google-ek ez eskuratzea. Bi handikiaren arteko gerran beste fronte bat irekita dago, hortaz.

Streaming bidezko zinema abian da jada Estatuan

J.B. | ARRASATE

Voddler delako plataforma zerbitzua ematen hasi da dagoeneko Espainiako Estatuan. Spotifyren antzerako funtzionamendua dauka zerbitzuak, baina musika beharrean filmak eta ikus-entzunezkoak eskaintzen dira. Gisa horretako lehen egitasmoa da Espainiako Estatuan eta Estatu Batuetako ekoizle nagusiekin dauzka eginda hitzarmenak, eta nobedadeetan oinarritzen da.

Horrela, Internet bidezko film eta telesailen eskaintza zabaltzen hasi da, hortaz, Estatuan. Voddlerrek katalogoaren %80 doan eskainiko du eta 2.194 film, 1.492 telesail atal eta 280 dokumentalek osatzen dute katalogo hori. Multiplataforma da, gainera, Voddler, eta, ordenagailuaz gain, gailu eramangarrietan ikus daitezke edukiak. Zerbitzua gonbidapen bidez proba daiteke. Horretarako, sarrera orrian posta elektronikoko baten helbidea utzi beharra dago eta momentuz doakoa da sustapena.

Hazi egin dira telefonoen aurkako birus erasoak

Birus bitartez telefonoei egingako erasoen kopurua %65 hazi zen 2009tik 2010era. Kasperky antibirus konpainiak eman ditu datu horiek, eta, haien esanetan, sortutako birus gehienak erabiltzaileei dirua kentzeko helburuarekin izan ziren sortuak; adibidez, automatikoki ordainpeko zenbakietara deituta edo webgune faltsuetara sartuta.

Turkia zenbait hitz erregistratzea galarazten saiatu da

Turkiako Telekomunikazioen Autoritateak helbideetatik *gay, free, heldu, bagina, ikasle, biluzia* eta halako berbak debekatu gura ditu. E-posta ofizial baten bidez jakinarazi diete erabakia hornitzaileei, zentsura ezartzeko modu moduan moralitatea zaintzeko aitzakipean. Oraingoz, Turkiako epaitegiek ez dute inolako neurririk hartu.

Business Photos zerbitzua abiatu du Google-ek

Google Mapsen osagarri moduan eskaintzen dute zerbitzua eta ematen dutena da negozio baten 360 graduko argazkia txertatzeko aukera. Argazkiak atera, Google-i eman eta 360 graduko itxura emateko muntaia egingo lukete bertan. Komertzioen sustapenerako bide berriak emateko asmoen barruan kokatzen dela diote Google-etik.

Youtuberen aurkako boikota salatu dute Frantzian

Frantziako zenbait erabiltzailek kexa publikoa egin dute, esanez Orange, SFR eta Freek operadoreak Youtube zerbitzua eragozten dabiltzala bideo atariak ez dituelako gainontzeko operadoreei Estatuak ezartzen dien tasak ordaintzen. Erabiltzaileek diote modu nabarian geldotzen direla bideoak Youtuben beste guneekin konparatuta.

Tweetdeck 40 mila milioi eurotan erosi ei du Twitterrek

Badira aste batzuk bien arteko negoziazioa hasi zela, eta dagoeneko tratua itxita daukatela diote hedabide askok. 40 mila milioi euro baino gehiagotan erosi du Twitterrek Tweetdeck mahaigaineko aplikazioa, zurrumurruen arabera. Aplikazioarengatik baino gehiago, dituen erabiltzaileenatik izango luke interesa Twitterrek.

'Tulankide.com': Mondragon Taldearen kanal berria

Maiatzean jarri da martxan *Tulankide* aldizkariaren bertsio digitala, www.tulankide.com, Mondragon taldea osatzen duten kooperatiba ezberdinen zerbitzurako. Aldizkariak berak duen filosofiar jarraituko dio: Mondragon taldeko kooperatiben berri eman eta kooperatibismoaren balioak bultzatu. Interneteko ataria izanik, albistei jarraitua izango du eta kooperatiben inguruko azken albiste berri emango du.

TUlankide

MONDRAGON taldeko aldizkaria

Sarrera

Kooperatibak

Kolaboratzaileak

Aldizkaria

Maier video

0:00 / 2:47

INDUSTRIA

EZAGUTZA

Maierrek Maier Technology Centre teknologia-zentro berria inauguratu du

2011/04/19 Maierrek, automobilgintza eta etxetresna elektrikoaren sektoreetarako osagaien eta azpimultzoen fabrikatzaileak, Ajangizgo Arabiata Industrialdean dagoen Maier Technology Centre bere teknologia-zentro berria inauguratu zuen joan den martxoaren 31n. Espazio berri horrek 5.600

EZAGUTZA OSASUNA

IMQk eta MONDRAGON Healthek hitzarmena izenpetu dute osasunaren eta zerbitzu sanitarioen arloan ikerketa bultzatzeko

2011/04/12 IMQ Taldeak eta MONDRAGON Healthek lankidetz hitzarmena izenpetu dute, sektore sanitarioan aplikatzeko zientziaren eta teknologiaren eremuan, I+G+b sustatzeko, prozesuetan eta zerbitzuetan ikerketa proiektuak eta berrikuntza programak eginez.

EUSKARA

2011ko zeregin korporatiboak euskararen alorrean

2011/04/08 2009-2012 Plan Estrategikoaren arabera eta ia kooperatibetatik jasotako ekarpenak ere aintzat hartuta, MONDRAGONen Euskara Batzordeak eta Mahai Teknikoak zehaztutako 2011ko Gestio Planaren zeregin nagusiak azaltzen dira jarraian.

GOIENA

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Sare sozialak

Interneten aroan sartu gara. Horrekin batera sare sozia- len mendean. Sare soziala gure mundu birtuala bihur- tu da eta gero eta erabiltzaile gehiago aurkitzen ditugu twit- terren edo Facebooken. Idazten, komunikatzen, entzuten edota informatzen hasi gara bertan.

Telebista saioek badakite internetera moldatu beharrean daudela eta hasi dira sare sozia- letako profilak sortzen. Edozein sarek balio du; baina guztietan baldin badaude hobe.

Telebista saioen faktore garrantzitsu bat audientzia da eta honetan eragin handia izan dezakete sare sozialek. Gero eta lagun gehiago izan, gero eta audientzia hobeia izango dute. Baina nola lortu lagunak? Kon- turatu gara edozerk balio due- la. Horren adibide El Conquis- tador del Fin del Mundo eta Vaya Semanita saioetako aur- kezleen apustua. El Conquista- dor del Fin del Mundo-k 50.000 lagun izan beharko ditu face- booken denboraldia amaitzera- ko eta Vaya Semanitik, berriz, 100.000. Galtzen duenak El Con- quistador del Fin del Mundo saio- ko finalistek Patagonian egingo duten azken proba egin beharko dute baina Euskal Herrian.

Telebista egiteko modua aldatzen ari da. Interneten ez bazaude, ez duzu existitzen. Egiten duzun hori originala bada, askoz hobe.

ASTEA GOIENAN				
GOIENA TELEBISTA				
ASTELEHENA, 9	MARTITZENA, 10	EGUAZTENA, 11	EGUENA, 12	EGUBAKOITZA, 13
				
C02rik gabeko eraikuntzei buruz	Lourdes Auzmendirekin	Hamaika.bit saioa ikusgai	Mirandaolako burdinola	Ipupomamua, umeendako saioa
19:45	19:45	16:00	22:15	18:00
Arizmendik antolatu- tako jardunaldiei buruz jardungo gara Isaac Galarraga eta Gaizka Eraña irakasleekin batera.	Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea elkarriz- ketatuko dugu eta euskara kontuak izan- go ditugu hizpide.	Teknologia berriak ardatz bezala hartuta, Hamaika telebistak ekoitzitako saioa eskainiko dugu egua- z- tenean.	Domekan jarri zuten martxan berriro Miran- daolako burdinola. Bertan izan ginen eta han jasotakoak eraku- tsiko dizkizuegu.	Haurrendako ipuin eta literaturari buruzko telebista saioarekin gozatu ahal izango dute etxeko txikitxo- nek.
13:05 Marrazki bizidunak 13:30 Kantari 14:05 Berbetan 14:45 Berriak 15:15 Klik 31 15:45 Ikusmira 16:15 Gipuzkoa Kultura 16:45 Berriak 17:10 Marrazki bizidunak 17:45 Bi tartean 18:15 28klip 18:45 Berriak 19:15 Kantari 19:45 Goiena Magazinea 20:45 Hauteskundeak 2011 21:05 Harmailatik 21:50 Goiena Magazinea 22:50 Hauteskundeak 2011: 23:05 Harmailatik 23:50 Gipuzkoa Kultura	13:15 Marrazki bizidunak 13:45 Kantari 14:20 Onein 14:45 Berriak 15:45 Harmailatik 16:00 28klip 16:30 Berriak 17:00 Hauteskundeak 2011 17:20 Marrazki bizidunak 18:00 Harmailatik 18:45 Berriak 19:15 Kantari 19:45 Goiena Magazinea 20:45 Hauteskundeak 2011 21:20 Goiena Magazinea 22:20 Hamaika.bit 22:45 Hauteskundeak 2011 23:20 Goiena Magazinea	13:15 Marrazki bizidunak 13:35 Kantari 14:00 Harmailatik 14:45 Berriak 15:15 Onein 16:00 Hamaika.bit 16:30 LTX-Eskulanak 16:45 Berriak 17:15 Hauteskundeak 2011 17:50 Marrazki bizidunak 18:15 Bertso saioa 18:45 Berriak 19:15 Kantari 19:45 Goiena Magazinea 20:45 Hauteskundeak 2011 21:20 Goiena Magazinea 22:20 Bi tartean 22:50 Hauteskundeak 2011 23:25 Goiena Magazinea	13:15 Marrazki bizidunak 13:45 Kantari 14:15 Onein 14:45 Berriak 15:15 Hamaika.bit 15:45 Ikusmira 16:15 Bi tartean 16:45 Berriak 17:15 Hauteskundeak 2011 18:00 Ipupomamua 18:30 Marrazki bizidunak 18:50 Berriak 19:15 Kantari 19:45 Goiena Magazinea 20:45 Hauteskundeak 2011 21:15 Goiena Magazinea 22:15 Gipuzkoa Kultura 23:15 Hauteskundeak 2011 23:45 Goiena Magazinea	13:15 Marrazki bizidunak 13:45 Kantari 14:15 Onein 14:45 Berriak 15:15 Ure eta lur 15:45 LTX-Eskulanak 16:00 Hamaika.bit 16:30 Berriak 17:00 Hauteskundeak 2011 17:30 Marrazki bizidunak 18:00 Ipupomamua 18:30 LTX-Eskulanak 18:45 Berriak 19:15 Kantari 19:45 Goiena Magazinea 20:45 Hauteskundeak 2011 21:40 Goiena Magazinea 22:45 Hauteskundeak 2011 23:40 Aloiako igoera

Txatxilipurdiko udalekuen azken ordukoaren berri

Udaleku irekiak eta itxiak antolatu ditu aurten Txatxi- lipurdik udarako. Haur eta gazteendako eskaitza zabala dute eta hori guztia zehatz mehatz errepasatuko dugu. Horrez gain, izen-emateari buruz ere jardungo gara astean Arrasate Irratian, 107.7ko uhinetan.

Musakola auzoaren webgunearen nondik norakoak jasoko ditugu

Musakolako jai batzordeak webgunea jarri du martxan sarean eta guk gertutik eza- gutzeko aukera izango dugu. Izan ere, webgune hori nola- koa den azalduko digu jai batzordeko lagun batek. Jaie- tako egitaraua, argazkiak eta zein beste notizia sartuko dituzten ere azalduko digu.

Antzerki, musika eta ikuskizunetarako sarrerak zozketan

Pureza talde flamenkoko kon- tzturturako, Dar Dar antzerki taldearen *Etzi* antzezlanerako eta Kooltur osteguneko *Igo Gora* ikuskizunerako sarrerak banatuko ditugu aste honetan Arrasate Irratian. Animatu eta hartu parte zozketan. Par- te hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

Hauteskundeen gaine-ko saioak izango ditugu egunero

Debagoieneko herrietako alkategai guztiak elkarrizketatuko ditugu, gaurtik hasita

AMAILA TXINTXURRETA | ARRASATE
Gaurtik hasi eta hilaren 19ra arte, egunero hauteskunde- en gaine-ko saioak eskainiko ditugu Goiena Telebistan.

Debagoieneko bederatzi herrie- tako alkategaiak gertutik ezagu- tzeko aukera izango dugu saio horietan eta alkategai bakoitza- ri bere herrirako zer nahi duen jakiteko aukera izango dugu ekoiztuko dugun saio bakoitzeko. Partidu politiko desberdinetako zerrendaburuek sei gairi buruz- ko erantzunak eman beharko dituzte: hirigintza, ingurumena,

kultura-aisialdia-gazteak, euska- ra, gizarte ongizatea eta kirola. Bukatzeko, aukera izango dute herritarrei nahi duten mezu bat bidaltzeko ere.

Herriz herri
Hasi, Leintz Gatzagako alka- tegaiak ezagutzen hasiko gara gaur, Elgetakoak izango ditugu bihar, hurrengo egunean Aramaiokoak, hilaren 12an Antzuolakoak, egun bat geroago Eskoriatzakoak, hilaren 16an Aretxabaletakoak, hurren- go egunean Oñatikoak, hilaren



Goiatz Arana izango da saioetako aurkezlea. | JOSU TXINTXURRETA

Leintz Gatzagako alkategaiak ezagutuko ditugu gaur, astelehena

18an Bergarakoak, eta azkenik, hilaren 19an Arrasatekoak eza- gutuko ditugu.

Emisio ordutegia hauxe izan- go da: 20:45ean eta 22:45ean. Horrez gain, hurrengo eguneko 17:00etan errepikatu egingo dugu saioa.

Gainera, maiatzaren 22an hauteskundeetako emaitzak eza- gutzeko aukera ere izango duzue zuen toki telebistan; zuzeneko konekxioak, momentuko datuak, iritziak... denetarik jasoko bai- tugu egun horretan, zuzenean.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Miren Leibar Agirrezabal
Maiatzaren 15ean, 12 urte.
Zorionak, neskato. Patxo handi bat Malen, amatxo eta aitaxoren partetik.



BERGARA
Harkaitz Iarduia Arteaga
Maiatzaren 14an, 2 urte.
Jada bi urte gure politxak! Etxeko danen partetik, zorionak, "guapete"!



ARAMAIO
Ibon Kortabarria Elorza
Maiatzaren 13an, 5 urte.
Urte askotako, preioxo! 5 urte, txapeldun! Muxu handi bat Eneritz, Anje, aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
Mikel Freire Bastardo
Maiatzaren 12an, 10 urte.
Zorionak zure egunean eta ondo pasatu familia eta lagunekin, etxekoen partetik.



BERGARA
Ion Agiriano Larrion
Maiatzaren 11n, 7 urte.
Zorionak eta muxu handi bat familiaren eta batez ere Maitaneren partetik.



ARRASATE
Raul Garcia
Maiatzaren 11n, 2 urte.
Zorionak guraso eta arreba Lauraren partetik!



BERGARA
Ixiar Bikuña Bayer
Maiatzaren 11n, 2 urte.
Zorionak eta patxo handia osaba Aritz, ama Ainhoa, aita Mikel, amama eta aitaitaren partetik!



ARETXABALETA
Maddi de Cesero Eraña
Maiatzaren 10ean, 5 urte. Markel eta Noraren partetik, zorionak!



ARETXABALETA
Aitzol Lagunilla
Maiatzaren 10ean, 8 urte.
Kaixo, txapeldun! Kilo bat patxo gure etxeko "hanka handixari". Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunien; danok joangogara merixendara. Zure familiakxo guztien, eta bereziki, Oskitx, aitaxo eta amatxoren partetik. Urte askotarako!



ARETXABALETA
Martin Bereziartua Altube
Maiatzaren 10ean, 3 urte.
Zorionak, pirata! Patxo handi bat lehengusu guztion partetik.



ANTZUOLA
Yeraí Gomez Sanchez
Maiatzaren 10ean, 12 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxekoen eta lagunen partetik.



ESKORIATZA
Garbiñe Beitia
Maiatzaren 10ian betetzen dittu urtiak. Ate ate ate, Garbi auzo alkate! Zorionak, preioxoa, eta gora Maringo gazterixie!



OÑATI
Xabi Irizar Freire
Maiatzaren 9an, 7 urte.
Zorionak eta urte askotarako potxolo. Ondo-ondo pasatu zure zazpigarren urtebetzean eta horrela segi. Patxo pila-pila bat etxekoen partetik. Muxuak.



BERGARA
Haizea Olabarria
Maiatzaren 9an, 3 urte.
Zorionak, printzesa, eta ondo pasatu urtebetetzian. Patxuak Jone eta Gorkaren partetik.



ARETXABALETA
Ainara Vazquez Cantero
Maiatzaren 9an, 10 urte.
Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jakin asko maite zaitugula. Gurasoak eta Ion.



OÑATI
Uxue Osinaga
Maiatzaren 8an, 10 urte.
Zorionak etxeko printzesiar! Merez dozun mouko egun on-ona pasatu, Uxu! 10 patxo handi etxeko danon partetik!



OÑATI
Irati Delgado Agiriano
Maiatzaren 8an, 5 urte.
Zorionak etxeko politenari! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze eguna eta mila musu bereziki Asier eta Markelen partetik!



OÑATI
Manex Larrañaga Lasaga
Maiatzaren 8an, 5 urte.
Zorionak zure familiaren partetik. Patxo handi bat eta besarkada bat. Ondo pasatu!



ARRASATE
Eneko Parra Matilla
Maiatzaren 8an, 9 urte.
Zorionak, mutikote! Ederto igaro egun berezi hau. Bazkarian tartako kandelatxo guztiak putz handi batekin itzali. 9 txokomarrubizko muxu potolo-potoloak eta belarri tirakada handi bat, txapeldun, laguntxo guztien partetik. Patxoak.



ARRASATE
Eider Amurrio Sáez
Maiatzaren 7an, 6 urte.
Zorionak, sorgintxo. Zure anai Jokin eta lehengusu Jon Ander eta Josuren partetik.



OÑATI
Aiantze Arregi Orueta
Maiatzaren 7an, urtebete.
Zorionak, *potxoli*! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzia! Patzar bat aitaxo, amatxo eta Irairen partetik. Mua!




OÑATI
Ekain Guridi Carrascal
Maiatzaren 7an, 5 urte.
Zorionak, potxolo, eta ondo pasatu urtebetetzian Asier, Beñat, Jone, Gorka eta Noraren partetik.



BERGARA
Aner Ezenarro Muruamendiaraz
Maiatzaren 7an, 38 urte.
Zorionak, aitaxo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat Eriken partetik.



ARETXABALETA
Alba Mier Pavon
Maiatzaren 7an, 3 urte.
Gure etxeko printzesarendako muxu handi bat amatxo, Zuhaitz eta etxekoen partetik.



OÑATI
Mara Mugarza Urizar
Maiatzaren 7an, 2 urte.
Zorionak, polit hori! Bina patxo etxeko danon partetik.



ARRASATE
Aimar Moreno Karbal
Maiatzaren 7an, 3 urte.
Youssef eta Jaimeren partetik, zorionak eta muxu bat!



ESKORIATZA
Iraia Franco Gomez
Maiatzaren 6an, 6 urte.
Zorionak, preioxoa, familiakoen partetik. Ondo pasatu zure eguna eta muxu asko!



ARRASATE
Haizea Laskurain Gonzalez
Maiatzaren 6an, 3 urte.
Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat familia guztiaren eta bereziki Unai, Alaitz eta Eñauten partetik.



OÑATI
Irati Apaolaza
Maiatzaren 5ean, 4 urte.
Zorionak zure lagarren urtebetetzean, Irati!



ARRASATE
Bittor Urteaga Vitoria
Maiatzaren 5ean, 6 urte.
Zorionak, mutikote! Ondo pasatu egune eta disfrutau. Muxu handi bat Kenare, aitaxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Gartxot Elizegi
Maiatzaren 5ean, 4 urte.
Zorionak, Gartxot! Jarraitu fin-fin entrenatzen, laister partidua jokatuko dugu-ta. Baina gehixuau jan beharko duzu, Xabi Prieton lekura ailegatzeko. Aupa Erreala, beti txapeldun! Eta aupa Gartxot! Etxekoen partetik muxu handi bat, eta bereziki Oskitxen partetik!



OÑATI
Aner Urrutia Garcia de Albeniz
Maiatzaren 5ean, urtebete. Zorionak, kaxkurrio! Patxo handi-handi bat etxeko danan partetik.



ESKORIATZA
Mikel Parra Navarro
Maiatzaren 5ean, 9 urte.
Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Liberen partetik.



ESKORIATZA
Xabier Garro Segura
Maiatzaren 4an, 43 urte.
Zorionak, euskalakari! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat Aroa eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Aines Gonzalez Balantzategi
Maiatzaren 4an, 4 urte.
Zorionak, printzesa, 4 urtetxo bete dituzu! Muxu po ARRASATE **Haizea Zabala Muruamendiaraz** Maiatzaren 3an, 5 urte.



ARRASATE
Alejandra Zaldunbide Mallabia
Maiatzaren 3an, 101 urte.
Asko maite zaituen zure 11 birloben eta 5 loben partetik patxo handi bat eta zorionak!



Zorionak, printzesa! Gizurra emuten dau 5 urte pasau diala gure artera etorri zifanetik! Gure etxeko txikixa izan zana, gaur mutikoz inguratuta... 5 tirakada belarrittatik, patxo goxo bat eta urte askotarako, Haizea, Oñatiko familixian partetik!

ARRASATE
Danel Ozaeta Abarrategi
Maiatzaren 2an, 6 urte.



Zorionak etxekoen partetik! BERGARA **Nahia Loidi Garrido** Angiozarko Nahiak apirilaren 30ean, 7 urte.



Zorionak etxekoen partetik! ARETXABALETA **Markel Pando Egurza** Apirilaren 29an, 7 urte. Zorionak, pirata! Muxu



handi bat etxeko guztion partetik. ARAMAIO **Uxue Arana** Apirilaren 29an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Zure



5. urtebetzea ospatuko dugu! Muxu handi bat Jauritxikitik. Merixenda ederra prestatu eta ondo-ondo pasatu etxekoen eta batez ere zure ahizpa Amaiurren partetik!

Zorionak!

Internet
Sar zaitetz goiena.net atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu herria eta bete datuak.
Posta
Mezu bat bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitetz GOIENAKo ordezkaritza batera.

JAIOTAKOAK



Alain Intxausti Gonzalez
Donostia 3,750Kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Esther eta Joxe Mari. Argazkian, umea amarekin.



Uxue Beamurgia Herruzo
Eskoriatza 3,350Kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Julia eta Egoitz. Argazkian, umea aitarekin.



Xabat Altube Axpe
Arrasate 4Kilo. Apirilaren 30a. Gurasoak: Iratxe eta Javi. Argazkian, umea amarekin.



Aiora Aranzadi Martin
Oñati 3,710Kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Saioa eta Joxe. Argazkian, umea sehaskan.



Enaitz Irizar Iztueta
Antzuola 3,940Kilo. Maiatzaren 2a. Gurasoak: Aitziber eta Haritz. Argazkian, umea amarekin.



Oier Errasti Mera
Aramaio 3,940Kilo. Maiatzaren 2a. Gurasoak: Sara eta Haritz. Argazkian, umea aitarekin.



Alaitz Aranegi Aguilar
Arrasate 2,800Kilo. Maiatzaren 3a. Gurasoak: Ana eta Alberto. Argazkian, umea aitarekin.



Asier Ferreira Campos
Eskoriatza 3,540Kilo. Maiatzaren 2a. Gurasoak: Isabel eta Antonio. Argazkian, umea amarekin.



Urko Cembrino Borrego
Aretxabaleta 3,950Kilo. Maiatzaren 3a. Gurasoak: Anabel eta Juan Diego. Argazkian, umea gurasoekin.



Haizea Axpe Rodrigo
Arrasate 2,640Kilo. Maiatzaren 5a. Gurasoak: Esther eta Manu. Argazkian, umea amarekin.

BABESLEA



IKUSI
MAKUSI
Umeen paradisia



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Uxue Boyero Arejolaleiba
Aretxabaleta 2,580Kilo. Maiatzaren 4a. Gurasoak: Olaia eta Miguel. Argazkian, umea amarekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Nazioari dagokio		Luzera neurria		Binaka zatitua	
	Zahato handi		Hurritzaren fruitua		Azienda	
	Noka, zen					
	Talo, bokalik gabe					
Sailen arabera	* Albaniako hiriburua					
Gauako loreak	Herren					
Inidioa	Nazka					
Barundiko herria	Erdi, hitz elkartzeetan					
				Daukat		
				Okzitaniako hizkuntza		
Txolarre						Uranioa
Nafarroako herria						Röntgen

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	R	A	C	V	L	N	A	S
U		I	O	T	R	U	K	
L	U	D		V	E	G	T	E
V	D	R	V	N		R	I	
K	V	E	R	O	T	U	V	G
V	N	V	R	I	L		S	
N	V	N	U	Z				
I	G	V	H	V	Z			
B		K		N				


BILA-BILA 7



AI, ENE!

Sukaldean ere, perfekzionismoa

Askotan, janariaren zaporeari baino, aurkezpenari garrantzia handiagoa ematen zaio. Ohol horrekin, bukatu arazoak.
www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Datorren urtean, Kopa zuzenean eman diezaiotela Bartzelonari"

CRISTIANO RONALDO | FUTBOL JOKALARIA

Txapeldunen Ligatik kanpo geratu dira madrildarrak finalaurrekoetan Bartzelonaren kontra galdu eta gero; eta portugaldarrak, ohikoa den moduan, ezin izan du isilik egon. Epaileen lana kritikatzeko beti da zilegi, baina baita autokritika egitea ere.
www.marca.com

EGURALDIA



Max. **25°**
Min. **11°**

Astelehenean giro eguzkitsua rekin jarraituko dugu. Zerua ia garbi egongo da.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA

goiena

2011-05-09

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Kike Amonarriz 'Mihiluze'-rekin gauero-gauero sartzen da tolosarra gure etxeetan eta euskararekin jolastea dibertigarria dela erakusten digu. Umorea, behintzat, erregalatzeko beste dauka. | TXOMIN MADINA

"Heriotzak ez, audientziak bananduko gaitu Ilaski eta biok"

1. Txikitan zenbat zigor jaso zenituen graziosoarena egitearren?

Bat edo beste bai. Eskolatik dudak lehen oroitzen zirenak bat da andereñoak hura imitatzen harrapatu ninduela eta zigor potoloa jaso nuela; ez zen bakararra izan!

2. Umora beltza dago, baita zuria eta berdea ere. Zein kolore du zureak?

Umora mota guztiak ditut gustuko; egoera, aldarre eta publikoaren arabera aukeratzen dut. Programa askotan zuriatik asko jo dugu, berdea ere maite dugu eta beltza errealitateak berak eskatzen digu.

3. Ez da nekagarria jendeak beti zugandik txiste bat espero izatea?

Txiskola garaian gehiago eskatzen zizkidaten. Nekagarria ez, normalean polita da; jendea aldarre onean etortzen da eta bere umore ona eskaini nahi dizu, eta hobe hori ostikada bat baino.

4. Zeren kontra jo zenuen burua funtzionario postua utzi eta farandula-n sartzeko?

Ikusi nuen askoz baliagarriagoa nintzela handik kanpo, eta aukera polita sortu zen SIADECO-n; farandula gero etorri zen. Egia da harrezkero nahiko nomada sentitu naitzela.

5. 'Mihiluze'-n parte hartuz gero, irabaziko zenuke sari potoloa?

Zaila! Gaiaren arabera, ezta penintsatu ere... Kirolak tokatuz gero, akabo!



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Kezkatzeko motibo izango litzateke"

"Herri honek ni bezalako bat lehendakari aukeratuko balu, nik uste dut kezkatzeko motibo asko izango litzukeela. Horrek ez du esan gura nahi orain arte izan ez dituenik. Nire kasuan, zintzoa izanda, egin beharko nukeena da lehenbailehen dimititu; hori bai, Euskal Herria NATOTik atera eta gero".

6. Txetxu eta Yolanda; Euzkitze eta Klaudio; eta aspalditik, Ilaski eta Kike. ETBn bikote bizitza luzea dute; dibortzatzeko asmorik?

Ezta bat ere! Gure kasuan ez dugu esango heriotzak banantzen gaituen arte, audientziak banandu arte baizik. Ikaragarri harreman ona dugu, elkar oso ondo ezagutzen dugu eta hori lanean urrea da.

7. Biraoak, euskaraz, gaztelaniaz, ala gaztelania euskaratuz?

Kauen la letxe! Hori ez da galde-tzen!

8. Tolosakoa dute askok euskararen politaren eredu. Tolosar moduan, nongoa duzu gustuko?

Euskararen kolore guztiak gustatzen zaizkit; azkenaldian, Gas-teizkoa, Tafallakoa, Baionakoa... Euskalki guztiak dute zertaz gozatu eta zer eskaini. Atentzio berezia jarri behar diegu hiriburu eta gune erdaldunetan sortzen ari diren euskara berriei; emaitza politikak dira zenbait kasutan.

9. Lotsa da euskaldun berrien bekatu handiena?

Hori hala bada, erantzule nagusiak euskaldun zaharrak gara. Gure zenbait jokaera aldatzen hasi beharko genuke.

10. Korrikako mezua idatzi eta irakurtzeak lorik gabeko zenbat gau dakartza?

Aurretik kezka handiko gau batzuk eta ondoren adrenalina jaitsi ezinezko beste zenbait. Edera izan zen!

BIHARAMUNA

ELENA LAKA



Normal moduan

Euskal herritarrok gehien-goia eman ez genion Konstituzioa arau hartzen duen auzitegiak, ebatzi du zilegi dela hauteskundeak normal egitea. Ebazpena baino lehen, aukera guztien aldeko manifestuak izan ziren herrian, inork hizkuntza debekatu barikoa, baina gaztele-ra huts naturalean idatzita-koak. Bildu sujetu politikoko hautagaiek ere sinatu behar izan omen dute aitortza bat, adieraziz demokraziako bideak soilik erabiliko dituztela. Horrelako aitortzen premiak Antzuolako mairuari turban-tea zapaldu arazten zioteneko gogorarazten dute. Zortedun hala ere Antzuolako arabea, gudan preso hartu zutelako demokrazia antzinako greziarrek baino ezagutzen ez zuten garaian. Mairua gaur demokrazia eta askatasuna-ren lurraldean, arma barik harrapatuta, garbituta eta gorpua itsasoan legokeelako. Hil zutenek bere arimaren aldeko otoitz bat eginda. Ze demokrazian, zuzenbidearen estatutak funtzionatzen due-la diotenen arabera, noberak bere patua topatzen du. Eta hauteskunde kanpaina demo-kratikoa da arpegi atseginak eskaintzea, baita aurretik kalea zapaldu ere egin ez duten hautagaiek. Ez esan pazientzia eduki behar ez denik.

Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1
ORRI
Tel.: 943 71 40 22
Fax: 943 78 16 61